

**ARGIBIDEETARAKO ETA PARTE-HARTZE PUBLIKORAKO PROZESUARI BURUZKO TXOSTENA,
AIZKORRI-ARATZ (ES2120002) KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMU IZENDATZEKO INFORMAZIO
EKOLOGIKOARI, KONTSERBAZIO-HELBURUEI ETA JARRAIPEN-PROGRAMARI BURUZKO
DOKUMENTUARI DAGOKIONA**

2016ko martxoaren 23a



Nahi izanez gero, J0D0Z-T0QDM-R8AC bilagailua erabiltuta, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T0QDM-R8AC en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

INDEX

“Aizkorri-Aratz (ES2120002) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko informazio ekologikoari, kontserbazio-helburuei eta jarraipen-programari buruzko dokumentua” dela-eta argibideak emateko eta parte-hartze publikoa izateko prozesua Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legearen (abenduaren 13ko 42/2007) egungo 45. artikuluan xedatuari jarraikiz egin da. Lege horrek Espainiako Zuzenbidera aldatzen du 92/43/EEE Zuzentaraua, Kontseiluarena, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora zaintzeari buruzkoa, eta informazio publikorako eta kontsultarako izapideak bideratzen ditu eragile ekonomiko eta sozialentzat. Gainera, aurreikusitako arauketak zuzenean eragin diezaiekeen foru-organoei eta Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuetakoei parte hartzeko aukera ematen die prozesu honen xede diren xedapen orokorrak egiteko prozeduran, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen (abenduaren 22ko 8/2003) 8. eta 9. artikuluetan xedatuaren arabera (lege hori EHAAn argitaratu zen, 254. zenbakian, 2003ko abenduaren 30ean; bai eta BOEn ere, 284. zenbakian, 2011ko azaroaren 25ean).

Horregatik guztiatik, informazioa emateko eta parte-hartze publikorako prozedura fase hauetan egin da:

1. Informazio-saioak eta partaidetzazko elkarriketakoak.
2. Jendaurrean erakusteko eta alegazio moduan ekarpenak jasotzeko aldia.
3. Kaltetutako herritarrak ordezkatzeko dituzten erakunde eta elkarteak kontsultatzeko izapidea.
4. Kaltetutako administrazioekin elkarriketatzeko eta ituntzeko prozesua.

Horren guztiaren ondorioz, “Aizkorri-Aratz (ES2120002) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko informazio ekologikoari, kontserbazio-helburuei eta jarraipen-programari buruzko dokumentua” izeneko testua azkenekoz eta behin betiko idatzi da, eragileekin hitzartuta eta Natura 2000 Sarearen espirituarekin bat etorruta. Dokumentuaren egitura mantendu egin da, bai eta dokumentuko elementu nagusiak, babes-helburuak eta funtsezko arauak ere, eta berriz bidali dira Jarraibideak eta Kudeaketa Neurriak biltzen dituen dokumentura kudeaketa-arauak, zeinak foru-aldundien eskumena baitira; horregatik, ez da funtsezko aldaketarik izan, jendaurrean jarritakoaren aldean.

Hurrengo ataletan, zehatz-mehatz aztertzen dira prozesua eta dokumentua egiteko faseetan eragileek egindako ekarpenak, eta azalduko kontuak gaika bildu dira, eta arrazoitutako erantzunak jaso dira, trataera eraginkorra eta metodikoa izan dezaten.

1.1 PARTE HARTZEKO ETA INFORMAZIO PUBLIKORAKO PROZESUA

1.1.1 INFORMAZIO-SAIOAK ETA PARTAIDETZA-ELKARRIZKETAKOAK

- *I. aurkezpen instituzionala, Parke Naturalaren Patronatuko Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorraren atalean (Segura, 2014ko urriaren 28a).*
- *II. aurkezpen instituzionala (Zalduondo, 2014ko azaroaren 20a).*
- *I. informazio-bilera, Partzuergoa (Segura, 2014ko abenduaren 3a).*
- *II. informazio-bilera, irekia (Oñati, 2014ko abenduaren 4a).*
- *III. informazio-bilera, irekia (Zalduondo, 2014ko abenduaren 11).*
- *Emitzak itzultzeko saioa (Segura, 2015eko urtarrilaren 8a).*

1.1.2 JENDAURREAN ERAKUSTEKO EPEA

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko apirilaren 27ko Aginduaren bidez erabaki ondoren alde zuzenetik onartzea Gipuzkoa eta Arabako lurralde historikoetan Aizkorri-Arazko (ES2120002) Batasunaren Garrantzizko Lekua Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea, Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren zuzendariaren EBAZPEN bidez (2015eko ekainaren 4koa) jendaurrean jarri da espedienteak, 2015eko ekainaren 12an, ostiralarekin, argitaratutako EHAAren, 2015eko abuztuaren 13ra bitarte alegazioak aurkezteko.

1.1.3 JENDAURREAN ERAKUSTEKO EPEAN ALEGAZIOEN BIDEZ EKARPENAK EGIN DITUZTEN ERAKUNDEEN ETA PERTSONEN ZERRENDA

(1) - ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

1. Ingurumen Zuzendariordetza Nagusia. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa
2. Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
3. Gipuzkoako Foru Aldundia.
4. Arabako Foru Aldundia.
5. Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorra.
6. Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
7. Aretxabaletako Udala.
8. Oñatiko Udala.
9. Leintz-Gatzagako Udala.
10. Asparreneko Udala.
11. Eskoriatzako Udala.
12. Ilarduiako Administrazio Batzarra.
13. Zegamako Udala.

(2) ELKARTEAK ETA PARTIKULARRAK

1. Legazpiko Ingurugela.
2. Gasteizko Ingurugela.
3. Juan Jose Murgiondo.
4. Gipuzkoako Baso Elkartea.
5. Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartea.
6. Baskegur elkartea.
7. Gipuzkoako EHNE.
8. Landarlan Ingurumen Elkartea.
9. EAEko Ehiza Federazioa.
10. Gipuzkoako Mendizale Federazioa
11. Aridos Aloña.
12. Javier Villar.
13. M. Angeles Idigoras.
14. Iñaki Madinabeitia.
15. UAGA
16. Gipuzkoako ENBA
17. Aretxabaletako eragindakoak.
18. Zegamako herritar talde bat.
19. Legazpiko interesdunak.
20. Zeraingo kaltetuak.
21. Eskoriatzako interesdunak.
22. Leintz-Gatzagako interesdunak.
23. Oñatiko interesdunak.

1.2 KONTSULTAK ERAGILE EKONOMIKO ETA SOZIALEI

1.2.1 KONTSULTATUTAKO ERAGILEAK

1. Gipuzkoako Ehiza Federazioa.
2. EHNE
3. ENBA
4. Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuko jabeak eta erabiltzaileak.
5. Gipuzkoako Basogintza Elkartea

1.2.2 KONTSULTA-BILERAK

- Bilera 2015eko abenduaren 10ean, ostegunarekin, goizeko 11:00etan, Eusko Jaurlaritzan (Donostia-San Sebastián kalea, 1 – Vitoria-Gasteiz) – EGURREZKOA ARETOA
- Bilera 2015eko abenduaren 10ean, ostegunarekin, arratsaldeko 13:00etan, Eusko Jaurlaritzan (Donostia-San Sebastián kalea, 1 – Vitoria-Gasteiz) – 20. ARETOA
- Bilera 2015eko abenduaren 21ean, astelehenarekin, goizeko 10:00etan, Eusko Jaurlaritzan (Donostia-San Sebastián kalea, 1 – Vitoria-Gasteiz) – 6. ARETOA

1.3 FORU- ETA TOKI-ADMINISTRAZIOAREKIN ELKARRIZKETATZEA ETA ITUNTZEA

1.3.1 PARTE-HARTZAILEAK

1. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza eta Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza.
2. Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza.
3. Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusia.
4. Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorra.
5. Aretxabaletako Udala.
6. Eskoriatzako Udala.
7. Legazpiko Udala.
8. Leintz-Gatzagako Udala.
9. Oñatiko Udala.
10. Zegamako Udala.
11. Zeraingo Udala.

1.3.2 BATERA LAN EGITEKO SAIOAK

- Lan-saioak hauen artean: Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza eta Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusia.
 - 2015eko urriaren 21ean, asteazkenarekin, goizeko 10:00etan, Ihoben (Urkixo zumarkalea, 36 - 6. solairua)
 - 2015eko azaroaren 2an, astelehenarekin, goizeko 10:00etan, Ihoben (Urkixo zumarkalea, 36 - 6. solairua)
 - Bilera 2015eko abenduaren 10ean, ostegunarekin, goizeko 10:00etan, Eusko Jaurlaritzan (Donostia-San Sebastián kalea, 1 – Vitoria-Gasteiz) – EGURREZKOA ARETOA
 - Bilera 2015eko abenduaren 21ean, astelehenarekin, goizeko 10:00etan, Eusko Jaurlaritzan (Donostia-San Sebastián kalea, 1 – Vitoria-Gasteiz) – 6. ARETOA

- Bilera, 2016ko otsailaren 2an, asteartearekin, goizeko 10:00etan, Ihoben (Urkixo zumarkalea - 6. solairua)
- Bilera udalekin 2015eko abenduaren 21ean, astelehenarekin, arratsaldeko 13:00etan, Eusko Jaurlaritzan (Donostia-San Sebastián kalea, 1 – Vitoria-Gasteiz) – 6. ARETOA

2 AZALDUTAKO KONTUAK ETA ERANTZUN ARRAZOITUAK

Atal honetan, aurkeztutako gaiak multzokatzeko lan sistematikoa egiten da, eta jendaurreko erakusketa-fasean jasotako gaiak eta eragile ekonomiko eta sozialei kontsulta egiteko prozesuetan nahiz zerikusia duten foru- eta toki-administrazioekin hitz egiteko eta ituntzeko fasean landu direnak identifikatu egiten dira.

Gai horiek guztiak aztergai eta arreta-gai izan dira, eta, ondoren, dagozkien azterketak aurkeztuko dira. Gainera, nabarmendu behar da gai horien zati handi bat azken testuan jaso dela, jendaurrean jarritako testua hobetzen dutela pentsatzen delako, testuan funtsezko aldaketarik egin behar izan gabe.

2.1 AURKEZTUTAKO GAI-ZERRENDA

Gaiak honako 14 multzo hauetan banatu dira, trataera sistematikoa egiteko:

2.1.1 Parte hartzeko prozedura eta jendaurreko informaziorako izapideak

2.1.2 Eskumen-banaketa

2.1.3 Dokumentuen ereduak, egitura eta edukia

2.1.4 Mugaketa, konektibitate ekologikoa eta aplikaziorako esparru geografikoa

2.1.5 Erregulazio orokorrak

2.1.6 Basogintza

2.1.7 Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera

2.1.8 Ehiza- eta arrantza-jarduera

2.1.9 Beste kudeaketa-gai batzuk

2.1.10 Garrantzi ekonomikoa

2.1.11 Komunikazioa eta Hezkuntza

2.1.12 Biodibertsitateari buruzko ezagutzak eta informazioa

2.1.13 Erabilera publikoa eta gobernantza

2.1.14 Dokumentuaren beste alderdi batzuk

2.2 ALEGAZIO MODUAN AURKEZTUTAKO GAIEN LABURPENA, ERAGILE EKONOMIKO ETA SOZIALEI KONTSULTA EGITEKO FASEAN EGINDAKO EKARPENENA ETA BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEKIN HITZ EGITEKO ETA ITUNTZEKO FASEARENA, ETA HAI EI GUZTIEI EMANDAKO ERANTZUN ARRAZOITUA

2.2.1 Parte hartzeko prozedura eta jendaurreko informaziorako izapideak

Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Zegama eta Aretxabaletako udalek:

ALEGATZEN DUTE

- lurralde historikoan kontserbazio bereziko eremua kudeatzeko planari buruzko informazioa emateko bilera bakar bat egin dela, "bi" ordukoa, 2014ko urriaren 4an, Oñatin, eta **ekitaldiak oso zabalkunde txikia** izan zuela. Guztira 60 bat pertsona bertaratu ziren, eta bi asteko epea eman zen, eragindako gehienentzat "ulertezina" zen dokumentu bati buruzko alegazioak aurkezteko.

- 2015eko urtarilean beste bilera bat egin zela Seguran, jasotako alegazioei buruz hitz egiteko, baina gaur egun, oraindik, aurkeztutako alegazio guztiez ebatzitakoak idatziz jakinarazi gabe daudela.

ESKATZEN DUTE

- bazter uzteko Aizkorri-Aratz (Aizkorri-Aratz ES2120002 erreferentziakoa) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko kudeaketa-planerako egungo proposamena, eta osorik birplanteatzeko, **interesdun guztiek parte-hartze aktiboa izanda idazkera berrian**, egiten denaren bermagarri, eta, horrenbestez, benetako adostasuna lortzeko.

679 pertsonak honako arrazoi hauengatik (M. Angeles Idígorasek eta Iñaki Madinabeitiak bakarka egiten dute):

ALEGATZEN DUTE

1.- 2015eko ekainaren 12an, ostiralarekin, argitaratutako EHAren arabera, epea 2015eko abuztuaren 13an amaitzen da.

2.- Administrazio publikoaren jardunbide onaren aurkakoa da, ia-ia balio ez duten eta/edo oportetakoak diren aldietan aurkeztean.

3.- Dokumentua interpretatu eta ulertzeko zailtasun handia.

4.- Eragindako sektoreen parte-hartzea eta informazioa, oso txikia edo hutsala.

ESKATZEN DUTE

-Alegazioak aurkezteko **epea zabaltzeko**

Arabako Foru Aldundiak, Leintz-Gatzagako Udalak eta UAGAk alegazioak aurkezteko **epea zabaltzeko** eskatu dute, ez baitute behar adina denbora izan proiektua aztertzeko.

UAGAk, gainera, esaten du parte hartzeko prozesuak oso heterogeneoak izan direla, eta, batzuetan, argi eta garbi desegokiak, baina zehaztu gabe honako hau kasu horietako bat izan den ala ez.

UAGAk dio ezen, EAEren antolamenduan erabakitako eskumen-banaketa harago, EAEko administrazio publikoek **koordinazio**-ahalegina egin beharko luketela bertako herritarrek eta interesdunek ezagut dezaten aurkeztu behar dituzten alegazioen xede den proiektuaren osotasuna.

Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Zegama, Oñati, Aretxabaleta, Legazpi eta Zerain herrietan Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuak eragiten dien 696 pertsonak honako hau

ALEGATZEN DUTE

-**ez dutela izan inolako parte-hartze egiazko** eta eraginkorrik Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremua kudeatzeko plan hori egitean, eta **ERAGINPEKOAK batere pozik** ez daudela plana egiteko erabilitako

prozedurarekin; gainera, 2015eko urtarrilean Seguran egindako bileran aurkeztutako alegazioen erantzunik ez dutela jaso oraindik.

ESKATZEN DUTE

- Bazter uzteko kudeaketa-planaren egungo proposamena (erreferentzia: Aizkorri-Aratz ES2120002), eta guztiz berraztertze, eraginpekoen parte-hartze aktiboarekin, helburua lortzea bermatzen duelako.
- Eraginpekoek **ordezkaritza** proportzionala izatea eta udalerrri bakoitzeko gutxienez ordezkari bat egotea Aizkorri-Arazko natura-parkeko gobernu-batzordean eta Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuak babestutako natura-eremua kudeatzen duen organoan.
- Titulartasun pribatuko lurren **jabeei** jakinarazteko, Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremua kudeatzeko plana onartu baino lehen, zer ondorio izango dituzten beren jabetzetan parkeak eta kontserbazio bereziko eremuak, are lursail katastral bakoitzean identifikatuz ere zaindu beharreko kontserbazio bereziko "funtsezko" elementuak.
- Administrazioa arduratzeko jabetza pribatueta ezarri nahi diren karga eta zortasun guztiak jabetzaren erregistroetan inskribatzeaz, nola parkea ezartzeagatik hala kontserbazio bereziko eremuagatik, bai eta, beharrezkoa izanez gero, jabetzaren eskriturak eguneratzeaz ere.
- Plan bat zehazteko, berma dezan nola balioztatu kontserbazio bereziko eremua ezartzearen ondorioak eta balio-galerak, bai eta nola kalkulatu konpentsazioak titulartasun pribatuko lurren kasuetan.

Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartek aitortzen du ez dela erraza kontserbazio bereziko eremuaren kudeaketa ezartzea, eta, horregatik, kolektibo interesdun guztien arteko negoziazioak eta akordioak zailak izan badaitezke ere, uste du akordio-negoiazio horiek lagungarriak izan daitezkeela geroagoko kudeaketarako, bai eta, guztien inplikazioari esker, jarritako helburuak lortzeko ere. Hortaz, parte-hartzearen aldeko ahalegina egiteko eta Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea atzeratzeko eskatzen dute.

Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartek esaten du ezen, partaidetza-prozesua egiazkoa eta eraginkorra izateko, bereizi behar direla, alde batetik, **lurren jabeak** eta abeltzainak, eta, bestetik, gainerako erabiltzaileak (ekologistak, ehiztariak, mendi-probetan parte hartzen dutenak, fruitu-biltzaileak, aisialdiko erabiltzaileak...), kontuan hartuta oso desberdina dela bakoitzak Aizkorri-Aratzen egiten duen ekarpena, bai eta bakoitzak bertatik jasotzen duena ere.

Aizkorri-Aratz (ES2120002) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko eta eremuaren kontserbaziorako neurriak onartzeko jendearen partaidetza-prozesuan, lege honetan xedatua kontuan hartu da: 27/2006 Legea, uztailaren 18koa, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen (2003/4/EE eta 2003/35/EE zuzentarauak barneratzen ditu). Zehazki, kontuan hartu da legeak esaten duela administrazio publikoek honako hauek zainduko dituztela, ingurumenarekin zerikusia duten planak, programak eta xedapen orokorrak landu, aldatu eta berrikustean jendeak parte-hartze egiazko eta eraginkorra izan dezan:

- a. Jendeari informazioa ematen zaiola planei, programei edo xedapen orokorrei lotutako edozein proposamenei buruz, ohar publikoen bidez edo beste bitarteko egoki batzuk erabiliz, elektronikoak adibidez, horrelakoak egonez gero, edo, hala egokituz gero, haien aldaketa edo berrikuspenari buruz ere bai, eta, era berean, proposamen horiei buruzko informazio egokia ulergarria dela, eta jendearen eskura jartzen dela, erabakitze prozesuetan parte hartzeko eskubideari buruzkoa eta iruzkinak edo alegazioak helaraz dakizkiokeen administrazio publiko eskudunari buruzkoa barne.

b. Jendeak oharrak egiteko eta iritziak emateko eskubidea duela, aukera guztiak irekita daudenean, planari, programari edo xedapen orokorrari buruz edozer erabaki baino lehen.

c. Erabaki horiek hartzen direnean, behar bezala kontuan hartzen direla parte-hartze publikoaren emaitzak.

d. Jendearen oharrak eta iritziak aztertu ondoren, zer erabaki, zergatik eta zertan oinarrituta hartu diren jakinaraziko zaio jendeari, jendeak parte hartzeko prozesuari buruzko informazioa barne.

Laburpen gisa, parte hartzeko prozesuan izandako bilerak adierazten dira:

- I. aurkezpen instituzionala (Segura, 2014ko urriaren 28a).

Parke Naturalaren Patronatuko Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorraren atalari parte hartzeko prozesua aurkeztu zitzaion. 11 pertsona bertaratu ziren.

- II. aurkezpen instituzionala (Zalduondo, 2014ko azaroaren 20a).

Parte hartzeko prozesua Natura Parkeko Patronatuari aurkeztu zitzaion. 25 pertsona bertaratu ziren. Hemezortzi pertsonak soilik utzi zituzten harremanetan jartzeko datuak, eta haien artean ez zegoen Leintz-Gatzagako, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udaletako ordezkariarik. Hiru informazio-saio egitea erabaki zen: bileretako bat Partzuergoarekin, eta beste biak gainerako pertsona/erakunde interesdunekin, bi lurralde historikoetan; bileretara joatea errazteko, saioetako bat Gipuzkoan egitea proposatu zen, Oñatin, eta bestea, berriz, Araban, Zalduondon.

Aurkezpen instituzionaleko bi saio horietarako bi aurkezpen-dokumentu prestatu ziren, eta bertaratutakoei eman zitzaizkien. Dokumentuetan, erantzuna eman zitzaion Natura 2000ri eta dagokion kontserbazio bereziko eremuari buruzko galdera ohikoenei, eremuaren balio nagusiak eta egungo egoera azaldu ziren, eta gizarteak parte hartzeko abian jarri beharreko prozesuaren eskema erakutsi zen.

- Informazio-bilerak
 - Segura, 2014ko abenduaren 3a: Partzuergoarentzako bilera. 27 pertsonak parte hartu zuten.
 - Oñati, 2014ko abenduaren 4a: Aizkorri/Aratzen erabiltzaileentzako, kolektiboentzako eta erakundeentzako bilera. 73 pertsonak parte hartu zuten.
 - Zalduondo, 2014ko abenduaren 11: Aizkorri/Aratzen erabiltzaileentzako, kolektiboentzako eta erakundeentzako bilera. 9 pertsonak parte hartu zuten.

Saioetan, Natura 2000 Sareari, kontserbazio bereziko eremuei eta Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuaren zergatiari buruzko alderdiak aztertu ziren, bai eta kontserbazio-neurrien dokumentuak zer diren ere. Era berean, parte hartzeko prozesuaren planteamenduari, prozesuaren oinarriei eta norainokoari heldu zitzaion, borondatezkoa, informatiboa eta kontsulta-arlokoa zela adierazita, eta amaitu ondoren egin beharreko urratsak azaldu ziren, eta, alde horretatik, geroago egin beharreko jendaurreko erakusketa-aldi ofiziala aipatu zen.

Aurkezpen-dokumentua eman zitzaion bertaratutakoei, zeinean erantzuna eman nahi baitzaie Natura 2000ri eta dagokion kontserbazio bereziko eremuari buruzko galdera eta zalantza ohikoenei, eta eremuaren balio nagusiak eta egungo egoera azaldu ziren, bai eta gizarteak parte hartzeko abian jarri beharreko prozesuaren eskema erakutsi ere.

Saioan zuzenean landu zen kontserbazio-neurrien dokumentua, eta gaika aztertu eta eztabaidatu ziren proposatutako erregulazioak, irizpideak eta jarduketak. Gainera, jarraipenaren eta administrazio-onarpenerako prozeduraren gaiari ere heldu zitzaion.

Helburuei eta neurriei buruzko dokumentua ere eman zitzaien bertaratuei (euskaraz eta gaztelaniaz). Dokumentuan, interesdunei irakurketa eta interpretazioa errazteko helburu soilarekin, gaika antolatuta zeuden erregulazioak, irizpideak eta proposatutako jarduketak. Era berean, dokumentu espezifiko bat jarri zen parte-hartzaileen eskura, zeinean kontserbatu beharreko kontuen eta berorien kontserbazio-egoeraren ezagutza lortu eta hobetzeko neurria guztiak bilduta baitzeuden, aurreko dokumentuetan nahita ez zirelako jaso, pentsatuta ezen, lurraren gaineko erregulaziorik edo jarduketa hautemangarririk ezarri gabe, dokumentuak ulertzea zaildu baino ez zutela egingo.

Bilerak egin ondoren, akta bidali zitzaien harremanetan jartzeko datuak utzi zituzten parte-hartzaile guztiei, azter zitzaten emaitzak, eta zehaztapenak egin edo osatu, zerbait behar bezala jaso gabe zegoela iritiziz gero.

Beraz, bilera horietan jakinarazi zen bazegoela denbora ekarpenak egiteko, 2014ko abenduaren 18ra arte, bai idatziz (posta elektronikoz edo posta arruntez), bai telefonoz.

Informazio-saio horien ondoren, guztira 21 pertsonak edo erakundek idatzizko ekarpenak egin zituzten.

- *Emaitzak itzultzeko saioa (Segura, 2015eko urtarrilaren 8a).*

57 pertsona bertaratu ziren. Partaidetza-prozesuan eztabaidatutako alderdietara itzultzeko aukera ematea izan zuen helburu.

Gizarteak parte hartzeko prozesua amaituta, azken saio horretan, prozesuan zehar egindako ekarpenak dokumentuan nola jaso ziren azaldu zen. Ekarpn jakso ez ziren salbuespenezko kasuei dagokienez, ez jasotzeko arrazoiak azaldu ziren, aurretik hartutako konpromisoa kontuan izanda, eta idatzizko alegazioak Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren Legean (8/2003) araututako jendaurreko informazio-fasean aurkeztea gomendatu zen, hori nola egin azaltzeaz gain. Alegazioen egileei adierazi behar zaie dekretua ez dela onartu oraindik. Dekretuaren zirriborroa jendaurrean jarri da, lege ezarritako bideak erabilia, eta herritarrei, alegazioen egileetako batzuk barne, parte-hartze aktiboa izan dezaten helarazi zaie.

Argitu behar da ekarpenak ez direla alegaziotzat hartzen. Bilera guztietan nabarmentzen da kontu hori, eta azaltzen da lehendabizi iritziak, proposamenak eta iradokizunak jasotzen direla, itzulerako saioan ahozko erantzuna izan dezaten. Era berean, azaldu zen emandako ahozko erantzunarekin pozik ez zeudenek, edo alegazioak aurkeztu nahi zituztenek, jendaurreko informazio-prozesu ofizial eta formalean egin zezaketela, eta Administrazioak alegazio horiei erantzun beharko ziela idatziz.

Parte-hartzea sustatzeko taldeak agindu zuen zuzenean jakinaraziko ziela harremanetan jartzeko datuak eman zituztenei noiz hasiko zen jendaurrean erakusteko aldia, ahalik eta denbora gehien izan zezaten alegazioak egiteko. Eta hala egin zen.

Hortaz, eta aurrez azaldutako prozedurari jarraituta, administrazio eskudunek hartutako konpromisoa izan zen jasotako proposamenei buruz hartutako erabakiak helaraziko zizkietela prozesuan parte hartu zutenei, eta inola ere ez zegoen konpromiso horren barruan proposamenei idatziz erantzutea. Alde horretatik, gehitu behar da ezen, parte hartzeko prozesuaren barruan, inoiz ere ez zela galdetu, ez eta jaso ere, nor ziren ekarpenak egin zituztenak, edo iritziak eman, betiere esku hartu nahi zutenei ahalik eta askatasunik handiena bermatzeko.

Eta, hala, bileretan nahiz geroago idatziz jasotako proposamenei alegazioen egileek aipatutako itzulerako bileran erantzun zitzairen, eta bertaratutakoek gaika antolatuta eta justifikatuta jaso zituzten erantzunak.

Egiaztatuta gelditu den bezala, gizarteak parte hartzeko prozesua legeak eskatutakoari eta beste plangintza-dokumentu batzuetan ohikoa denari egokitzen zaie. Era berean, egindako partaidetza-prozesuaren laburpenean esan bezala, prozesua hasieratik irekita egon da, alde interesdun guztiek parte hartzeko, herritarrek eta toki-erakundeak barne. Gainera, ekarpenak jasotzeko eta herritarrei arreta egiteko sistema bat prestatu zen, posta elektronikoa eta telefono-zenbaki bat jarrita, saioetara joaterik izan ez zutenentzat. Informazio-dokumentuak eta lansaioetan oinarrituta sortutakoak Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Biodibertsitate atalen daukan webgunearen bidez zabaltzen ziren, eta dokumentuak egokitu egin ziren, hizkuntza eta terminologia teknikoak ez erabiltzeko, eta, horrenbestez, dokumentuak ulerterrazagoak izateko herritarrentzat.

Hortaz, sail arduraduna behar adina bitarteko jartzen saiatu da, dauzkan aukera teknikoaren eta aurrekontu-aukeren barruan, dokumentua egiten parte hartzea errazteko.

Hala ere, adierazitako guztiaz gain, eta jendaurreko informazio-aldian aurkeztutako alegazioak ezagutu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak eta Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendiaren eta Natura Ingurunearen Zuzendaritza Nagusiak batera lan egiteko aldi bat ireki zen, txosten honetako 1.4.2 atalean adierazten den bezala, egindako ekarpenak biltzen eta ondoriozko testua ituntzen ahalegintzeko, eta, azkenean, testu hori eragile ekonomiko eta sozialekin aztertu zen, txosten honetako 1.3 atalean aipatutako bileretan.

Guztiarekin ere, esan behar da informazio- eta partaidetza-prozesua eraginkorra izan dela, eta behar bezala osatua, planteatutako kontuak jasotzeko, Aizkorri-Aranazko (ES2120002) Kontserbazio Bereziko Eremuaren antolaketa Europak eskatutako epeetan aurkezteko beharrak markatutako erritmoa galdu gabe.

2.2.2 Eskumen-banaketa

Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrek esaten du bere xede nagusia bere lurraldea administratzea eta kudeatzea dela, oso aspalditik dauzkan eskumenak erabilia, eta, horregatik hori kontuan hartzeko eta dokumentua horri dagokionez aldatzeko eskatzen du.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailarekin eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundiekin egindako ituntze-prozesuan, adostasunez erabaki da 2. ataleko testuaren zati bat aldatzea, Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Nagusiak bere eskumenez eta atribuzioez egindako alegazioari erantzuteko. Hortaz, onargarritzat jo da alegazio hori, eta 2. ataleko 2., 3. eta 6. paragrafoak aldatu eta honela idatzita gelditu dira:

2. paragrafoa:

*"Eremuaren ekialdean, baso-masa eta herri-larre asko Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrek kudeatzen ditu. Partzuergoko Batzorde Nagusiari dagokio bere jabetzako ondarearen aprobetxamenduak administratu, kudeatu, ustiatu eta esleitzea, **bere mendiaren aprobetxamenduen arautze tradizional eta ohiturazkoari jarraikiz, oso aspalditik betetzen diren toki-ohiturak eta -usadioak jasotzen baititu.**"*

3. paragrafoa:

*"Partzuergoak toki-erakundeak dira, Toki Araubideko gaitan Indarrean dauden Xedapenen testu bategina onartzen duen Legegintzako Errege Dekretuak (apirilaren 18ko 781/1986) 37. artikuluan araututako **lurraldea eta antolaketa** dituzte, **eta daukaten helburu nagusia da beren lurraldea (gehienbat onura publikoko mendiak) administratzea, ustiatzea eta erabiltzea, horretarako, oraindik ere, arau ohiturazkoak edo tradizionalak erabiliz.**"*

4. paragrafoa:

Partzuergoaren estatutuekin bat, lurralde barruko aprobetxamenduen onuradunak partzuergoa osatzen duten udaletan erroldatuak dira, baina, erabilera jakin batzuetarako, errozte-, lotura- edo iraute-betebeharra ere eska daiteke, erabileraren edo ohituraren arabera, eta baliabide jakin batzuk erabili ohi dituen jendeari dagokionez.

6. paragrafoa:

*"Partzuergoko Batzordeak antolatzen ditu aprobetxamenduak, **ohiturazko jardunbideak biltzen dituen urteko aprobetxamendu-programa baten bidez, bai eta Basoa eta Larratzea Antolatzeke Planaren bidez ere**, eta antolaketa hori, geroago, foru-administrazio eskudunari aurkezten zaio, onar dezan. Partzuergoak, besteak beste, honako alderdi hauek arautzen ditu nagusiki: baso-aprobetxamendua, ehiza- eta arrain-jardueretarako erabilera eta larratzeko izan daitezkeen baliabideen erabilera."*

Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrak Dekretu-proiektuaren azalpenezko zatiko 6. eta 7. zenbakien artean beste zenbaki bat sartzea iradoki du; hauxe: *"Gipuzkoako eta Arabako diputazioek administratuko eta kudeatuko dituzte Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremurako neurri espezifikoak, Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrak dauzkan eskumenekin batera, honako hauetan adierazitakoaren arabera: 75/2006 Dekretua, Aizkorri-Aratz aldeko Natur Baliabideak Antolatzeke Plana onartzen duena, eta 76/2006 Dekretua, apirilaren 4koa, Aizkorri-Aratz aldea Parke Natural deklaratzeko duena"*.

ENHEk dio konserbazio bereziko eremuaren eskumen-esparrua gaintzen duten arauak gehitzen direla eta Partzuergoaren jardura-esparruan sartzen direla, baina ez du zehazten zein diren erregulazio horiek.

Jendaurreko jarritako dekretuaren zirriborroak Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuaren antolaketa-oinarriak jasotzen ditu, eta, besteak beste, argi utzi behar du zein den erregulazioaren helburua eta lurralde-esparrua, zein den xedea, zein kontserbazio-neurriak eta zein kudeaketa-araubidea.

Alde horretatik, argitu behar du zein den parkean gauzatu beharreko jarduketan eta neurrien administrazio- eta kudeaketa-araubidea, zeina foru-aldundiei baitagokio, eta, bere neurrian, Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrari ere bai, eta, horregatik, zentzuzkoa da hori nolabait jasotzea azkenean izapidetzen eta onartzen den dekretuan.

Era berean, dekretuak argi utzi behar du ea eremua kudeatzeko jarraibideen dokumentuak bateratzen eta egokitzen duen bere garaian izapidetutako Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremua kudeatzeko Jarraibideak eta Neurriak izenekoa, edo, bestela, ea dokumentu independente bat den, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean geroago sartuko dena.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak esaten du Eusko Jaurlaritzak ez daukala eskumenik neurriak onartzeko baso-kudeaketaz, Arbitraje Batzordearen 2/2011 Erabakiaren 5.b oinarri juridikoaren arabera, baso-kudeaketari lotutako neurria izan eta foru-aldundien eskumenak hustuko lituzkeelako, eta 5., 7., 9., 10., 11., 14., 17., 18., 19., 21., 22., 24., 30., 31., 36., 37., 38., 39. eta 40. erregulazioak kentzeko eskatzen du.

Arabako Foru Aldundia bat dator 5. erregulazioaren kasuan, eta, gainera, uste du betiere jarraibidea izan beharko luketela.

Nolanahi ere, pentsatzen da komeni dela argitzea zein den indarreko araudian ezarritako aplikazioko eskumen-araubidea, baina lehenago bi kontu garrantzitsu gogorarazi behar dira, eskumen-esparru aplikagarria aztertu aurrekok baitira:

Lehena da dokumentu horiek Europar Batasuneko, Estatuko eta autonomiako araudia betetzeari lotuta daudela. Zehazki, Habitaei buruzko 92/43/EEE Zuzentarauaren 2. artikulua, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legearen (abenduaren 13ko 42/2007) 2. artikulua den bezainbatean, natura-ondarearen kontserbazio horren printzipioak zehazten baititu, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Dekretuan (apirilaren 15eko 1/2014) bat datozen den bezainbatean, horiei ere erantzuten baitzaie egindako dokumentuarekin.

Bigarren kontua hau da: litezkeen eskumen-gatazkei dagokienez, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundien nahiz Eusko Jaurlaritzaren alegazio-idazkiak zehaztu egiten du babestutako eremu naturalen arloan foru-eskumenetan izan daitekeen arazoa. Alde horretatik, esan behar da zehatz aztertu direla kontserbaziorako eta jarraipen-programarako arauen, helburuen eta informazio ekologikoaren dokumentua eta jarraibideen eta kudeaketa-neurrien dokumentua, zeinak, hurrenez hurren, Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako nahiz Arabako foru-aldundien eskumena baitira, eta beraien banaketa erabaki dela prozesu honetan egindako elkarriketa- eta ituntze-prozesuan.

Indarreko araudian ezarritako aplikazioko eskumen-araubidea ondoren adierazten da:

- Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legearen (abenduaren 13ko 42/2007) 44. artikulua: *"Autonomia-erkidegoek deklaratu dituzte Kontserbazio Bereziko Eremuak eta hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak beren lurralde-eremuan, informazioa jendaurrean jartzeko prozedura bete ondoren."*
- 2/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Elkarteko Osorako Erakundearen eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Jardute Erakundearen arteko Harremanari buruzkoa: 6.1 artikulua, 7.c.3 artikuluari dagokionez. Hor, babestutako eremu naturalen *administrazioa* agintzen zaie foru-aldundiei.
- 1/2014 Legegintza Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena, zeinak zehatzago jasotzen baititu:
 - Deklarazioa: 19.1 artikuluan, babestutako eremu naturalen deklarazioa Eusko Jaurlaritzaren dekreturako uzten da.
 - Kudeaketa: III. tituluko VI. kapituluak kudeaketa jasotzen du, eta, 25.1 artikulua arabera, foru-organismoek dagokie babestutako eremu naturalen kudeaketa 26. artikuluan jasotako *legearen aurreikuspenen barruan*:

"Natura-guneak kudeatzeko organismoek honako eginkizun hauek bete beharko dituzte:

- a. Urtero kudeaketaren aurrekontua eta programa eratzea. Natura-parkeen kasuan, horien onarpena patronatuak eman beharko du, 34. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera. Agiri horietan, dauden natura-baliabideen antolamendu-planen xedapenak aurrera eramatea ezarri beharko da.*
- b. Bertako zerbitzuetatik jasotako fondoak eta kanpotik jaso ditzaketen baliabideak administratzea.*
- c. Natura-gune babestuen babeserako arauak gune horien barruan bete daitezen zaintzea. Babeserako arau horiek Natura Baliabideen Antolamendu Planean edo, hala badagokio, natura-gune babestuaren izendatze-arauan ezarrita daudenak dira. Orobat, natura-gunea kudeatzeko organismoak bidezko diren txosten et a baimenak egin beharko ditu.*
- d. V. tituluaren ezarritako zehatzeko ahala erabiltzea.*
- e. Indarrean dagoen legerian, natura-baliabideen antolamendu-planetan eta erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planetan ezarrita dagoen beste edozein eginkizun."*

Era berean, Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 22. artikuluan berariaz jasotzen da Natura 2000 Sarerako eskumen-araubidea, zeina honela xedatzen baita:

"22.4.– Kontserbazio bereziko eremuak eta hegaztientzako babes bereziko eremuak (HBBE) izendatzeko dekretuek halaber izan beharko dituzte honako hauek: lekuaren eta bere mugaketaren kartografia, izendapena arrazoitzen duten Batasunaren intereseko habitat motak eta animalia- eta landare-espezieak, horien kontserbazio-egoerari buruzko balorazio bat, lekuaren kontserbazio-helburuak eta jarraipen-programa bat.

22.5.– *Kontserbazio bereziko eremuak eta hegaztientzako babes bereziko eremuak (HBBE) izendatzeko dekretuek kontuan hartuko dituzte Eusko Jaurlaritzak eremu horiek kontserbatzeko sortutako arauak. Eusko Jaurlaritzak eremu horiek kudeatzeko jarraibideak eranskin gisa argitaratzeko agindua emango du.*

Lurralde historikoetako foru-organismoek kudeaketa-jarraibideak onartuko dituzte, kontserbazio-helburuak oinarri hartuta, honako hauek jasoko dituztenak: eremuak kontserbazio-egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea ekiditeko neurri egokiak eta inguru horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak ekiditeko neurriak. Plan horiek bereziki aintzat hartu beharko dituzte azalera osoa zein bere lurzorua zati handi bat leku horietan daukaten udalerrien beharrak. Baldintza horien arabera egingo diren jarraibideak Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailari bidali beharko zaizkio, dagokion izendatze-dekretuaren eranskin gisa argitara ditzan.”

Lurralde historikoek gai honetan dauzkaten eskumenei dagokienez, Lurralde Historikoen Legean eta Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginean honako hauek jasotzen dira, hurrenez hurren:

- *Babestutako eremu naturalen administrazioa Lurralde Historikoen Legearen 7.1.c.3 artikuluan aipatuta dago, eta lege-testu bereko 7.1.c artikuluekin lotzen da, horrek hau esaten baitu: "Lurralde Historikoei dagokie beren lurraldean erakunde erkideen legeak betearaztea arlo hauetan:". Funtzio hori Lurralde Historikoen Legearen 8.3 artikuluan garatzen da, esaten baitu betearazpen-ahalmenak erakunde erkideek emandako xedapen orokorren arabera erabiliko direla, esparru horretan beren zerbitzuak antolatu ahal izango dituztela, eta administrazio-ahalmenak izango dituztela (ikuskatzea barne), bai eta berrikustekoa ere administrazio-bidean. Argi dago, beraz, ezen, Lurralde Historikoen Legearen 7.1.a eta 7.1.b artikuluko zerrendetan ez bezala, foru-organismoek ez dutela funtzio arautzailerik Lurralde Historikoen Legearen eskumen-banaketatik ondorioztatuta.*
- *Natura Kontserbatzeko Legeak Lurralde Historikoen Legea garatuz legez jasotzen duen eta eremu horien kudeaketa foru-organismoek agintzen dien maila.. Baina kudeaketaz ulertu behar denaren edukia tituluko IV. kapituluan dago mugatuta, eta 26. artikuluan jasotakoan dago jasota.*

KA-ren 102/1995 Epaiak (22. OJ) argitu zuen natura-parkeen esparruan "kudeaketaren kontzeptuaren edukia, administrazioaren sinonimo bezala erabiltzen" baita; horregatik, bi arauen edukia bera da, eta ez dago desberdintasunik kudeaketaren eta administrazioaren artean.

Hortaz, eskumen-araubide aplikagarria lurralde historikoen legean bilduta dago, non, 6.1 artikuluan, 7.c.3 artikuluan den bezainbatean, foru-aldundiei babestutako eremu naturalen *administrazioa* agintzen baitzaie, bai eta Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginean ere, 22. artikuluan esaten baitu kontserbazio bereziko eremuak deklaratzeko dekretuak eta hegaztientzako babes bereziko eremuak deklaratzekoak barruan hartuko dituztela Eusko Jaurlaritzak eremuok kontserbatzeko egindako arauak, eta espazioaren kudeaketa egiteko jarraibideak eta neurriak integratuko dituztela, azken kontu hori, kudeaketa, lurralde historikoetako foru-organismoek dagokielarik onartzea, organo horiek onartutako neurri egokiak barne hartuta, eta kontserbazio-helburuetan oinarrituta, kasu honetan Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 29. artikuluan xedatuaren arabera izapidetutako Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren edukia gehituz. Horrenbestez, Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundiei dagokie alegazioaren xede den eta jendaurreko informazioarako jarri den dokumentuan jasotako erregulazioei eta helburuak lortzeari dagokienez egokitzen jotzen dituzten neurriak zehaztea eta onartzea, bai eta finantziazio-iturri egokiak ezartzea ere.

Azkenik, eta baso-kudeaketari dagokionez, esan behar da kudeaketa Gipuzkoako Mendien Foru Arauak (urriaren 20ko 7/2006) arautzen duela Gipuzkoan, 63. artikuluan esaten baitu babestutako eremu naturaletan sartutako mendiak foru-arauak berak ezarritako xedapenek arautuko dituztela izapidetzeari eta aprobetxamenduetarako baimenak lortzeari dagokionez, inola ere baztertu gabe eremu naturalak babesteko zehaztapen espezifikoaren eraginpean geratzea beren xede eta helburuetan. Era berean, esaten da foru-administrazioak bere egin beharko dituela eremu naturalen babes eta kudeaketarako ezarritako ingurumen-kalitateko estandarrak, eta, horregatik, argi utzi behar dela foru-arauan bertan zer araudi gailentzen den babestutako eremu naturalaren esparruan. Era berean, Araban, baso-kudeaketa Mendien Foru Arauak (martxoaren 26ko 11/2007) bideratzen du, 18. artikuluan esaten baitu mendiak, baldin eta babestutako eremu naturaletan, hegaztientzako babes bereziko eremuetan, kontserbazio bereziko eremuetan, Natura 2000 Sareko inguruetan edo legezko beste babes mota batzuetan sartuta badaude, foru-arauak berak arautuko dituela, bai eta aplikatu dakiekeen araudi espezifikoak ere. Gainera, 37. artikuluan esaten du babestutako eremuetan kokatutako mendien aprobetxamenduak dagokien babes-araudiko berariazko plangintza-tresnetako xedapenen arabera arautuko direla, inola ere baztertu gabe aplikagarriak zaizkien eta foru-arauan bertan jasota dauden aprobetxamenduen administrazio-baimen espezifikoak izapidetzea eta lortzea.

Aurreko erantzunean adierazi bezala, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, eta zuzenean eragindako toki-erakundeei eta eragile ekonomiko eta sozialei kontsulta egokiak egin ondoren, dokumentutik 4., 7., 9., 11., 14., 18., 19., 20., 21., 22., 24., 25., 26., 27., 30., 31., 32., 34., 36., 37., 39., 40., 51., 52., 53., 54., 55., 57., 58., 60., 62., 63., 74., 75., 80., 83., 86., 87., 88., 92., 94., 97., 99., 101., 104., 107., 108., 109., 111. eta 112. erregulazioak kentzea erabaki da, kudeaketa-neurriak direlako (foru-organoei dagokie kudeaketa garatzea), eta, hala egokituz gero, Aizkorri-Arazko Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean erantsi beharreko Kudeaketako Jarraibideen eta Neurrien Dokumentuan jasoko direlako. Era berean, 5., 8., 10., 12., 13., 16., 17., 28., 38., 41., 43., 46., 47., 48., 49., 50., 61., 65., 68., 69. eta 70. erregulazioen idazkeran aldaketak egitea erabaki da; honela idatzita geratuko dira:

5. erregulazioa eta 8.aren nahiz 10.aren lehen zatia 5. erregulazioan bateratu dira, eta 8.aren bigarren zatia mantendu egin da, baina 4. erregulazioa bezala:

4. Egur hil gehiago izateko eta koleoptero saproxilikoak hobeki kontserbatzeko, borondatezko akordioak egingo dira, moztutako zuhaitzen egurra lurrian bertan uzteko, harik eta egur hilerako gomendatutako mailara iritsi arte.

5. Onura publikoko mendietako espezie alokotoen oihaneztazteetan, baso-antolaketa-erako plan teknikoak eta berorien betearazpena ingurumen-integrazioa eta -portaera hobetzen ahaleginduko dira lurrian, dibertsitate espezifikoaren sustatu egingo da eta, ahal den neurrian, zuhaitz eta zuhaixka autoktonoak errespetatu.

12. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 6.a da, honako testu hau duela:

6. Babestutako eremu naturaleko pagadi azidofilak eta Q.petraea espezieko hariztiak eraldatzea saihestuko da, horren ondorioa azalera osoa gutxitzea bada.

13. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 7.a da, honako testu hau duela:

7. Pagadi azidofiloei eta Q.petraea espezieko hariztiei eragiten dieten eta, gainera, landare-estalkia edo lurrian erabilerak aldatzea eragiten duten baso-proiektuak direla eta, haiei buruz txostena egin beharko du nahitaez lurralde historiko bakoitzean babestutako eremu naturala kudeatzeko eskumena duen organoak.

16. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 9. araua da; Urkiolako Kontserbazio Bereziko Eremurako 2.R.7 bezala dago idatzita, testu honekin:

9. Nekazaritzako eta basogintzako intsektiziden erabilera masiboak pagadi azidofiloetan eta hariztietan izan dezakeen eragina ebaluatuko du babestutako eremu naturala kudeatzen duen organoak, eta dosiak nahiz erabil daitezkeen guneak murriztu ahal izango ditu.

17. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 10.a da, honako testu hau duela:

10. “Baso-kudeaketa iraunkorrerako plan teknikoetan” sartutako neurrien artean, onura publikoko mendietako pagadi azidofiloiei eta hariztiei eragiten dietenak tresna honetan ezarritakoaren arabera izan beharko dute.

28. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 12.a da, honako testu hau duela:

12. Onura publikoko mendietan, bertako baso bihurtu nahi diren aldeetan, trantsizioko ekotonoak sortuko dira basoaren ertzeko espezieekin.

38. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 15.a da, honako testu hau duela:

15. Onura publikoko mendietako pagadi azidofiloetan egiten diren birsortze-mozketetan, espezie sekundarioak mantentzea sustatuko da, pagoen berezko birsortzea bermatzeko.

41. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 16.a da, honako testu hau duela:

16. Onura publikoko mendietako pagadi azidofiloan, gutxienez denboraldi batez moztuta egon den egur lehorra ez da kenduko uztailean eta abuztuan Rosalia alpina duten eremuetatik, espezie horren errunaldiak babesteko.

43. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 18. erregulazioa da; Urkiolako Kontserbazio Bereziko Eremuan agertzen dena bezala dago idatzita, testu honekin:

18. Babestutako eremu natural osoan, behar bezala antolatuta egongo da abeltzaintza-jarduera, organo eskudunek idatzi eta onartutako antolaketa-plan tekniko egokien bidez. Larreak eta abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko inbertsio egokiak jasoko ditu, beharrezkoak direlako gutxienez egungo azienda mantentzeko, eta zer baldintzatan gauzatu behar diren zehaztuko du.

46. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 19.a da, honako testu hau duela:

19. Onura publikoko mendietan, debekatuta dago belar-sastrakak garbitzea goi-mendiko ipurudi herrestariz eta *Juniperus phoenicea* espezieko miter iraunkorrez estalitako lekuetan, gunearen organo kudeatzailerak salbuespenezko kasuetan berariazko baimena eman ezean.

47. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 20.a da, honako testu hau duela:

20. Foru-organismoak baimena eman ezean, debekatuta dago sua erabiltzea sasiak kontrolatzeko metodo moduan. Organo horrek baimena eman ahal izango du lotura izanez gero larre-habitata mantendu eta kontserbatzearekin.

48., 49., 50. eta 61. erregulazioak egungo 21.ean bateratu dira, zeina honela idatzita baitago:

21. Onura publikoko mendietan, Habitaten Zuzentarauan jasotako larre- eta sasi-habitategen okupatzen dituzten eremu guztietan, larreak antolatzeke plan teknikoaren arabera egingo dira jardun agronomikoak (ongarritzea, medeatzea, berrereintza, fitosanitarioak, herbizidak eta sasiak kentzea), edo, bestela, foru-organismo eskudunak baimenduta eta larre-habitaten mantentze eta kontserbazioari lotuta.

65. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 26.a da, honako testu hau duela:

26. *Narcissus minor*-en populazioen bideragarritasuna arriskuan jar dezaketen nahitako jarduerak baztertuko dira.

68. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 29.a da, honako testu hau duela:

29. *Eusko Jaurlaritzaren habitaten kartografian jasotako habitatei (EB kod. 7140 eta EB kod. 4020) eragin diezaieketen turismo-, kirol- eta aisialdi-jarduerak antolatze, baimena eman beharko du organo kudeatzaileak, zeinak, bere azterketan, honako hauek kontuan hartuko baititu: jariatze-uren norabidea eta drainatze naturalak, bai eta, hala egokituz gero, behar diren babes-perimetroak ere.*

69., 70., 74. eta 75. erregulazioak egungo 30.ean bateratu dira, zeina honela idatzita baitago:

30. *Onura publikoko mendietan, baldintzak eta abeltzaintza-zama aztertu ondoren arautuko da istingen eta berorien inguruaren kontserbazioa. Itxiturak jarritz gero, erakunde kudeatzailearen ardura izango da babes-hesiak egoera onean egotea, eta aziendarentzat aska izan daitezen bermatzea. Istingetan eta erretako txilardi higroturbosoetan, babestutako eremu naturalaren organo kudeatzailearen baimena beharko da abeltzaintza-erabilera egiteko.*

2.2.3 Dokumentuaren eredua, egitura eta edukia

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan, adostasunez erabaki da jendaurrean jarritako II. eranskineko 6. zenbakiko kontserbazio-helburuak eta dagozkien funtsezko elementuak, azken helburuak eta helburu operatiboak mantentzea, eta 4. eta 5. azken helburuak eta 2.2, 2.3, 4.1 helburu operatiboak aldatu dira.

Zerikusia zuten administrazioekin eta ukitutako eragile ekonomiko eta sozialekin kontsultak egin ondoren, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, 4. eta 5. azken helburuak eta 2.2, 2.3, 4.1 helburu operatiboak aldatzea erabaki da, eta honela idatzita geratu dira:

2.2. helburu operatiboa. Bertako larre-aprobetxamendua antolatzea, larreak beren espezie bereizgarriekin mantentzea bermatzeko.

2.3. helburu operatiboa. Larreetan, Zuzendarauaren II. eranskineko flora-populazio ezagunen biziraupena bermatzea.

4. azken helburua. Harkaitzei eta kobei lotutako habitaten egoera ekologiko ona ziurtatzea, arriskuan dauden espezie harkaitzar guztien populazio bideragarriak mantentzeko.

4.1. helburu operatiboa. Ingurune harkaitzar horien gaineko ezagutza-maila handitzea.

5. azken helburua. Batasunaren intereseko kiroptero-espezieen presentzia egonkorra (Habitategi buruzko Zuzendarauko II. eranskina eta IV. eranskina) ziurtatzea Aizkorri-Aratzen, kontserbazio-egoera onean.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak esaten du kendu egin behar dela kontserbazio bereziko eremu deklaratzeko dekretuaren zirriborroko 2. artikuluko azken esaldia, helburua "hegazti-espezieen

biziraupena eta ugalketa ziurtatzea dagokion kokaleku-eremuan, eta, bereziki, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak basoko hegaztien kontserbaziori buruz 2009ko azaroaren 30ean emandako 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean adierazitako espezieena, bai eta eranskin horretan adierazi ez diren baina gura iritsi ohi diren espezie migratzaileena ere" dela esaten duena, xede hori ez dagoelako babestuta 92/43/EEE zuzentaruauan, eta xede horren ondorioa delako lehen sektoreak berezko dituen hainbat jardura murriztea.

Ildo beretik, baina oro har, alegazioa egiten dute ENBAk eta UAGAk (azken kasu horretan, gainera, esaten da dokumentuak muga gainditzen duela; izan ere, espezie batzuk kontuan hartzen ditu, baina esplizituki onartzen du ez dela egiaztatu espezie horien presentzia).

Habitat naturalak eta baso-fauna eta -flora kontserbatzeari buruzko Kontseiluaren Zuzentarauaren helburua (1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE; Habitategi buruzko Zuzentaruau aurrerantz) kontserbazio bereziko eremuen osotasun ekologikoa mantentzea da. Osotasuna ekosistemako elementu biotiko eta abiotiko guztien artean gertatzen diren interakzioek erabakitzen dute, eta horrela zehazten dute ekosistemaren funtzionaltasuna, bai eta ingurumen-ondasun eta -zerbitzuak emateko duen ahalmena ere. Hortaz, ulertzen da kontserbatu beharrekoa dela edozein elementu natural edo kultural, baldin eta eragina badu Batasunaren intereseko espezie eta habitaten eskakizun ekologikoetan, edo eskakizun horiek baldintzatzen baditu, eta, beraz, habitat eta espezieen kontserbazio egoera, eta, ondorioz, lekua osotasun ekologikoa. Europako Batzordeak eta komunitate zientifikoak aho batez uste dute ikuspegi integratzaile hori lagungarria dela biodibertsitate osoa kontserbatzeko eta biodibertsitatearen galera geldiarazteko, horretan bat etorritik Habitategi buruzko Zuzentaruarekin eta Europar Batasunak eta Espainiako Estatuak hartutako nazioarteko konpromisoekin, eta Batasunaren intereseko espezie guztien babesa zainduz berorien banaketa naturaleko inguruetan. Zehazki, Batasunaren interesekoak izan gabe habitat moduan aukeratu diren habitat naturalen kasuan, lekua izendapena eragin duten espezieen habitatak dira salbuespenik gabe.

Batzordearen xedapen hori aintzat hartuta, Natura 2000 Sarearen kontserbazio-jarraibideek, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak eginak berak, eta Klima Aldaketarako Estatu Idazkaritzak 2011ko irailaren 21eko Ebazpen bidez onartuak, hartan argitaratu baitziren Ingurumeneko Konferentzia Sektorialak natura-ondareari eta biodibertsitateari buruz hartutako akordioak, honako hau adierazten dute 2.2.1 gomendioan: *"Beharrezkotzat jotzen bada, bestelako habitat eta espezie batzuk sartu ahal izango dira, Batasunaren Intereseko Habitat Motak eta Natura 2000 Sareko Espezieak ez bezalakoak, garrantzia badute kudeaketa-tresnaren aplikazioaren esparru geografikoan"*.

Lehenago, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legeak (abenduaren 13ko 42/2007), Estatuko oinarritzko legedia baita, eta Espainiako Estatuan Natura 2000 Sareari dagokionez esparru arau-emailea, 45. artikuluan espezifikoki arautuak zituen kontserbazio-neurriak, autonomia-erkidegoez honako hau xedatuta: *"... ezarri ahal izango dituzte kudeaketa-plan edo -tresna egokien bidez, eta horiek tokietako bereziak izan ahal izango dira, edo beste garapen-plan batzuetan txertatuta egon daitezke, eta horiek, gutxienez, lekuko kontserbazio-helburuak eta eremuak kontserbazio-egoera onean izateko neurri egokiak bildu behar dituzte"*.

Hortik ondorioztatzen da, alde batetik, dokumentuek garrantzitsutzat jotzen diren beste elementu batzuk izan ahal izango dituztela, eta baliozkoak izango direla betiere *"gutxienez"* eremuak kontserbazio-egoera onean mantentzeko neurriak badituzte, arauak beste eduki batzuk baztertu gabe, eta, hartara, ikuspuntu ekosistemiko bat bermatzen badute, bertan dauden espezieetatik harago doana, eremu osoaren kontserbazio-egoera ona lortzeko.

Plangintza integratuko ikuspegi horrek, gainera, aukera ematen du plangintza-ahaleginak optimizatzeko, bai eta eskura dauden baliabide publikoak optimizatzeko ere, nola habitategi eta hegaztiei buruzko zuzentaruak betetzekoak, hala EAEko kontserbazio-arau espezifikoak betetzekoak, plangintza-tresna bakar batean erantzuna emanez arau

horietatik ondorioztatutako eskakizunei, eta kudeaketa integratua eta koherentea bideratuz; izan ere, zentzugabea da eremu berak, irizpide eta balio ekologikoekin zehaztua bera, kudeaketa-plan bat izatea hegaztientzat, beste bat Batasunaren intereseko gainerako talde taxonomikoentzat, eta beste bat, EAErentzat baliozkoak izanda ere, eta EAEn Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan egonda ere (Agindua, 2011ko urtarrilaren 10ekoa, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda aldatzen duena, eta testu bakarra onartzen; eta Agindua, 2013ko ekainaren 18koa, Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda aldatzen duena), aipatu zuzentaraueetan sartuta ez daudenentzat.

UAGAk egindako alegazioan, proposatzen da babestu beharreko ornodun-espezieen taula bat sartu behar dela faunari buruzko artikuluan (3.3.- *Informazio ekologikoa*), eta, aldi berean, espezie horien presentzia ez dela egiaztatu esplizituki onartzen da, Habitategi buruzko Zuzentarauean xedatua gaitututa, zuzentarau hori eremuetan dauden Batasunaren intereseko habitat eta espezieetara mugatzen delako. Hori guztia dela eta, bi gauza esan behar dira. Lehenik, zuzentarauak, kontserbazio bereziko eremu batean ez dagoen espezie bati buruzko neurriak onartzeaz gain, neurri horiek kontuan hartzeraz ere behartu egiten du, pentsatzen bada kontserbazio bereziko eremua espeziearen banaketa naturalaren barruan dagoela, eta, orain ez badago ere, iraganeko egon dela, eta beharrezkotzat jotzen bada birkolonizatzeko naturala egitea, edo berriz sartzeko, eskualde biogeografiko zehatz batean espezie horren populazio guztien kontserbazio-egoera ona bermatzeko. Bigarrenik, alegazioaren egileak aipatu duen zenbakiak presentzia posible baina egiaztatu gabeko duten espezie batzuen taula jasotzen badu ere (11. taula), espezie horietako bat bera ere ez da aipatzen kontserbazioaren helburu moduan, ez eta, beraz, presentzia nabarmena duen kontserbazio bereziko eremuko funtsezko elementu moduan ere.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak esaten du kontserbatzeko gauza moduan agertu beharko luketela habitategi eta hegazti buruzko zuzentarauek eranskin egokietan agertzen direnek, horietan dagokienez hartu behar direlako kontserbazio-neurriak, kontserbatu beharrekoen artean kenduta 6.1 artikuluan arabera neurriak hartzeraz behartzen ez dutenak; eta Habitategi buruzko Zuzentarauek babestu gabeko kontserbazio-objektuetatik ondorioztatutako eragin sektorialeko erregulazioak kendu beharko liratekeela (7., 8., 9., 11., 14., 17., 19., 21., 22., 26., 27., 30., 78., 79., 80., 84., 92., 93., 94. eta 107. erregulazioak).

Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrek ildo bereko alegazioa egiten du 78. eta 80. erregulazioei dagokienez.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, adostasunez erabaki da dokumentutik 7., 9., 11., 14., 19., 21., 22., 26., 27., 30., 80., 92., 94. eta 107. erregulazioak kentzea, bai eta honako erregulazio hauen idatzkera aldatzea ere: 8. eta 17. erregulazioena, aurreko 2.2.2. atalean adierazitako moduan, eta 78., 79., 84. eta 93. erregulazioena. Kiropteroak ondo eta eraginkortasunez babesteko, beste erregulazio bat sartu da 5.3 helburuaren barruan 50. zenbakiarekin. Guztiak honela idatzita geratu dira:

78. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 36.a da, honako testu hau duela:

36. Babestutako eremu naturalaren barruan baimentzen diren erabilera eta aprobetxamendu berriak kontuan hartu beharko dute zer baldintza bete behar diren hegazti harkaiztarren bizi-ziklorako interesekoak diren I. eranskinetako harkaizt- eta koba-habitaten kontserbazioa bermatzeko.

79. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 37.a da, honako testu hau duela:

37. Hegazti harkaiztarren bizi-ziklorako interesekoak diren I. eranskinen harkaitz- eta koba-habitaten bideragarritasuna arriskuan jar dezaketen obra, lan eta jarduera berriak babes-araudiaren eta -planen arabera egingo dira.

84. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 40.a da, honako testu hau duela:

40. Ez da irekiko pista edo bidexka berririk ingurune harkaiztarretan. Justifikatuta egonez gero, babestutako eremu naturalaren organo kudeatzaileak horrelako jarduerak baimen litzake.

93. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 45.a da, honako testu hau duela:

45. Hegazti migratzaileak ehizatze postu finko berriak jartzeko eta harkaitz-habitatei eragiten dieten ehiza prestatuko inguruak sortzeko, eremua kudeatzen duen organoak baimena eman beharko du aurretiaz, eskaera guztiak eremuan izan lezaketen eraginaren arabera ebaluatuko baititu.

Bestalde, beste erregulazio bat sortzen da 50 zenbakiarekin, honela idatzita:

50. Organo kudeatzaileak kiropteroen aterpe nagusiak identifikatuko ditu, EAEko kiroptero harpetarrak kudeatzeko plan bateratuaz den bezainbatean.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak esaten du erregulazio izendatu direnetako batzuk eskubideak murrizten edo ematen dituzten benetako arauak direla, baina beste batzuk, adierazita dauden modua dela eta, eremu horretan gauzatzen diren jarduketek jarraitu beharreko irizpideak direla. Eta, horrenbestez, zehatz-mehatz arau direnak eta irizpide orientatzaile direnak identifikatzeko eskatzen du.

Ildo beretik, Baskegur Elkartek eta Gipuzkoako Baso Elkartek esaten dute ezen dokumentu honetan, aurreko kontserbazio bereziko eremuen aldean, idatzitakoaren egiturari gertatutako aldaketak berekin dakarrela 7. kapituluaren erregulazioak soilik egotea, eta ez irizpide orientatzaileak, eta horrek agerian uzten duela dokumentu hau inposatzailea dela, ez dituela errespetatzen lurraldean orain arte izandako jarduera tradizionalak, eta baso-jabeekiko eta gizarte-eragileekiko lankidetzaren eta gogokidetasuna falta dituela, dozenaka erregulazio ezartzen zaizkielako, muga horiek konpentsatu gabe. Haien iritziz, gainera, erregulazio asko eta asko neurriak edo orientazioak direnez, esaten dute bereizi behar direla erregulazioak eta neurriak edo jarduketak kontserbazio-arauekin, eta honako erregulazio hauek irizpide orientatzaile edo neurri/jarduketa bihurtu behar direla: 4.a, 5.a, 7.a, 8.a, 12.a, 19.a, 28.a, 29.a, 31.a, 32.a, 35.a, 37.a, 38.a, 39.a eta 40.a.

Arabako Foru Aldundia bat dator 5., 7., 8., 28., 29., 30., 31., 32., 39., 40., 42., 53., 54., 56., 57., 58., 61., 64., 94. eta 99. erregulazioen kasuan, eta uste du jarraibide bat izan beharko luketela. Ildo berean, baina erregulazioak zehaztu gabe, egiten du alegazioa ENBAk.

Adierazten da ezen bi erakundeek kentzeko eskatu duten erregulazioetatik 7.a, 31.a, 32.a eta 40.a kendu direla dokumentutik, eta 5.a eta 8.a aldatu direla aurreko 3.2.2. atalean jaso bezala, eskumen-kontuei eragiten dietelako Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta. Era berean, eta berriz ere aipatu ituntze-prozesuan oinarrituta, Baskegur edo Arabako Foru Aldundiaren ustez jarraibideak edo, bestela, kontserbazio-neurriak edo -jarduketak ziren erregulazioen artean, II. eranskinetik 4.a, 19.a, 29.a, 30.a, 32.a, 37.a, 39.a, 40.a, 53.a, 54.a, 57.a, 58.a, 94.a eta 99.a erregulazioak

kentzea erabaki da, 12., 28., 38. eta 61. erregulazioen idazkera aldatua zen bezala aurreko 3.2.2. atalean, eta orain 42.,a 56.a, eta 64.a aldatu dira, honela idatzita geratu direlarik:

42. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 45.a da, honako testu hau duela:

17. Onura publikoko mendietako pagadi azidofiloetan eta quercus petraea hariztietan, ez da mugituko lurperatuta edo erdi lurperatuta dagoen egurra, ez eta inguruko lurra ere, arriskuan jartzen badute Lucanus cervus larben bideragarritasuna.

56. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 22.a da, honako testu hau duela:

22. Ingurumen-kontratuak edo borondatezko bestelako akordioak sinatzea sustatuko da, larre- eta txilardi-mosaikoa kontserbazio-egoera onean mantentzeko eta, era berean, abeltzaintza estentsiboak eragiten dituen ingurumen-arloko kanpo-efektu onuragarriak saritzeko.

64. erregulazioa aldatu egin da, eta orain 24.a da, honako testu hau duela:

24. Aizkorri-Arazko larreak erabiltzen dituzten abeltzainen parte-hartzea eta elkarlana sustatuko da, larreak eta txilardiak (eta intereseko beste habitat batzuk) babestu eta hobetzeko neurriak prestatu eta gauzatzean.

35. erregulazioari dagokionez, ez da onargarritzat jo alegazioa, eta dokumentuan mantendu da, onura publikoko mendietara mugatuta, 14. zenbakiarekin.

Leintz-Gatzagako Udalak aurkeztutako alegazioak jendaurrean jarritako dokumentuan agertzen ez diren eta jarduketak jasotzen zituen lehenagoko zirriborro bati dagozkion jarduketa batzuei buruzkoak dira. Beste batzuek zalantzan jartzen dituzte dokumentutik harago dauden eta jendaurreko erakuste honetatik kanpokoak diren arau orokor batzuk; adibidez, ingurumen-eragina ebaluatzeko arauak. Zehazki, alegazio hauek dira: 1.a, 3.a, 4.a, 5.a, 6.a, 14.a, 16.a, 23.a, 24.a, 25.a, 26.a, 27.a, 28.a, 37.a, 38.a, 52.a, 54.a, 56.a, 58.a, 59.a, 61.a, 64.a, 65.a, 66.a, 67.a, 68.a, 70.a, 71.a, 77.a, 83.a eta 90.a.

Era berean, Leintz-Gatzagako Udalak iritziak eman ditu 72., 75. eta 80. erregulazioei buruz, baina ez du aurkeztu aztertzeko proposamen zehatzik.

Gipuzkoako Mendizale Federazioaren 3. alegazioak ere ez du aipatzen dokumentuko ezein erregulazio, eta badirudi Aralarerako dokumentuan ingurumen-hezkuntzaz dagoen bati buruz ari dela.

Arabako Foru Aldundiaren 28. alegazioak zonakatzea aipatzen du, baina jendaurrean jarritako helburuen dokumentutik kanpo geratu da.

Aplikagarria den eskumen-araubidean oinarrituta, zeina 1/2014 Legegintza Dekretuan ezarrita baitago, kontserbazio bereziko eremuen eta hegaztientzako babes bereziko eremuen deklarazioa egiteko dekretuen edukiaz den bezainbatean, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiei dagokie *kudeaketa-jarraibideak eta -jarduketak* onartzea, aipatu araudi horretan Natura 2000 Sareko eremuetarako xedatutako betekizunak betez. Dekretu horri jarraikiz, dokumentuaren hasierako zirriborroa aldatu egin zen, eta, besteak beste, proposatzen ziren jarduketak kendu ziren. Beraz, Aizkorri-Arazko natura-parkerako eta kontserbazio bereziko eremurako kudeaketa-jarraibideen eta -jarduketen dokumentuan (Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiek egin eta onartu beharrekoa bera) jaso beharko lirатеke jendaurreko dokumentuan jaso gabeko alderdi alegatuak.

Leintz-Gatzagako Udalak 72., 75. eta 80. erregulazioez emandako iritziei dagokienez, ezin zaie erantzun, ez baitute proposamen zehatzik aurkeztu aztertzeko.

Nolanahi ere, adierazten da 80. erregulazioa dokumentutik kendu dela Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta. Era berean, eta aipatu ituntze-prozesu horretan oinarrituta, dokumentutik 75. erregulazioa kentzea erabaki da.

72. erregulazioari dagokionez, ez da onargarritzat jo alegazioa, eta dokumentuan mantendu da 32. zenbakiarekin.

M^o Angeles Idigoras-ek errepide bat egiteagatik eta bide bat egokitzeagatik lurrak galtzeari buruzko gai batzuk aipatu ditu alegazioetan.

Alegatutako gai horiek ez daude jendaurrean jarritako dokumentuan.

Debagoieneko Landa Garapenerako Elkarateak eskatzen du aitortzeko basoen eta larreen erabiltzaileek eta jabeek egindako lana, bai eta helburuak eta lan egiteko moduak erabakitzeko ere, kontserbazio bereziko eremuaren deklarazioa egin baino lehen. Era berean, aitortzen dute ez dela erraza kontserbazio bereziko eremuaren kudeaketa ezartzea, eta, horregatik, kolektibo interesdun guztien arteko negoziazioak eta akordioak zailak izan badaitezke ere, uste du akordio-negoiazio horiek lagungarriak izan daitezkeela geroagoko kudeaketarako, bai eta, guztien inplikazioari esker, jarritako helburuak lortzeko ere. Beraz, parte hartzeko ahalegina egiteko eskatzen dute.

Izan ere, partaidetza-ahalegina egin behar izan da alegazioen ondoren, eragile ekonomiko eta sozialekin akordioak lortzen ahalegintzeko, guztiek parte har dezaten helburuen lorpenean, alegazioa egin duenak proposatzen duen bezala, haien ondorioz egin baitira orain aztertzen diren aldaketak.

Kontserbazio bereziko eremuen osotasun ekologikoari eustea da Habitategi buruzko Zuzentarauaren helburu nagusietako bat. Osotasuna ekosistemako elementu biotiko eta abiotiko guztien artean gertatzen diren interakzioek erabakitzen dute, eta horrela zehazten dute ekosistemaren funtzionaltasuna, bai eta ingurumen-ondasun eta zerbitzuak emateko duen ahalmena ere. Testuinguru horretan zehazten da zer eragin izan dezaketen Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuan egiten diren erabilerek eta jarduerak kontserbazioaren xede diren habitaten eta espezieen kontserbazio-egoeran.

Informazio ekologikoari, araudiari eta kontserbazio-helburuei buruzko dokumentuan bertan esaten den bezala, eskura zegoen informazioa kontuan hartu da dokumentua egiteko, eta Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuaren ingurumen-kudeaketan eragina izan dezaketen edo kudeaketa hori erabaki dezaketen baldintza naturalak, kulturalak, sozialak eta ekonomikoak aztertu dira. Hartara, alegazioen egileei argitzen zaie ezen kontserbazio bereziko eremuan garatzen diren erabilerak, tradizionalak izan zein ez, funtsezko elementu bakoitzerako “Jarduerak, presioak eta arriskuak” epigrafe errepikatuarekin kontsideratu direla, kontserbazioaren xede diren habitaten eta espezieen kontserbazio-egoerari dagokionez, eta, beraz, kontuan hartu direla helburuak eta erregulazioak ezartzean, oreka bilatuz, ahal den neurrian, kontserbazio-betekizunen, inguruaren garapen sozioekonomikoaren eta Natura 2000 Sarean sartutako eremuetarako jarritako helburuekin bateragarriak diren erabilerak mantendu eta sustatzearen artean (honako hauetan jasota daude: habitategi eta hegaztiei buruzko zuzentarauak; 42/2007 Legea, abenduaren 13koa,

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa; eta 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena).

Europar Erkidegoen Argitalpen Ofizialen Bulegoaren gidak (“NATURA 2000-KO EREMUEN KUDEAKETA. Habitaten inguruko 92/43/EEE Zuzentarauko 6. artikuluko xedapenak” izeneko; 2000. urtean argitaratua) 32. orrialdean dioen bezala: *“Esan behar da ikuspuntu ekologikotik onuragarriak edo bateragarriak diren jarduerak jada lekua izan dezaketela 6. artikuluko 1. eta 2. zenbakien barruan: adibidez, habitat eta espezie mota batzuen oinarria diren nekazaritza-jardun tradizionalak.”*

Alde horretatik, inguruan bizi izan direnek mendeetan zehar egindako jardura tradizionalak eragina izan dute eremuaren egungo kontserbazio-egoeran, eta inguru batzuetan ezaugarriak oso balio handikoak dira; are gehiago, aukera ematen dute kontserbaziorako interes handiko espezieak izateko, eta espezie horiek mikrohabitat berezi batzuen mendeko direnez, eta haiei estu lotuta daudenez, jarraitu behar da jardura horiek mantentzen. Alde horretatik, egia da Natura 2000 Sareak gorde nahi duen biodibertsitatearen zati bat habitat erdinaturaletan dagoela, eta habitat horiek gizakien eta natura-ingurunearen arteko interakzioaren ondorio direla; gainera, interakzio hori izan gabe, desagertu egingo lirateke. Horregatik, eta kontuan hartuta horrelako inguruneen erabilerari lotutako jarduerak iraganean zer eragin izan duten, planak jardunbide horiek biodibertsitatearako duten balioa aitortzen du, eta zenbait neurri proposatzen ditu, mantentzen dituzten jardura tradizional bateragarriak sustatu eta mantentzeko. Baina, era berean, egia da ezen, jardura jakin batzuei dagokienez, jardura horien eragin kaltegarriaren ebidentzia zientifikoak daudela, bai naturaltasunaren eta osaera espezifikokoaren mailan, bai beren funtzionaltasun ekologikoan. Alde horretatik, esan behar da ezen bateragarriak direnak Habitategi buruzko Zuzentzarauak, 42/2007 Legeak eta 1/2014 Legegintzako Dekretuak ezarritako kontserbazio-helburuekin, bai eta informazio ekologikoari, araudiari eta kontserbazio-helburuei buruzko dokumentuak garatutako helburuei dagokienez ere, ez mugatzeaz gain, neurriak proposatzen direla jardura horiek sustatzeko eta, are, aipatu helburuekin duten bateragarritasuna hobetzeko ere.

Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartek eskatzen du giza baliabideen eta baliabide ekonomikoen definizioak eta ezarpenak hartutako akordioetan oinarrituta egoteko, eta soil-soilik zaintza-, debeku- eta zehapen-jarduketetan oinarrituta ez egoteko.

Ildo horretan, esaten dute ezen, baso-kudeaketarekin eta biodibertsitatearen kontserbazioarekin zerikusia duten premiazko neurrien artean, irizpide orientatzaile berriak sartu behar direla jabeekin akordioak lortzeko, eta uste dute hori baso hostoerorkorren egitura, osaera eta funtzionaltasun ekologikoa hobetzeko ezarritakoak bezain premiazkoa dela; gainera, akordio horiek lortzeko behar diren giza baliabideak horretara bideratzeko eskatzen dute.

Aizkorri-Aratzen kasuan, gainerako kontserbazio bereziko eremuen izendapenerako egin bezala, ezin bestela izan, Habitategi buruzko Zuzentzarauak jasotako helburuak lortzeko neurri egokien ezaipena arrazoi ekologikoen mende jartzen da, Habitategi buruzko Zuzentzarauaren 2. artikuluan adierazi moduan, eta, horretarako, informazio ekologikoari, araudiari eta kontserbazio-helburuei buruzko dokumentuak egiten duen bezala, alderdi ekonomikoak, sozialak eta kulturalak kontuan hartuko ditu, bai eta eskualde- eta toki-berezitasunak ere, Zuzentzarauak adierazitako helburuak lortzeko neurri egokiak ezartzeko. Hala eta guztiz ere, dokumentu horiek garapen sozioekonomikoko planak ez izan arren, eta haien xedea natura-habitata eta basoko espezieak egoera onean kontserbatzea izanda, premia sozioekonomikoak kontuan hartu dira Habitategi buruzko Zuzentzarauaren 2. artikuluko 3. zenbakiaren arabera, eta zenbait proposamen gehitu dira, eragileek kontserbazio bereziko eremuaren kudeaketan duten parte-hartzea handitzeko. Hala ere, babestutako eremu naturalei dagokienez aplikagarria den eskumen-araubidea errespetatuta,

zeina jasota baitago Autonomia Elkarrekin Osorako Erakundearen eta Bertako Kondeak Lurraldeetako Foruak Jardute Erakundearen arteko Harremanei buruzko Legea (azaroaren 25eko 2/1983) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbazio Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Dekretuan (apirilaren 15eko 1/2014), Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiei egokitu litzaien proposamen horiek zehaztea, onartzea eta aplikatzea, bai eta partaidetzari dagokionez egokitzen jotzen dituzten beste neurri batzuk ere, Aizkorri-Aratz kudeatzeko jarraibideen dokumentuaren bidez.

Biodibertsitatearen kontserbazioa da Natura 2000 sareko eremuen izendapenaren jatorria eta helburu nagusia, Habitategi buruzko Zuzendaria aplikatuta. Beraz, Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko informazio ekologikoari, kontserbazio-helburuei, kontserbaziorako arauak eta jarraipen-programari buruzko dokumentuaren helburua eta edukia Natura 2000 Sareko eremuetarako betebeharrak kokatuta daude, eta betebeharrak horiek honako hauek daude zehaztuta: habitategi eta hegazti buruzko zuzendaria; Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legea (abenduaren 13ko 42/2007); eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbazio Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Dekretuan (apirilaren 15eko 1/2014).

Habitategi buruzko Zuzendaria 6. artikulua (zuzendaria gaian aplikatzeko den oinarriko legedira aldatuta dago) esaten du zer xedapenak arautzen duten Natura 2000 Sareko eremuen kontserbazio eta kudeaketa, eta erabakigarrietako bat da biodibertsitatearen kontserbazio nahiz hobekuntzaren eta luraren erabileraren artean dagoen loturari dagokionez. Alde horietatik, Europako Batzordeak berak dio ezen, ikuspegi zabalago batetik aztertzen bada (Europar Erkidegoa eratzearen Tratatuak), 6. artikulua funtsezko esparrutzat har daitekeela integrazio-printzipioa gauzatzeko, estatu kideak bultzatu egiten baititu babestutako eremuen kudeaketa jasagarria egitera, eta mugak ezartzen baititu babestutako eremuetan eragin kaltegarria izan dezaketen jardueretarako. Gainera, aldi berean, jardura onargarriak edo bateragarriak ahalbidetzen ditu ikuspuntu ekologikotik, hala nola nekazaritza-jardunbide tradizionalak, habitat eta espezie mota batzuen euskarria direlako, aurreko alegazioaren txostenean esan bezala.

Kontserbazio bereziko eremu guztietarako kontserbazio-neurriak zehazteko betebeharrak Habitategi buruzko Zuzendaria 6. artikuluko 1. zenbakian dago jasota, kontserbazio orokorreko araubide bat ezartzen baitu, Natura 2000 Sareko kontserbazio bereziko eremu guztiei aplikatzen zaiena, salbuespenik gabe, bai eta I. eranskineko mota guztietako habitat naturalei eta eremu horietan dauden II. eranskineko espezieei ere, eta premiazko kontserbazio-neurri horien xedea da mota guztietako habitat naturalak eta Batasunaren intereseko espezieak kontserbazio-egoera onean mantentzea, edo egoera hori berriz ezartzea.

Ezari beharreko neurrien tipologiari dagokionez, Europako Batzordeak dio neurriek, kontserbazio bereziko eremuetarako ezarritako kudeaketa-eredua gorabehera, arauzkoak, administratiboak edo kontratuzkoak izan beharko dutela, eta zer neurri hartu erabakitzea estatu kide bakoitzaren esku utzi behar dela, subsidiarotasun-printzipioaren arabera. Hala ere, estatu kideek neurrien hiru kategorietako gutxienez bat hautatu behar dute, eta erabaki kontserbazio bereziko eremu batean neurri-kategoria bakarra aplikatzen duten, edo bat baino gehiago, betiere kontuan hartuta zer kontserbazio-arazo dituzten Habitategi buruzko Zuzendaria I. eta II. eranskinetan zerrendatutako Batasunaren intereseko habitat eta espezie motek, horien ondorio izan baita lekua Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea.

Idatzitako dokumentua funtsean bat dator erreferentziazko argitalpen nazionalak eta nazioartekoetan bildutako jarraibide metodologikoekin, eta, bereziki, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak eta autonomia-erkidegoek batera egindako lanekin. EBko beste estatu kideetan egiten ari diren lanak aztertu dira, bai eta Europako Batzordeak sustatuta Natura 2000ko lekuen plangintza eta izendapenak egiten ari diren bileren aktak ere. Horregatik, ondorioztatzen da dokumentuaren edukia Habitategi buruzko Zuzendaria eskatutako baldintzak eta Europako Batzordeak egindako gomendioak betetzen dituela.

Nolanahi ere, gure eskumen-ereduak foru-aldundietara birbidaltzen duenez kudeaketa-neurri administratiboen zehaztapena, era berean haiei dagokie akordioak egitea eragile ekonomiko eta sozial egokiekin, hala egokituz gero, edo, bestela esanda, bidezko kontratu-neurriak hartzea, alegazioak dioenaren ildotik.

Iñaki Madinabeitiak askotan adierazten du dokumentuak nekazaritza-, basogintza- eta abeltzaintza-sektorearen aurka eta interes “kontserbazionisten eta urbanisten” alde lerratutako interpretazioak egiten dituela, eta, oro har, “idazkera orekatuagoa eta historiaren nahiz ikerketa serioen arabera” egitea proposatzen du.

Harrera ona izan du alegazio horrek, dokumentua berrorekatzeko komenigarritasunaren ildoan egindako ekarpenzat jo baita, eta hala jokatu da, eta azken bertsioan egindako oharra neurri handian jaso direla iritzi.

2.2.4 Mugaketa, konektibitate ekologikoa eta aplikaziorako esparru geografikoa

UAGAk eta Iñaki Madinabeitiak eskatzen dute zehatzago kuantifikatzeko lur pribatuek kontserbazio bereziko eremuan duten parte-hartzea.

Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuari dagokionez, guztiaren % 59,9 publikoa da, eta % 40,1 pribatua, baso-inbentarioaren arabera.

UAGaren ustez, harrigarria da arriskuan dauden flora aleak biltzeko debekua kontserbazio bereziko eremuaren barrualdera mugatzea.

Alegatutako erregulazioa dokumentuaren aplikazio-esparrura mugatzen da, baztertu gabe beste arau batzuek lurralde-esparru zabalagoetara hedatu ahal izatea.

Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartek eskatu du lursailak identifikatzeko modu erraz bat ezartzeko, baso-jabeek eta beste baliabide batzuen erabiltzaileek neurtu ahal izan dezaten beren lursailen gaineko eragin-maila.

Lursailak guztiz egokiro daude identifikatuta, eta habitaten kartografiak erregulazioak non diren aplikagarriak jakiteko aukera ematen du.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak esaten du kontserbazio bereziko eremuaren mugetan C.E. GOMISTEGUI-ren 4.790 zenbakiko ustategia dagoela, eta egun hedapen bat aurkeztu duela, eragina izango lukeena Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuko lurretan, eta Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak baduela horren berri, ingurumen-eraginari buruzko deklarazioa izapidetzen ari delako.

Aridos Aloñak dio 2006an akordio bat sinatu zutela Biodibertsitate Zuzendaritzak, Energiaren eta Meategien Zuzendaritzak eta Aridos Aloñak (aurkeztu duena), eta enpresak, akordio horren bidez, uko egin ziela GI-3591 errepedearen eta egungo ustategi-mugaren arteko lekuan izan zitzakeen ustiapen-eskubideei eskatutako zabalkundea onartzearen truke. Horregatik, eskatzen du, akordio horri jarraikiz, kontserbazio bereziko eremurako proposatutako

mugaketa aldatzeko, harrobia handitzeko eskatu den lursaila baztertuta; izan ere, egun, azken horretan ingurumen-eraginari buruzko ebaluazioa egiten ari da.

Hain zuzen ere, egun, Gomistegiko harrobiaren hedapenaren ingurumen-ebaluazioa izapidetzen ari da, eta prozedura horren barruan erabakiko da hedapen-proiektua bateragarria den ala ez inguruneke balioekin, eta betetzen dituen ala ez Habitategi buruzko Zuzentzaren 6.3 artikuluan jasotako baldintzak, kontserbazio bereziko eremuaren mugaketaren barruan edo mugaketatik kanpo egonda zein ez, hori ez baita garrantzitsuena aplikatzeko den araudiak dioenaren arabera.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak esaten du zehaztu behar dela erregulazioen norainoko geografikoa, eta xedatu kontserbazio-neurriak kontserbazio bereziko eremuan baino ez direla aplikagarriak, eta hori kasuan kasuko funtsezko elementuaren esparruaren barruan; gainera, esaten du behar bezain zorrotz zehaztu behar dela funtsezko elementu bakoitzaren eta 1., 5., 7. eta 11. erregulazioen esparru geografikoa.

Asparreneko Udalak eta Ilarduiako Administrazio Batzordeak galdetu dute ea 98. erregulazioa soilik izango den aplikagarria kontserbazio bereziko eremuaren mugen barruan, edo bai eta kanpoan ere, bost kilometroko erradioak kontserbazio bereziko eremuaren mugak gaindituz gero.

Dokumentuak guztiz argi zehazten du zein diren funtsezko elementuak edo kontserbatu beharrekoak kontserbazio bereziko eremuan. Dokumentuak inolako anbigutasunik gabe mugatzen du kudeaketa-esparru geografikoa, eta, horrenbestez, zein den erregulazioen norainoko geografikoa eta zer eremutan aplikatu behar diren.

Funtsezko elementu guztiak habitat naturalak edo basoko flora- eta fauna-espezieak dira. Habitategi buruzko Zuzentzauak honela definitzen du "habitat naturala": "... ezaugarri geografiko, abiotiko eta biotikoek bereizitako inguru lehertar edo urtarra, guztiz naturala izan zein erdi-naturala". Definizio hau ematen du "espezie baten habitataz": "Espeziea bere ziklo biologikoaren fase batean bizi den eta faktore abiotiko eta biotiko espezifikoek baldintzatuta dagoen ingurunea". Definizio hau ematen du "kontserbazio bereziko eremua": "Estatu kideek, arauzko, administrazio eta/edo kontratu egintza baten bidez, Batasunaren intereseko toki izendatutako tokia; bertan aplikatuko dira kontserbatzeko beharrezko neurriak, habitat naturalen eta/edo tokian egongo diren espezieen populazioen kontserbazio egokia bermatzeko edo lehengoratzeko". Habitategi buruzko Zuzentzaren arabera, habitat baten kontserbazio-egoera lortzeko berekin ekar dezake lekuaren barruko nahiz bere banaketa naturalaren eremuaren barruko egungo banaketa mantentzea edo hedatzea, bere egitura, funtzioak eta espezie tipikoak mantentzeaz edo hobetzeaz gain. Hortaz, begi-bistakoa da Aizkorri-Aratzen funtsezko elementu izendatutako habitat bakoitzaren kudeaketa-esparrua bat datorrela habitat horrek lekuaren barruan duen banaketa naturalaren eremuarekin. Eta jarduketa-lekuak jarduketan dokumentu egokian zehaztuko dira, hori Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundien eskumena izaki, helburuen arabera, eta kudeaketa dinamiko eta moldatzailearen esparruaren barruan, 1/2014 Legegintzako Dekretuan xedatutako eskumen-araubidea kontuan hartuta.

Era berean eta bistan denez, funtsezko elementu diren espezieei eragiten dieten erregulazioen esparru geografikoa lekuan duten banaketa naturalaren eremua da. Hedadura handiko eremuak hartzen dituzten animalia-espezieen kasuan, kontserbazio bereziko eremuak bat datoz espezie horien banaketa naturaleko eremuaren barruan espezieak bizitzeko eta ugaltzeko funtsezko elementu fisikoak edo biologikoak dituzten kokapen zehatzekin. Bi kasuetan (Aizkorri-Aratzen gertatzen den egoera, funtsezko elementu batzuei dagokienez), EAEn egungo kontserbazio-egoera desegokia da, eta kontserbazio bereziko eremuen barruan habitat naturalak berrezarri behar dira, populazio egonkorrak finkatzea ahalbidetzeko, espezie bakoitzaren banaketa-eremuaren barruan eta toki bakoitzean.

Hortaz, ulertzen da ez dela beharrezkoa funtsezko elementu bakoitzaren esparruen mugaketa gehitzea, alegazioaren egileak proposatzen duen bezala, eta ez dela batere konplexua jakitea erregulazio jakin bat aplikagarria den ala ez lurralde jakin batean; izan ere, alegazioaren egileak ondo adierazi bezala, funtsezko elementuak bai habitat jakin bai espezie jakin batzuen presentziaren ondorioz zehazten dira.

Nolanahi ere, adierazten da 5., 7. eta 11. erregulazioak dokumentutik kendu direla Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta. Era berean, eta aipatu ituntze-prozesu horretan oinarrituta, 1. erregulazioa berriz idatzi da; honela:

1. Baso-baliabideak antolatzeke planek eta mendiak antolatzeke proiektuek edo onura publikoko mendieta plan dasokratikoek tokiko basoak errespetatzeko eta, hala egokituz gero, lehengoratzeko irizpideari jarraituko diote.

98. erregulazioaren kasu zehatzean, horri buruzko galdera egin baitu Asparreneko Udalak, esan behar da aipatzen duen segurtasun-erradioa lehentasunezkoztat jotako aterpeen eta arriskuan dauden kiroptero-espeziak ugaltzeko guneen eta/edo kolonien ingurukoa dela eta kontserbazio bereziko eremuaren barruan izango dela aplikagarria. Nolanahi ere, adierazten da 98. erregulazioa bestela idatzi dela Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, eta orain honela gelditu dela 48. zenbakiarekin:

48. Fitosanitarioen eta/edo pestiziden erabiltzaileak prestatzeko, informazioz hornitzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak sustatuko ditu organo kudeatzaileak, gai horien erabilera arduratsua eta kiroptero-populazioekiko bateragarria bermatzeko.

Hori guztia, baztertu gabe jarduketa batzuk kontserbazio bereziko eremutik kanpo egitea eta funtsezko elementuetan duten eragina ebaluatu behar izatea. Izan ere, eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak ere esaten duen bezala, "Natura 2000 eremuen kudeaketa. Habitategi buruzko 92/43/EEE Zuzentarauaren 6. artikuluko xedapenak" gidaliburuak honako hau esaten du: "eragin hautemangarria izateko aukera, babestutako eremu baten barruan kokatutako planei edo proiektuei buruzkoa ez ezik, leku batetik kanpoko planei edo proiektuei buruzkoa ere izan daiteke. Horregatik, garrantzitsua da estatu kideek bide ematea, beren legeetan bezala beren jardunbidean ere, 6. artikuluko 3. zenbakiko neurriak aplikatzeko Natura 2000ko eremu batetik kanpoko jarduera batek egiten dituen presioei, jarduera horrek eremuan eragin hautemangarria izanez gero".

Arabako Foru Aldundiak dio babes-eremu periferikoak ez daudela babestutako eremu naturalean, eta 2.1 ataletik honako lerrokada hau kentzea proposatzen du: Aizkorri-Arazko babestutako eremu naturaleko Babes Eremu Periferikoa (3.180,5 ha) bat dator Parke Naturalerako ezarritakoarekin, eta hori Baliabide Naturalak Antolatzeke Planean eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeke Planean oro har ezarritako jarraibideen, arauketen eta jarduketan mende egongo da.

UAGAk esaten du babes-eremu periferiko bat ezartzen dela, baina dokumentuan ez da inon ezer aipatzen eremu horretan aplikatu beharreko araudiari buruz, eta, beraz, kendu egin beharko litzateke. Aurreko horren ordez, proposatzen du partzela-kontzentrazioko partzelen gainean ezarritako behe-larreak kentzea, bai eta ukuiluak eta nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioak kentzea ere, hala nola honako koordinatu hauen inguruan kokatutako

nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioak: UTM 30N ETRS89 X: 558896.041 7 Y: 4747662.5326 Z: 61 0 m eta horien hegoaldean dauden partzelak.

Iñaki Madinabeitiak ere azalpenak eskatu ditu babes-eremu periferikoan aplikatu beharreko erregulazioei eta jarduketei buruz.

Zentzuzkoa da paragrafoa kentzeko alegazioa onartzea, Parke Naturalari dagozkion informazioa eta erregulazioa jasotzen dituelako, eta ez duelako ezer espezifikorik gehitzen kontserbazio bereziko eremuaren antolaketaz; aitzitik, beste alegazioetan ikusten den nahasketa eragiten du.

Asparreneko Udalak galdetu du zergatik marrazten duten eten bat kontserbazio bereziko eremuaren mugek Malkorra ibaia sartzeari galarazteko; izan ere, ibaia bere habitatekin sartzeari izango zatekeen logikoena. Bai udal horrek bai Ilarduiako Administrazio Batzordeak galdetu dute zergatik sartu diren landaketak Ilarduian, ez badute balio naturalik; izan ere, inguru berean eta antzeko egoeran, muga oso irregularra da beste landaketa batzuk baztertzeaz den bezainbatean.

Natura Parkearen mugak erabaki dira. Ibaia kasuan, kontserbazio bereziko eremua "Barrundia Ibaia / Río Barrundia" ES2110017 kontserbazio bereziko eremuraino iristen da, eta hori urriaren 16ko 215/2012 Dekretuak deklaraturik dago. Sartu izan balitz, ibai bera kontserbazio bereziko bi eremuren parte izango zatekeen.

Ilarduiako aldeari dagokionez, mugaketa Parke Naturalaren mugaketaren antzekoa da. Baliabide Naturalak Antolatzearen Planaren agertzen den deskripzioari erreparatzen badiogu, inguru horretan muga onura publikoko mendi batzuen kanpoaldeko mugatik igarotzen da.

2.2.5 Erregulazio orokorrak

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak dokumentuan erregulazio moduan honako hauek sartzeko eskatzen du:

1. artikulua. Erabilera bateragarriak

1. Erabilera bateragarritzat jotzen dira behar bezala egin eta Kontserbazio Bereziko Eremuen kontserbazio-helburuetan eragin neutroa edo positiboa dutenak. Agiri honetan jaso den araudiak edo hartatik ondorioztatu daitekeenak ez die erabilera bateragarriei aplikagarri den sektore-arautegian jaso ez den muga gehigarriarik jarriko.

2. Erabilera bateragarri izango dira hauek:

2.1. Nekazaritzako eta abelazkuntzako erabilerak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan zenbait baldintza aplikatzeari buruzko martxoaren 2ko 79/2010 Dekretuaren I. Eranskinean ezarritako nekazaritza- eta ingurumen-baldintza onetan egiten badira.

2.2. Basogintzako erabilerak, zurgai, egurketa, larre, luberritze, basa fruitu, onddo eta landare eta lore aprobetxamenduak barne, betiere baso-baliabideen antolamenduko planen eta mendien antolamendurako planen arabera egiten badira, basogintzako kudeaketa jasagarrien irizpideei jarraituz, edo dagokien foru aldundiek onetsitako larre-planen.

2.3. Ehiza, dagokien foru aldundiek onetsitako ehiza-antolamenduko planak betez.

3. Erabilera horietan edo erabilera horiek egiteko moduan aldaketak egiteko, borondatezko akordioa lortu beharko da nekazariekin, abeltzainekin, baso-jabeekin edo aipatu planak egiteko ahalmena duten erakundeekin.

2. artikulua. Eskubideak mugatzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bateginaren 23.3. artikulua arabera, eta nahitaezko desjabebezearen legerian ezarritakoa kontuan hartuta, jabetza pribatuaren edo ondare-eskubide eta ondare-interes legitimoen banakako gabetzeak, edozein delarik ere gauzatzeko modua, berekin dakar, titularrentzat, dagokien kalte-ordaina lortzeko eskubidea.

3. artikulua. Eskumen-araubidea.

Agiri honek ezartzen duen babes-araubidea bateragarria izango da autonomia-administrazioaren, Estatuko administrazioaren, lurralde historikoetako foru administrazioen eta toki-erakundeen eskudantziekin, eta eskumena duten sektore-gaietan haiek gauzatuko direla bermatuko da. Era berean, batzar, ermandade, partzuergo edo mankomunitateek beren mendi-aprobetxamenduen antolaketan eta kudeaketan dituzten eskudantziekin ere bateragarri izango da, eta haiek gauzatuko direla bermatuko da.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, 7.1 atala gehitzea erabaki da, Araubide Orokorra, eta, bertan, alegazioaren egileak proposatutako araubidea sartzea, baina alderdi batzuetan aldatuta; horregatik, alegazioa partzialki onartu da.

Hartara, dokumentuan 7.1 Araubide Orokorra sartzen da, honako eduki honekin:

7.1. ARAUBIDE OROKORRA

Erabilera bateragarritzat jotzen dira behar bezala egin eta Kontserbazio Bereziko Eremuen kontserbazio-helburuetan eragin neutroa edo positiboa dutenak. Horrelakotzat honako hauek har daitezke:

- 1. Nekazaritzako eta abelazkuntzako erabilerak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan zenbait baldintza aplikatzeari buruzko martxoaren 2ko 79/2010 Dekretuaren I. Eranskinean ezarritako nekazaritza- eta ingurumen-baldintza onetan egiten badira.*
- 2. Basogintzako erabilerak, zurgai, egurketa, larre, luberritze, basa fruitu, onddo eta landare eta lore aprobetxamenduak barne, betiere baso-baliabideen antolamenduko planen eta mendien antolamendurako planen arabera egiten badira, basogintzako kudeaketa jasangarrien irizpideei jarraituz, edo dagokien foru aldundiek onetsitako larre-planei.*
- 3. Ehiza, dagokien foru aldundiek onetsitako ehiza-antolamenduko planak betez.*

Foru-aldundiek aldaketak egingo dituzte erabilera horietan edo erabilerak egiteko moduan, eta borondatezko akordioa lortzen saiatuko da honako hauekin: nekazariak, abeltzainak, baso-kudeatzaileak edo ehiza-eskubideen titullarrak, bai eta aipatu planak egiteko ahalmena duten erakundeak ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren arabera, dokumentu hau aplikatuta ondare-eskubide eta -interesak kentzeak, hori egiteko modua edozein izanda ere, bidezko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea ekarriko du berekin, azterketa ekonomiko egokiak egin ondoren.

Agiri honek ezartzen duen babes-araubidea bateragarria izango da autonomia-administrazioaren, Estatuko administrazioaren, lurralde historikoetako foru administrazioen eta toki-erakundeen eskudantziekin, eta eskumena duten sektore-gaietan haiek gauzatuko direla bermatuko da. Era berean, zuzenbide historikoko toki-erakundeek mendiak antolatzeke, administrazteke eta kudeatzeko dituzten eskumenekin bateragarria izango da, zehazki, Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrak dituenekin, eta eskumen horiek baliatzea bermatuko du.

Nolanahi ere, esan behar da ezen, 2. puntuari dagokionez, Gipuzkoako Mendien Foru Arauak (urriaren 20ko 7/2006), 99. artikuluan, honako hau esaten duela: *"Baso-antolaketa proiektuak nahiz kudeaketako plan teknikoak gai horietan adituak diren baso-teknikariek idatzi beharko dituzte eta naturagune babestuen kasuan baliabide naturalen antolaketa-planek eta erabilera- eta kudeaketa-plan gidariek xedatutakora egokitu beharko dute. Era berean babestutako flora- eta fauna-espezieak eta paisaia babesteko irizpideak eta arauak bete beharko dituzte."*

Era berean, esaten da ezen, *eskubideak* mugatzeari buruzko paragrafoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginean aurreikusita dagoela lege horren aplikazioan gertatutako errenta-galeratik konpentsatzeko araubide orokorra, eta, horrenbestez, Aizkorri-Aratzen ere aplikagarria dela. Nolanahi ere, gogorarazi behar da konpentsazio ekonomikoak ezin direla oro har ezarri, eta helburuen eta erregulazioen dokumentuko mugatze zehatzei lotuta egon behar dutela.

Gainera, esan behar da errenta-galerari lotutako konpentsazioen aplikazioa babestutako eremu naturalaren kudeaketaren parte dela, eta foru-organoen eskumena dela. Hortaz, Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundiei dagokie konpentsazioak erabaki eta zehaztea.

Eskumen-araubideari lotutako azken paragrafoari dagokionez, zehaztu da zer den aplikagarria txosten honetako aurreko alegazio batzuei erantzutean, eta teknika juridikoaren ikuspuntutik desegokia izan arren goragoko mailako aplikazio-arauetan xedatutako kontuak errepikatzea, oraingo honetan baliteke komenigarria izatea, horri dagokionez jasotako alegazioak kontuan hartuta.

Alde horretatik, argi dago foru-organoei dagokiela babestutako natura-eremuak kudeatzeko eskumena. Hortaz, foru-aldundiei dagokie erabakitzea nola garatuko diren kontserbazio bereziko eremua kudeatzen duen organoaren eta toki-administrazioen eta/edo beste erakunde interesdun batzuen arteko harremanak, beren lurraldean indarrean dagoen araudi aplikagarriaren arabera.

Juan Jose Murgiondok informazioa eskatu du bere lurrek kontserbazio bereziko eremuaren izendapenaren ondorioz izango dituzten neurri mugatzaileei buruz. Horretarako, bere partzelen katastro-erreferentziak aurkeztu ditu, bai eta lurren kokapenaren zerrenda ere, SIGPACetik aterata (Nekazaritza Lursailak Identifikatzeko Informazio Geografikoaren Sistema).

Javier Villar-ek esan du dokumentua idaztean partaidetza ez dela egiazkoa izan, dokumentua orokorra dela, ez dela zehatza, eta mota guztietako murrizketak ezartzen dituela konpentsaziorik gabe; eta, horregatik, eskatzen du berari zuzenean eta ofizialki jakinarazteko zein diren kargak, afekzioak eta ondoriozko konpentsazioak, bere finken afekzioak eta balio-galerak inskribatzeko Jabetzaren Erregistroan, eta haiei dagokien konpentsazioa jasotzeko.

Uste du ezen, hala ez izatera, ez duela afekziorik, eta bere jarduerarekin jarraitu ahal izango duela orain arte bezala.

Hizpide dugunaren moduko antolaketa- eta arauketa-tresna bat onartzeko prozesuak, tresna hori xedapen orokorra izaki, xede du, jendaurrean jartzearen eta parte hartzeko eskubidea antolatzearen bidez, herritarrek eta beroriek ordezkatzeko dituzten erakundeek aipatu antolaketa- eta arauketa-proposamenaz egin ditzaketen ekarpenak jasotzea. Horregatik, ez da egokia orain alegazioaren egileek eskatutakoaren ildoko irizpenik ematea; izan ere, egia bada ere edozein herritarren eskubidea dela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 35. g) artikuluan xedatua (azaroaren 26ko 30/1992; indarrean egona 2016ko urriaren 2ra arte), hau da, *"argibideak eta aholkuak lor ditzakete, hain zuzen ere, indarrean dauden xedapenen arabera, proiektuak,*

jarduna edo eskabideak egiterakoan zein baldintza juridiko eta tekniko bete behar dituzten jakiteko”, eta, era berean, egia bada ere jarduera baten edo egin asmo duen proiektu baten ondorioak zein diren jakiteko administrazio eskudunari eskatutako edozein informazio inolako oztoporik gabe emango zaiola, hori bezain egia da ezen, hizpide dugun kasuan, ez dela egokia horretarako alegazioen prozedura, horrekin esan nahirik jarduerarekin jarraitu ahal izango duela orain arte egin bezala, baina kasu bakoitzean aplikagarria den erregulazioaren mende, horrelakoan artean egongo direlarik orain izapidetzen direnak, jendaurreko informaziorako jarri den dekretuaren behin betiko onarpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren eraginkorra izaten hasiz geroztik.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egindako ituntze-prozesuan, adostasunez erabaki da jarraipen-programaren berrikuspenak sei urtean behin egitea.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak eskatu du dokumentu honek Aizkorri-Arazko Baliabide Naturalak Antolatzeko Planerako eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planerako denbora-esparru bera izateko.

Egokitzen da dokumentu honen berrikuspenerako denbora-esparru bat ezarri behar delako adierazpena, baina ez da indarraldiko eperik jartzen dokumentu hau aplikatzeko, eta, horregatik, dokumentuaren 1. puntuan azken paragrafo bat gehitzen da honela idatzita:

“Helburu eta erregulazio horiek hurrengo urteetarako bide-orria zehazten dute, baina 8. zenbakian dokumentuaren jarraipen-programa jasotzen da, sei urteko alditan gauzatuko dena.”

ENBAk proposatu du Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuaren izendapenerako jarraipen-programa, kontserbaziorako arauak eta informazio ekologikoari nahiz kontserbazio-helburuei buruzko dokumentua kentzea eta guztiz berraztertzea eremuarekin zerikusia duten eragileekin itunduta eta lankidetzan arituta, lehen sektoreko jarduera sustatzeko eta, horrenbestez, kontserbazioa bermatzeko; gainera, eskatu du bateragarritzat jotzeko nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerak, baldin eta betetzen badituzte, alde batetik, nekazaritza-baldintzazkotasuna, eta, bestetik, mendiak antolatzen diren proiektuen eta baso-baliabideak antolatzen diren planen arabera egiten diren baso-erabilerak, bai eta ehiza antolatzen diren planak betetzen dituzten ehiza-jarduerak ere.

Ildo beretik, Baskeguren Elkarteak esan du Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeak bateragarria izan behar duela produkzio-jardura tradizionalak egitearekin. Honako testu hau sartzea proposatzen du: “Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeak berekin ekartzen du bermatzea bateratu egiten direla izendapen hori eta inguruko jardura ekonomiko tradizionalen errespetua (basogintza, abeltzaintza, nekazaritza...), jardura horiek geroan ere egin ahal izateko”. 1.0 helburu operatiboa sartzeko ere eskatzen du: “Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea izendapen horren eragin-eremuko baso-jardueraren errespetuarekin bateratzea bermatuko da, aipatu jardura hori egin ahal izateko.”

Biodibertsitatearen kontserbazioa da Natura 2000 Sareko eremuen izendapenaren jatorria eta helburu nagusia, Habitategi buruzko Zuzentaraua aplikatuta. Hortaz, Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko dokumentuen helburua eta edukiak Natura 2000 Sareko eremuetarako betebeharretan kokatuta daude, eta betebehar horiek honako hauetan daude zehaztuta: Habitategi buruzko Europako Zuzentzaraua; Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legearen (abenduaren 13ko 42/2007); eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategia onartzen duen Legegintzako Dekretuan (apirilaren 15eko 1/2014).

Estatu kideak, Batzordearen “*Habitategi buruzko Zuzentzarauaren 6. artikuluko xedapenak*” dokumentuaren arabera, behartuta daude erregelamendu-, administrazio- eta kontratu-neurri egokiak aplikatzera kontserbazio bereziko eremuetan. Neurri horiek eskaera sozioekonomikoak, sozialak eta kulturalak kontuan hartu behar dituzte, bai eta eskualde- eta toki-berezitasunak ere, 2. artikuluko 3. zenbakiaren arabera. Honako hauek egin behar dituzte: a) lekuetan dauden I. eranskineko habitaten eta II. eranskineko espezieen eskakizun ekologikoei erantzutea, eta b) Zuzentzarauaren helburu orokorra betetzea, hau da, kontserbazio-egoera onean mantentzea edo berriz jartzea Batasunaren intereseko fauna- eta flora-espezieak eta habitat naturalak. (Ikus 21. orrialdeko laukia aipatu dokumentuaren gaztelaniazko bertsioan).

Jardun eraginkor eta onuragarriari lotutako neurrien artean, nekazaritza- eta ingurumen-neurriak edo baso- eta ingurumen-neurriak eredu dira ikusteko nola har daitezkeen kontuan baldintza sozioekonomikoak 2. artikuluko 3. zenbakiaren arabera:

1. Nekazaritza- eta ingurumen-neurriak: gizakiek sortutako I. eranskineko mota batzuetako habitat erdinaturalen kasuan (belardiak, larreak eta abar) eta berorietan dauden II. eranskineko espezieen kasuan, landa-garapenari buruzko erregelamendu berriaren esparruan (9) nekazariarekin egindako akordioak, gehienetan, kontratu-neurriak izango dira, nahikoak habitat eta espezie moten «kontserbazio-egoera ona» mantentzeko.
2. Baso- eta ingurumen-neurriak: neurri egoki bat baso-enpresa baten ekimena izan daiteke egiaztapen-araubide jakin baten barruan, betiere ekimen horrek «kontserbazio-egoera ona» mantentzea bermatuz gero. (Ikus 20. orrialdeko laukia aipatu dokumentuaren gaztelaniazko bertsioan).

Horrek guztiak esan nahi du badaudela mekanismoak jarduera tradizionalak kontserbazio-helburuekin bateratzeko, baina horrek ez du baztertzen, alde batetik, kasu jakin batzuetan kontserbazio bereziko eremuetan prebentzio-neurri iraunkorrak hartu ahal izatea, iraganeko, oraingo edo geroako jardueraz edo gertaerez den bezainbatean, baldin eta eragin badezakete eremuaren izendapena egiteko arrazoi izandako habitat naturalak hondatzea edo espezieak aldatzea, eta, bestetik, lehendik dauden jardueretan aplikatzea, hala egokituz gero, 6. artikuluko 1. zenbakian xedatutako premiazko kontserbazio-neurriak, eta, horrenbestez, jardueraren eragin kaltegarria etetea, dela jarduera kenduz, dela zuzenketa-, kontratu- edo konpentsazio-neurriak hartuz, hala nola kalte-ordain ekonomikoa erabiliz.

Testuinguru horretan zehazten da zer eragin izan dezaketen erabilerek eta beroriek antolatzen dituzten plangintza sektorialeko dokumentuek habitaten eta espezieen kontserbazio-egoeran. Eta plan sektorial horien betebeharra da kontserbazio bereziko eremu bakoitzerako ezartzen diren kontserbazio-helburuak betetzera egokitzea.

2.2.6 Basogintza

Baskegur Elkartek, Gipuzkoako Baso Elkartek eta EHNEk eskatzen dute kentzeko edozein administrazioren baso-politikei buruzko aipamenak, balitekeelako politika horiek aldatzea, eta horrek berekin ekartzen du beste une batzuetan izandako bestelako politikak deskalifikatzea.

Baskegur Elkartek eta Gipuzkoako Baso Elkartek esaten dute funsgabea, desegokia, sinplista, lerratia eta begirunerik gabekoa dela 48. orrialdean jabeen elkarten jarduketaz egiten den aipamena, eta kentzeko eskatzen dute. Aipamenak hau dio: *“Landa-garapeneko aurreko programan, hondar-eragina izan du biodibertsitaterako garrantzi handiena duten basogintza-neurrien betearazpen-mailak. Baso-jabeek kontuan hartu ohi dituzte baso-jabeen elkarteko teknikarien gomendioak, eta, horregatik, aholkularitza-zerbitzuen ikuspuntua aldatzeak bultzada handia eman diezaioke neurri horien eskaerari.”*

Eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan oinarrituta, bai eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta ere, pagadien eta hariztien kontserbazio-egoerari buruzko baldintzetako 9., 12., 13. eta 14. paragrafoak kentzea erabaki da, eta, era berean, horri dagokionez egindako alegazioak onartu dira:

Bestalde, 14. paragrafoari dagokionez, plana egiteko lanetan egiaztatutako gertaera aipagarria jaso nahi du dokumentuak, eta jabe askok baso-jabeen elkartera jotzen dutenez gero aholkua lortzeko jabetzan dituztenen basokudeaketari buruz, uste du oso interesgarria izango litzatekeela aholkularitza-zerbitzu hori baliatzea horrelako neurriak sustatzen ahalegintzeko; izan ere, landa-garapenerako, laguntza zuzenetarako eta laguntza horizontaletarako Batasuneko erregelamenduek berek ere gomendio hori egiten dute. Argi utzi nahi da dokumentuak inoiz ere ez duela kausa-efektu erlaziorik ezartzen baso-jabeen elkartearen jardunaren eta laguntza horien eskari apalaren artean.

Alegazioaren egileak dioen bezala, baliteke Landa Garapen Jasangarrirako Programa gutxi zabaldu izana izatea programako baso-neurrien betearazpen-ehuneko txikiaren arrazoa, programa hori izanik biodibertsitatean eragin onuragarri handiena duena, eta, era berean, baliteke neurri horiek ikuspegi akastuna izatea, eta horrek berekin ekartzea laguntzen onarpen txikia, zitezkeen onuradunek laguntzen berri izanda ere. Horregatik, alegazioaren egileak proposatu bezala, "biodibertsitaterako garrantzi handiena duten basogintza-neurrien" hondar-eraginaren arrazoiak aztertuko dira Aizkorri-Arazko Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean erantsi beharreko jarraibideen eta

kudeaketa-neurrien dokumentuan. Nolanahi ere, alegazioa onartu eta alegatutako paragrafoa kendu egiten da dokumentutik.

Oñatiko Udalak, lehenago, 2014ko abenduaren 18an, partaidetza-prozesuaren ondoren egin zuen bezala, eskatu du 17. erregulazioa zehazteko, hau da, tokiko ondare genetikoa babestu eta zaintzeari buruzkoa, kontserbazio bereziko eremuan aukeratutako haziak erabiliz, erregulazioa esparru horretara eta inguruetara mugatu ez dadin.

Partaidetza-prozesuaren ondoren 2015eko urtarrilaren 8an Seguran egindako itzultze-saioan, azaldu zen nola gehitu ziren dokumentuan prozesuan zehar egindako ekarpenak. Ekarpeneak jaso ez ziren salbuespenezko kasuei dagokienez, ez jasotzeko arrazoiak azaldu ziren, aurretik hartutako konpromisoa kontuan izanda, eta idatzizko alegazioak Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren Legean (abenduaren 22ko 8/2003) araututako jendaurreko informazio-fasean aurkeztea gomendatu zen, hori nola egin azaltzeaz gain.

Aurkeztutako alegazioaren kasuan, esan behar da bere garaian egokitzen jo zela Oñatiko Udalak egindako proposamena, eta hala jaso zela Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko informazio ekologikoari, kontserbazio-helburuei, kontserbaziorako arauak eta jarraipen-programari buruzko dokumentuan.

Hala, bada, alegatutako erregulazioa idatzita zegoen jendaurrean jarritako dokumentuan, 6. erregulazio moduan eta alegazioaren egileak adierazitakoaren arabera:

*6. Tokiko ondare genetikoa babestu eta zaintzeko, **nagusiki** kontserbazio bereziko eremuan edo berorren ingurune hurbilean aukeratutako hazietatik lortutako landareak erabiliko dira lehengoratzeko proiektuetan. Inola ere ez da onartuko hazirik edo hazietatik datorren landararik erabiltzea toki-jatorriaren bermea izan gabe.*

Nolanahi ere, adierazten da 6. erregulazioa aldatu dela dokumentuan Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, eta honela idatzita geratu dela:

*4. **Quercus petraea** haritzaren ondare genetikoa babestu eta zaintzeko, kontserbazio bereziko eremuetan aukeratu diren edo jatorriko eskualde berekoak diren hazietatik lortutako landareak erabiliko dira nagusiki lehengoratzeko proiektuetan.*

Baskegur Elkartek dio ezein helburu espezifiko edo erregulaziorik ez duela inolako ekimenik proposatzen lurren jabeentzat eta berorien kudeaketaz arduratzen direnentzat, bai eta kasuan kasuko aprobetxamenduak egiten dituzten eragileentzat ere, eta gehitzen du ez duela justifikaziorik ez proposatzeak inolako jarduketarik edo helburu operatiborik lurraldea kudeatzeko eta kontserbatzeko eskubidea eta ardura dituztenei begira, lortu egin baitute eremuak lekua izatea Natura 2000 Sarean, eta etorkizunean eremua kudeatzen jarraitu beharko dutelako; horregatik, 1.4 helburu operatiboa gehitzeko eskatu du, honela idatzita: “lurren titularren eta lurrak kudeatzeaz arduratzen direnen artean, bai eta kasuan kasuko aprobetxamenduak egiten dituzten eragileen artean ere, jarduera ekonomiko tradizionalak sustatzea, basoko produkzio-jarduera adibidez, biodibertsitatearen kontserbazioa hobetu egiten baitu”, eta erregulazio hau gehitzea ere bai: “Jarduera ekonomiko tradizionalak sustatzea, hala nola basoko jarduera produktiboa, biodibertsitatearen kontserbazioa hobetzen dutelako”; eta kanpo-efektu onuragarria duten baso-jardunbideen aldeko akordio boluntarioak sustatzeko erregulazioak gehitzea.

Baso-jarduerak sustatzeari dagokionez, esan behar da ezen jarraibideen eta kudeaketa-neurrien gaineko dokumentua, zeina Aizkorri-Arazko Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean gehitu beharko baita, eta foru-organo eskudunak egin eta onartu beharko baitu ezarritako eskumen-ordena betetz, egokia dela berekin jardun onuragarria dakarten nekazaritza- eta ingurumen-neurriak nahiz baso- eta ingurumen-neurriak jasotzeko; era berean, esan behar da neurri horiek kontratu-neurriak eta akordio boluntarioak izan ahal izango direla baso-jarduketak egiteko jabetza partikularreko lurretan, baldin eta beharrezkoak badira habitat naturalen eta basoko espezieen kontserbazio-egoera ona lortzeko. Jabeek 2015-2020ko Landa Garapen Jasangarrirako Programaren barruan administrazio eskudunekin sina ditzaketanak bezala. Jarduketa horiek beharrezko izan dezakete borondatezko ingurumen-konpromisoak hartzea, eta konpentsazio ekonomikoak edo bestelakoak barruan izatea.

Inguruan bizi izan direnek mendeetan zehar egindako jarduera tradizionalak eragina izan dute eremuaren egungo kontserbazio-egoeran, eta inguru batzuetan ezaugarriak oso balio handikoak dira; are gehiago, aukera ematen dute kontserbaziorako interes handiko espezieak izateko, eta espezie horiek nekazaritza- eta baso-habitat erdinatural jakin batzuen mende daude, beroriekin lotura estua izateaz gain. Alde horretatik, egia da Aizkorri-Aratzen gorde nahi den biodibertsitatearen zati bat habitat erdinaturaletan dagoela, eta habitat horiek gizakien eta natura-ingurunearen arteko interakzioaren ondorio direla; gainera, interakzio hori izan gabe, desagertu egingo lirateke. Horregatik, eta kontuan hartuta horrelako inguruneen erabilerari lotutako jarduerak iraganean zer eragin izan duten, planak jardunbide horiek biodibertsitaterako duten balioa aitortzen du, eta zenbait neurri proposatzen ditu, mantentzen dituzten jarduera tradizional bateragarriak sustatu eta mantentzeko. Baina, era berean, egia da ezen, jarduera jakin batzuei dagokienez, jarduera horien eragin kaltegarriaren ebidentzia zientifikoak daudela, bai naturaltasunaren eta osaera espezifikoaren mailan, bai beren funtzionaltasun ekologikoan. Alde horretatik, esan behar da ezen bateragarriak direnak Habitategi buruzko Zuzentarauak, 42/2007 Legeak eta 1/2014 Legegintzako Dekretuak ezarritako kontserbazio-helburuekin, bai eta dokumentuak garatutako helburuei dagokienez ere, ez mugatzeaz gain, neurriak proposatzen direla jarduera horiek sustatzeko eta, are, aipatu helburuekin duten bateragarritasuna hobetzeko ere. Nolanahi ere, esan behar da “jarduera tradizionalak” terminoa anbigua dela, eta horregatik ez da erabiltzen Habitategi buruzko Zuzentzarauan, ez eta transposizio-arauetan ere. Are gehiago, zabalkiro eta gutxi eztabaidatuta “tradizionaltzat” jo daitezkeen jardueretako batzuk ez dira nahitaez bateragarriak kontserbazio-helburuekin tradizionalak izate hutsagatik, baina Batasunaren intereseko habitatak eta espezieak babestutako eremu naturalaren barruan kontserbazio-egoera onean mantentzen edo jartzen laguntzeagatik.

Arabako Foru Aldundiaren ustez, babesteko, zaintzeko edo erosteko egiten diren akordio guztiak borondatezkoak izango dira betiere, eta, horregatik, kudeatzeko jarraibideak direla ulertuko da, eta ez "kontserbaziorako interesekoak diren baso txikien inbentarioan" nahiz, oro har, baso pribatuen kontserbaziorako denean sartutako basoen jabeekin akordio horiek egitera "behartzen" dituzten erregulazioak. Gainera, "kontserbaziorako interesekoak diren baso txikien inbentarioa" aipatzen da, baina ez da argitzen zer inbentario den, zer administrazio egin duen eta zer lege-maila duen. Eta 4. erregulazioa kentzea proposatzen du eta, behar diren aldaketak egin ondoren, kudeaketa-jarraibide moduan sartzea jarraibideen eta kudeaketa-neurrien dokumentuan, zeina Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiek egin behar baitute.

Nolanahi ere, adierazten da 4. erregulazioa dokumentutik kendu dela jada Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak esaten du idazketa-akats bat dagoela 15. erregulazioan, eta, gaztelaniaz, "o" juntagailu hautakaria kentzea proposatzen du.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, bestela idatzi da 15. erregulazioa; honela:

8. Batasunaren intereseko habitat oihantsuetan eragin hautemangarria izan dezaketen baso-antolaketako plan eta proiektuei dagokienez, indarreko araudian aurreikusitako ebaluazio egokia egin beharko litzateke.

Gipuzkoako Baso Elkartek esaten du "Baso Antolaketako Planak" eta "Baso Kudeaketa Jasangarrirako Plan Teknikoak" terminoak erabiltzen direla dokumentuan, eta, biak baso-kudeaketa jasangarrirako antolaketak-planak direnez, terminoak bateratzeko eta bietako bigarrena baino ez erabiltzeko eskatzen du.

Baso-antolaketako planek legedi sektorialean dute iturburua (43/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Mendiei buruzkoa, uztailaren 20ko 21/2015 Legeak ezarritako aldaketak jasotzen dituen testu bategina), lege horrek planen helburuak, edukiak, prozedurak eta zer egoeratan diren beharrezkoak jasotzen baititu. 33.2. artikulua honako hau adierazten du: *"Onura publikoko mendi izendatuek eta babes-mendiek mendiak antolatzekeko proiektua, plan dasokratikoa edo balio bereko beste kudeaketa-tresna bat izan beharko dute."* Eta 33.5 artikulua honako hau: *"Autonomia-erkidegoko organo eskudunak arautuko du zer kasutan izan daitekeen nahitaezkoa kudeaketa-tresna bat izatea babesleak ez diren mendi pribatuetarako eta katalogatu gabeko publikoetarako."*

Baso-kudeaketa jasangarrirako plan teknikoak baso-plangintza egiteko borondatezko tresnak dira, aurrekoak ez bezalakoak, eta jasota daude mendiei buruzko arauetan, bai eta EAEko basoak kontserbatu eta garatzeko laguntza-araubideak xedatzen dituzten foru-dekretuetan ere, zeinak beharrezkoak baitira landa-garapenerako programako laguntza batzuk lortzeko.

Beraz, legedi sektorialak sortutako eta beste prozedura batzuen bidez egin eta onartutako tresna desberdinak dira. Eta halakotzat hartu behar dira dokumentu honetan, esaten baitu baso-kudeaketa jasangarrirako plan tekniko horiek bateragarriak izan behar dutela kontserbazio bereziko eremuen kudeaketarako dokumentuen helburuekin; horrenbestez, horrela soilik eskura ditzakete landa-garapenerako programako laguntza jakin batzuk. Eta, horretarako, kudeaketa-organoak txostena egin behar du.

Gipuzkoako Baso Elkartek eskatu du jarduketa-izaera emateko 5., 7. eta 8. erregulazioei, eta honela idatzita bateratzeko: Hariztiekin 50 hektarea gehiago izan ditzaten, borondatezko akordioak egingo dira hariztien esparru potentzialean dauden espezie aloktonoen baso-landaketen jabeekin, lehentasunezkoak izanik titulartasun publikoa dutenak. Jabe partikularren kasuan, lehentasunezkoak izango dira oihanpean haritzen birsortze naturala agerian duten landaketak.

Gipuzkoako Baso Elkartek esan du 5. erregulazioan "inbaditzaile-izaerako espezieak" kendu eta "espezie inbaditzaileak" jarri behar dela, betiere ulertuta azken horiek espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako Katalogoa arautzen duen Errege Dekretuan sartuta daudenak direla (abuztuaren 2ko 630/2012). Leintz-Gatzagako Udalak ere hori argitzeko eskatu du.

Oñatiko Udalak dio 7., 8., 10. eta 11. erregulazioak zer partzelatan aplikatu behar diren zehaztu behar dela.

Bestalde, esaten du 14. eta 18. erregulazioak 1.3 helburuan kokatzen direla, helburu horren xedea baita egungo basoen dibertsitate espezifikoa eta egiturazko konplexutasuna hobetzea, eta, gainera, erregulazio horiei jarduketaz-izaera ematea proposatzen du, bai eta kudeaketa-organoak erosteko, zaintzeko edo kontserbatzeko akordio iraunkorrak ezartzearen baldintzapean jartzea ere.

Arabako Foru Aldundiak 1.2 helburu operatiboan aipatzen diren harizti-habitatak zehazteko eskatu du. Gainera, uste du 14. eta 18. erregulazioak errepikakorrak direla, eta 14.a kentzeko eskatu du, 18.a orokorragoa delako, eta inplizituki barruan duelako aurrekoa.

Kontu horiek aztertuta eragile ekonomiko eta sozialekiko kontsulta-fasean, eta dagokien trataera zehaztuta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, zerikusia dutelako foru-organoen eskumena diren gaiekin, eta gaiok hartzekodun izaki Aizkorri-Arazko parke naturaleko Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean sartutako kontserbazio bereziko eremurako jarraibideen eta kudeaketa-neurrien dokumentuan kokatzeari dagokionez, II. eranskin honetatik 7., 11., 14. eta 18. erregulazioak kendu dira, eta bestela adierazi 5., 8. eta 10. erregulazioak, “Eskumenen banaketa” dela eta egindako 2.2.2. blokeaz eginiko txostenean jasotzen den bezala.

5. erregulazioa eta 8.aren nahiz 10.aren lehen zatia 5. erregulazioan bateratu dira, eta 8.aren bigarren zatia mantendu egin da, baina 4. erregulazioa bezala:

4. Egur hil gehiago izateko eta koleoptero saproxilikoak hobeki kontserbatzeko, borondatezko akordioak egingo dira, moztutako zuhaitzen egurra lurrian bertan uzteko, harik eta egur hilerako gomendatutako mailara iritsi arte.

5. Onura publikoko mendietako espezie aloktonoen oihaneztatzeetan, baso-antolaketarako plan teknikoak eta berorien betearazpena ingurumen-integrazioa eta -portaera hobetzen ahaleginduko dira lurretan, dibertsitate espezifikoa sustatu egingo da eta, ahal den neurrian, zuhaitz eta zuhaixka autoktonoak errespetatu.

Bestalde, Gipuzkoako Baso Elkartek esan du 10. erregulazioaren helburua aurreko alegazioa onartuz gero lortzen dela, eta, gainera, ez duela zentzurik, berriz egin nahi bada landaketa produktibo bat azken mozketaren ondoren. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak erregulazio hori kentzeko eskatu du.

Gainera, uste du ezen, 21. erregulazioa landaketa produktiboei aplikatzen bazaie, horrek nabarmen garestituko lukeela egurra ateratzea, eta arriskuan jarriko lukeela ziklo berrian landare berriak garatzea. Oñatiko Udala bat dator 21. erregulazioari buruzko iritzi horrekin. Arabako Foru Aldundiak azken fasea aldatzea proposatu du.

Bi erregulazioek helburu bera dute: baso autoktonoen dibertsitate espezifikoa zaintzea, eta titulartasun publikoko baso-landaketek baso potentzialeranzko bilakaera izan dezaten bultzatzea. Alde horretatik, bai 1.2. helburu espezifikoan bai 1.3.ean koka litezke.

Nolanahi ere, adierazten da 10. erregulazioa bestela idatzi dela Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta. Era berean, esaten da ezen, aipatu prozesuan oinarrituta, 21. erregulazioa kendu egin dela.

Gipuzkoako Baso Elkartek 13. erregulazioa aldatzea proposatu du, *Quercus petraea* espezieko hariztien eta pagadien egitura eta naturaltasuna berariaz hobetzeko helburuaren barruan dagoelako, bai eta honako idazkera hau izatea ere: "Pagadietako eta hariztien eragiten dieten eta, gainera, landare-estalkia edo lurraldearen erabilerak aldatzea eragiten duten baso-proiektuak direla eta, txosten loteslea egin beharko du nahitaez haiei buruz lurralde historiko bakoitzean babestutako eremu naturala kudeatzeko eskumena duen organoak."

Ildo beretik, Baskegurrek dio zaila dela jakitea zer baso motari buruzkoak diren 5.-42. erregulazioak, eta hori argitzeko eskatu du.

Arabako Foru Aldundiak 1.3 helburu operatiboan aipatzen diren baso-habitata zehazteko eskatu du.

13. erregulazioari dagokionez, esan behar da bestela adierazi dela Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, eta honela idatzita geratu dela 7. zenbakiarekin:

6. *Pagadi azidofiloei eta Q.petraea espezieko hariztietako eragiten dieten eta, gainera, landare-estalkia edo lurraldearen erabilerak aldatzea eragiten duten baso-proiektuak direla eta, haiei buruz txostena egin beharko du nahitaez lurralde historiko bakoitzean babestutako eremu naturala kudeatzeko eskumena duen organoak.*

Gipuzkoako Baso Elkartek esan du 8. erregulazioa aldatu egin behar dela berehala erantzuteko baso-izurriteei, eta eskatu du kudeaketa-organok dokumentu bat egiteko basogintzari lotutako osasun-arazorik arruntenekin, erregistratu gabeko arazo bat sortzen denean kudeaketa-organoren berariazko baimena izan behar izateko.

Arabako Foru Aldundiak eskatu du espezifikoa ez diren fitosanitario eta pestizidei buruzko aipamena kentzeko; eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak, berriz, honela berriz idazteko: "Nekazaritzako eta basogintzako intsektiziden erabilera masiboak kiroptero-komunitateetan izan dezakeen eragina ebaluatuko du babestutako eremu naturala kudeatzen duen organoak, eta dosiak nahiz erabil daitezkeen guneak murriztu ahal izango ditu".

Oñatiko Udalak eskatu du salbuespen bat sartzeko 16. erregulazioan, fitosanitarioak eta pestizidak baso-masetan aplikatzea debekatzeari buruzkoan, fitosanitarioak eta pestizidak erabili ahal izateko pinu-beldarrari aurka egiteko.

Bestalde, 8. erregulazioari dagokionez, esan behar da ezen, adierazi den bezala, bestela idatzi dela jada, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta.

16. erregulazioari dagokionez, esan behar da hori ere bestela idatzi dela jada, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, eta honela geratu dela:

9. *Nekazaritzako eta basogintzako intsektiziden erabilera masiboak pagadi azidofiloetan eta hariztietan izan dezakeen eragina ebaluatuko du babestutako eremu naturala kudeatzen duen organoak, eta dosiak nahiz erabil daitezkeen guneak murriztu ahal izango ditu.*

Gipuzkoako Baso Elkartek esan du ezen 27. erregulazioko “eragina izan dezaketen” hitzek mugatzen diren eskubideen jabeenganako benetako segurtasunik eza eragiten dutela. Eta zenbait landa-azterketa eta jarraipen-plan egitea proposatzen du, pentsatuta beroriei esker *a priori* zehaztuko direla edonolako baso-jardueren ondorioak, unea eta egoera edozein izanda ere, eta batez ere basoko habitat eta espezieei dagokienez, har daitezkeen neurrien zerrenda *a priori* egin ahal izateko.

Baskegurrek proposatzen du jarduera tradizional sozioekonomikoen debekua kentzea, babestutako basoko faunarentzat kaltegarriak direla frogatu ezean, bai eta tresna arauemaile hau bateratzea ere Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuko aplikazio- edo eragin-ingurueta jarduera ekonomiko tradizionalekin (mantentze-lanak eta baso-aprobetxamendua). Eta, debekatuz gero, konpentsazio egokiak zehaztea.

Adierazten da 27. erregulazioa dokumentutik kendu dela jada, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta.

Leintz-Gatzagako Udalak basoan egur hila uzteko beharra zalantzan jarri du.

Arabako Foru Aldundiak erabakitako helburu kuantitatiboa zalantzan jarri du (40 m3/ha).

Adierazten da 40. erregulazioa, hildako egur kantitateari dagokionez jarritako helburuari zegokiona, dokumentutik kendu dela jada, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak esan du akats bat dagoela “ezinbestean” hitza sartzean 32. erregulazioan, eta azken esaldia kentzea proposatu du.

Adierazten da 32. erregulazioa dokumentutik kendu dela jada, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta.

Gipuzkoako Baso Elkartek esan du 34. erregulazioa aldatu egin behar dela, ixte irregularrek ez dituztelako errespetatzen partzelaren mugak. Gainera, gaur egun duen idazkera zentzugabea da: ez du balio bere helburua lortzeko; hau da, basoa birsortzea eragozten duten ungulatuak igarotzea galarazteko. Horregatik, kentzea proposatzen du. Erregulazioa errepikatuta dago (60. erregulazioa).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrak azken esaldia kentzea proposatu dute, eta erregulazio honetako lehena mantentzeko aukera aztertzea. Ildo berekoa da Oñatiko Udalak eta Leintz-Gatzagakoak esandakoa; gainera, zalantzan jarri dute istingak babesteko aldi baterako ixteei buruzko erregulazioaren egokitasuna, 75.enarena.

Adierazten da 60. eta 75. erregulazioak dokumentutik kendu direla jada, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta. Era berean, eta aipatu kontsulta- eta ituntze-prozesu horietan oinarrituta, dokumentutik 34. erregulazioa kentzea erabaki da.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak eta Arabako Foru Aldundiak 41. erregulazioa aldatzea proposatu dute, espezieak errunaldiak zer garaitan egiten dituen zehazteko.

Arabako Foru Aldundiak dioen bezala, *Rosalia alpina* espeziearen errunaldiak pagoan baino ez dira izaten, eta, horregatik, erregulazioak berariaz aipatu behar du espezie hori. Bestalde, egia da "enborren metatze iragankorra" kontzeptua oso anbigua dela, eta interpretazioa nahastea eragin dezakeela.

Rosalia alpinaren larba-egoerak bizpahiru urte irauten du, eta, urte horiek igaro ondoren, helduak udaberrian agertzen dira. Ekosistemetatik litezkeen ondorengoak ateratzea eragozteko, ez da kendu behar ugaltze-aldian, hau da, uztail eta abuztu artean espezie horren presentzia-esparruan moztuta egon den enborrik. Alegazioa, beraz, onartu egin da, eta honela idatzita geratu, eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta:

16. Onura publikoko mendietako pagadi azidofiloan, gutxienez denboraldi batez moztuta egon den egur lehorra ez da kenduko uztailean eta abuztuan Rosalia alpina duten eremuetatik, espezie horren errunaldiak babesteko.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak, Arabako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrak proposatu dute bestela idaztea 23. alegazioa, baso-aprobetxamenduak asko zailtzen dituela uste dutelako.

Gipuzkoako Baso Elkartek esan du zehaztu behar dela erregulazio hori, ubide bat mugatzen duten bi mazalak igaro ahal izateko.

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, bestela adierazi da 23. erregulazioa, eta honela gelditu:

11. Pagadi azidofiloetan eta Q. petraea hariztietan basolanak egin bitartean, pistak eta bideak ireki edo konpontzean, edo makina astunak erabili beharra dakarren edozein jardueratan, makina horiek ibai-ibilguetan hara eta hona ibiltzea saihestuko da, ibilguetan aldaketarik eta uhertzerik gerta ez dadin. Nahitaezkoa bada ibaia alderik alde igarotzea, behar diren prebentzio-neurriak hartuko dira, ingurune horretan ahalik eta kalterik txikiena egiteko.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak 24. erregulazioa kentzea proposatu du, Gatzagako pagadi eta hariztietan baso-jarduketarik ez egiteko debekuari buruzkoa, egurra ateratzea barne, kontserbazio-egoera lehengoratzeko eta hobetzeko proiektua idazten eta onartzen ez den bitartean. Esan dute ez dakitela zer proiekturi buruzkoa den dokumentua.

Adierazten da 24. erregulazioa dokumentutik kendu dela Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta.

Gipuzkoako Baso Elkartek esan du Mendiei buruzko Foru-arauak ezin hobeki arautzen dituela baso-aprobetxamenduak, eta 25. erregulazioa aldatu egin behar dela, kudeaketa-organoari buruzko aipamena kenduta.

Arabako Foru Aldundiak dio "jolas- edo merkataritza-helburuekin" hitzak oso ilunak direla.

Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrek esan du egur-mozketa Baso Antolaketarako Planak arautu behar duela.

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, dokumentutik 25. erregulazioa kentzea erabaki da.

Gipuzkoako Baso Elkartek esan du 98. erregulazioaren ondorioz nahikoa dela saguzar bakar bat egotea tratamenduak egitea debekatzeko 7.854 hektareako eremu batean, eta aplikazioak 50 metroko erradio batean soilik murriztea proposatu du, lehentasunezkoztat jotako aterpeen eta kolonien eta/edo arriskuan dauden (desagertzeko arriskuan dauden eta/edo kalteberak diren) kiroptero-espezieen ugaltze-guneen inguruan. Iritzi bera eman du Leintz-Gatzagako Udalak.

Adierazten da ezen, 2.2.4. blokean Asparreneko Udalak egindako alegazioari buruzko txostenean jaso bezala, 98. erregulazioa bestela idatzi dela, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, eta orain honela gelditu dela 48. zenbakiarekin:

48. Fitosanitarioen eta/edo pestiziden erabiltzaileak prestatzeko, informazioz hornitzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak sustatuko ditu organo kudeatzaileak, gai horien erabilera arduratsua eta kiroptero-populazioekiko bateragarria bermatzeko.

Baskegur Elkartek esan du ezin esan daitekeela espezie-dibertsitate handiagoa dagoela baso naturaletan baso-landaketetan baino, baizik eta biodibertsitate hori bestelakoa izan daitekeela, baina ez nahitaez txikiagoa, eta EAEn egindako ikerketa bateko datuak eman ditu. Beste helburu operatibo bat sartzea proposatu du: "Herriarrei jakinaraztea zer ingurumen-onura dakarren berekin baso-jarduera produktiboak (Baso-kudeaketa jasagarria)".

Gipuzkoako Baso Elkartek esan du baso-habitatetako arrisku/mehatxuen taulatik basoen eta landaketen kudeaketa kendu behar dela, mozketa gain.

Dokumentuaren xedea ez da zientzia-kontuez eztabaidatzea; gainera, kontu horiek sobera eta gehiegi aztertu ditu komunitate zientifikoak eta akademikoak, eta dagoeneko ez dira eztabaidagai. Esan behar da ezin konta ahala ikerketa zientifikotan frogatu dela basoetako MSA (Espezie Nagusien Ugaritasun-indizea) baso-landaketetako baino askoz handiagoa dela. Indize horrek ez du bakarrik neurtzen espezie bereizgarrien aberastasuna, bai eta haien ugaritasuna ere, eta, horrenbestez, nolabait, basoko populazioen egonkortasuna eta osasuna ere bai. Komunitate

zientifikoan aho batez onartzen da ekosistemen konplexutasuna zenbat eta handiagoa izan orduan eta handiagoa dela espezie bereizgarrien biodibertsitatea. Baso-landaketak sistema artifizial sinpleak dira, non flora- eta fauna-komunitatea nabarmen murriztu eta hutsaltzen baita. Espezie autoktonoek baterako bilakaera izan dute milioika urtetan zehar, eta ezinbesteko interakzioak izan dituzte ekosistemek funtzionatzeko eta ondasunak nahiz ingurumen-zerbitzuak emateko, baina jatorrizko espezieak ordezteak edo desagertzeak eragina dute ekosistema, ondasun eta zerbitzu horietan. Hartara, zenbat eta handiagoa izan baso-habitaten naturaltasun-maila eta egiturazko konplexutasuna, eta zenbat eta zatikatzeko-maila txikiagoa izan, orduan eta biodibertsitate bereizgarri eta funtzionaltasun ekologiko handiagoa dute.

Hori esanda, komeni da gogoraraztea dokumentuaren helburua ez dela litekeen biodibertsitaterik handiena mantentzea (ez espezieen aberastasunari dagokionez, ez populazioen ugaritasunari dagokionez), baina habitat naturalen eremua nahikoa dela bermatzea, bai eta lekuaren izendapenerako arrazoi izandako espezieen populazioen tamaina bermatzea ere, haiek kontserbazio-egoera onean izanik. Hortaz, ez da egokia eztabaidatzea biodibertsitatea non den handiagoa, landaketa aloktonoetan ala baso naturaletan. Aski da ulertzea espezie produktiboak dituzten baso-landaketak ez direla kontserbazioaren xede Habitategi buruzko Zuzentarauaren I. eranskineko zerrendaren arabera. Era berean, ez dira xede alegazioaren egilearen arabera EAEko baso-landaketetan dauden koleoptero-espezieak, eta, horregatik, zuzentarauaren aplikazio hertsia dagokionez, ez da egokia kontserbazio-neurri aktiboak jasotzea landare-formazio aloktono horietarako, ez eta espezie horietarako ere.

Komeni da argi uztea espezieak ez direla berez on edo txar; aitzitik, kontserbazio-egoera onean dagoen ekosistema baten ezaugarri hutsak dira, edo ez dira, eta espezie aloktonoen unaden edo banako bakartuen presentziak, hala nola intsinis pinuarenak baso-habitaten kasuan, ez du adierazten, *EBko Habitat Naturalak Interpretatzeko Eskuliburuaren* eta hizpide dugun esparruko beste edozein dokumentu zientifikoren arabera, kontserbazio-egoera onean daudenik tokiaren izendapenerako arrazoi izandako habitatak. Aitzitik, ekologian ohikoa da espezie aloktonoen indizea erabiltzea ekosistema baten kalitaterik eza adierazteko, edo biodibertsitatearen kontserbazio-egoera ebaluatzeko.

Baso-landaketa horien ingurumen-balioez egindako aipamenari eta 1.5 helburu operatibo moduan “Herritarrei jakinaraztea zer ingurumen-onura dakarren berekin baso-jarduera produktiboak” sartzeko proposamenari dagokienez, zehaztu behar da baso-landaketak ez direla kontserbazio-xede Habitategi buruzko Zuzentarauaren aplikazioan, eta habitat naturaltzat hartu ere ez direla egiten, eta, horregatik, dokumentuaren helburuen artean ez da jasotzen sortzen dituzten ingurumen-onurak jakinarazteko inolako jardunik, eta dokumentuan ez dauka tokirik alegazioaren egileak proposatutako helburuak. Hala ere, esan behar da azken hori Habitategi buruzko Zuzentarauak kontserbazio bereziko eremueta plangintza-tresnei esleitzen dien helburu ez izateak ez duela zalantzan jartzen baso-plangintzako beste dokumentu batzuetan erantsi ahal izatea.

Alegazioaren egileak “baso-jarduera produktiboa” eta “baso-kudeaketa jasangarria” terminoen arteko analogia egiten du. Onartuta baso-kudeaketa produktiboa jasangarria izan daitekeela, eta, izan, horrek izan behar duela baso-kudeatzaileen helburuetako bat, esan behar da ez dela beti hala gertatzen, eta terminoak ez direla ezinbestean baliokideak.

Presioei eta arriskuei dagokienez, esan behar da erreferentziazko zerrenda batetik aukeratzen direla. Zerrenda hori kodifikatuta dago, eta Europar Batasun osoan erabiltzen da, eraginak eta jarduerak jakinarazteko, Habitategi buruzko Zuzentarauaren 17. artikuluan aurreikusitako jarraipen-txostenetan. Zerrenda hierarkizatua da, eta oinarri du Europako Batzordeak Natura 2000ri buruzko formulario eta txostenetarako egokitutako sailkapen bat: Salafsky et al. (IUCN, 2007). Lekuaren kontserbazio-egoeran eragin onuragarria edo kaltegarria izan dezaketen giza jarduera eta prozesu natural guztiak sartzen dira. Kudeaketa-planetan sartzeari esker, errazagoa da geroago 17. artikuluko sei

urtean behingo txostenak egitea. Gainera, pentsatzen da kudeaketa-neurrien bidez aurre egin dakiekeela arriskuen, presioen eta jardueren ondorio kaltegarriari. Hau da, leku batean eragina izaten ari diren edo eragina izan lezaketan jarduera guztiak sartzen dira, kudeatzeko prebentzio-neurriak edo neurri aktiboak zehaztu ahal izateko.

Eragina kaltegarria izan daiteke leku bateko habitat edo espeziearentzat, eta onuragarria beste batekoarentzat. Horregatik, berariaz identifikatzen dira kudeaketaren xede direnen multzo bakoitzerako. Ulertzen da baldintzen atalean azaldutakoa laburtzeko era estandarizatua eta alderagarria dela. Basoen eta landaketen kudeaketa 1. maila hierarkikoa da, eta hurrenez hurrengo mailatan zehazten da. Kasu honetan, eta baldintzetan azaldutakoaren arabera, ulertzen da mozketak, gertatzen bada, ondorio kaltegarriak izan ditzakeela habitat natural jakin batzuetan, eta, horregatik, presioen eta arriskuen zerrenda mantendu egiten da.

Baskegur Elkartek esan du ezen, praktikan, Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuan baso-jarduerarik ezin egin ahal izatea dela 26., 27., 36. eta 80. erregulazioen ondorioa. 27. eta 80. erregulazioen edukari dagokionez, esan du urtean bost hilabetetan soilik egin litezkeela, baina hori zentzugabekeria dela ematen du argi eta garbi, ulergarria eta zentzuzkoa delako pentsatzea ezein jarduera ekonomiko ezin dela bideragarria izan urtean sei hilabetetan soilik egin ahal bada, eta, gainera, aprobetxamendu-lanak egiteko eguraldi txarreneko hiletan.

26. eta 36. erregulazioen edukari dagokionez, esan du debeku-aldiez, hurrenez hurren, "ugalketaren hasieratik oilaskoak ingurua utzi arte" eta "jardueren egutegia eragina jasan dezaketen espezie jakinen fonologiara egokitu behar da" esateak defentsa eta segurtasun juridikorik eza eragiten duela, idazkera anbigua delako. Erregulazio horiek kentzeko eskatu du.

Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrak, berriz, justu kontrakoa esaten du, eta proposatzen du "jardueren egutegia eragina jasan dezaketen espezie jakinen fonologiara egokitu behar da" mantentzea 26. eta 36. erregulazioetan, eta 27. enera hedatzea, data zehatzen beharra zeukalako.

Adierazten da 26., 27., 36. eta 80. erregulazioak dokumentutik kendu direla jada, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, eta, horregatik onartutzat jotzen dira Baskegur Elkartearen alegazioak; ez, ordea, Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrenak.

Arabako Foru Aldundiak esan du ezen 30. erregulazioko "*Quercus sp*-en masei eragin diezaiekeen edozein jarduketa berariaz saihestuko da" esaldiak, hitzez hitz ulertuz gero, berekin dakarrela *Quercus* espeziearen masen edozein kudeaketa mota baztertzea.

Adierazten da 30. erregulazioa dokumentutik kendu dela jada, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailarekin eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundiekin egindako ituntze-prozesuan oinarrituta.

Baskegur Elkartek esan du ezein helburutan ez dela proposatzen erakunde publiko eskudunak koordinatzea eragindako interes partikularrak ordezkatzeko dituen ezein erakunde pribaturekin, eta, horregatik, 1.4 helburu operatibo berria sartzeko eskatu du, honela idatzita: "Batzerde tekniko iraunkor bat eratuko da Aizkorri-Aratz

Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzearekin zerikusia duten neurrien aplikazioan garrantzia duten erakundeekin, eta batzorde horretan baso- eta egur-jarduerak ordezkatzen dituzten erakundeek ordezkariek izango dituzte”.

Lehenago adierazi bezala, Euskadiko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Dekretuak (apirilaren 15eko 1/2014) xedatzen ditu babestutako eremu naturalen kudeaketa-eskumenak. Baso- eta egur-jarduerak ordezkatzen dituzten erakundeek ordezkariek izan beharreko batzorde tekniko iraunkorra eratzeari dagokionez, babestutako eremu naturala kudeatzen duen organoak erabaki beharko luke batzordearen osaera.

Nolanahi ere, eta hala egokituz gero, Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremurako eta parke naturalerako jarraibideen eta kudeaketa-jarduketan dokumentuan jaso beharko lirateke, besteak beste, erakunde publikoek eta pribatuek Aizkorri-Arazko babestutako eremu naturalaren kudeaketan duten parte-hartzea sustatu eta hobetzeko jarduketak. Eta dokumentu hori Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiek egin eta izapidetu beharrekoa da.

Ez da ahaztu behar, gainera, Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuak izen bereko parke naturalaren mugaketa bera duela, eta parke horrek parte hartzeko bideak aurreikusita dauzkala; horregatik, beharbada, eta hala egokituz gero, alegazioaren eragileak iradoki duenera egokitu ahal dira, eta ildo horretan garatu.

2.2.7 Nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan, adostasunez erabaki da larre menditarrei buruzko atalean, 5.2.ean, laugarren eta bosgarren paragrafoak aldatzea.

Eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, laugarren paragrafoa aldatzea erabaki da, abeltzaintza-kargaren banaketa desegokiari eta gehiegizko artzaintzari buruzko oharra kenduz, bai eta azken esaldia ere, hau da, ganadua erabilera aktiborik gabe larreetan libreki bazkatzen dela zioena, eta paragrafoaren gainerakoa jendaurrean jarritako dokumentuan zegoen bezala utzi da.

Larre menditarrei buruzko ataleko, 5.2.eko, bosgarren paragrafoari dagokionez, honela idatzita geratu da:

Bestalde, Urbia aldean, Ulex sp.-en sasi-garbitzea egin da, larreak mantentzea bermatzeko; izan ere, egungo abere-kargak eraginda, larreak komunitate helduagoak bilakatzen ari dira.

Eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan, adostasunez erabaki da 1., 3. (1. zatia), 13., 14. eta 17. paragrafoak aldatzea eta 3. (2. zatia), 12. eta 16. paragrafoak kentzea larre menditarren kontserbazio-egoeraren baldintzei buruzko atalean.

Larre menditarren kontserbazio-egoeraren baldintzei buruzko atalaren aldaketak honela idatzita geratu dira:

1. paragrafoa:

"Mendiko larreak, sastrakak, flora eta fauna kontserbatzeko, abeltzaintza estentsiboa izan behar da, erabilera aktibo eta orekatuekin, habitat funtzional horiei eutsi ahal izateko."

3. paragrafoa:

"Abeltzaintza-kargaren banaketa desorekatua da, eta zuhaixka-erako formazioen aitzinamendua lekuan-lekuan baldintzatzen du."

Beste paragrafo bat eranstu da:

"Habitat funtzional horien kudeaketa abeltzaintza-sektorearen errealitate sozioekonomikoa eta mendiaren idiosinkrasia elkarri egokitzea bideratuta egon da, artzain-jarduera antolatuz eta arautuz tokian tokiko abeltzain-elkarteak sustatu eta sortzearen bidez, eta haiekin, eta onura publikoko mendien titular diren erakundeekin elkarlanean jardunda, kudeaketa- eta aprobetxamendu-planak itundu dira, zeinetan honako hauek sartzen baitira: artzaintza-ordenantzak egitea; ganadua mendian sartzeko eta handik irteteko egunak erabakitzea; abeltzaintza-zama arautzea; oinarritzko azpiegituraz hornitzea, besteak beste iturburuetatik ura hartu eta bordetan eta urasketan banatzeko; sasiak garbitzea sastrakazko inguruneetan; erabilera-itxiturak abeltzaintzan; erabilera-mahukak; ibiltzeko moduko pistak; hobekuntzak jezteko eta gazta egiteko bordetan eta azpiegituretan; ongarritze zuzentzailea; gaitzea, ahulak izan daitezkeen aldeetan presioa gutxituta aldi batez abeltzaintza-karga handiagoa jasan dezaketen guneetan belar-haziak ereitearen bidez; eta abar".

13. paragrafoa:

Sua mendez mende erabili izan da, mendiko larreak mantentzeko, eta sasien kolonizazioa geldiarazteko. Gaur egun, beste bitarteko batzuk erabiltzen ari dira suaren ordeztasun (sasi-garbitzea, ongarritze zuzentzailea eta abar), oldarkortasun txikiagokoak litezkeen higadura-fenomenoen aurrean, eta beste prozedura agronomikoen kasuan bezala (luberritzea eta/edo berrereintza), murrizketekin hartu eta arautu behar dira, eta betiere Batasunaren intereseko bazkalekuak eta sastrakak mantendu eta kontserbatzeko helburu nagusia lortzearen mesedetan."

14. paragrafoa:

Ibilgailuak, batez ere mendiko motorrak, pistetatik kanpo ibiltzeak higadura larria eragiten du lurrian, eta mendiko larreak andeatzen ditu."

17. paragrafoa:

"Inguruan ganadua egotea arriskutsua izan daiteke arriskuan dauden harkaitzetako loreen eta larre menditarren arteko espezie batzuentzat."

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan, adostasunez erabaki da dokumentuan beste erregulazio bat sartzea.

Beste erregulazio bat sartu da 25. zenbakiarekin, honela idatzita:

25. Eremu horiei lotutako abeltzaintza-jarduera bultzatzeko eta beraren kontserbazioa bermatzeko behar diren azpiegiturak sortu, mantendu eta konpondu beharko dira."

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan, adostasunez erabaki da dokumentutik 55. erregulazioa kentzea, eta 69. eta 73. erregulazioak bestela adieraztea.

69. erregulazioa aldatu eta honela idatzita geratu da 30. zenbakiarekin:

30. Onura publikoko mendietan, baldintzak eta abeltzaintza-zama aztertu ondoren arautuko da istingen eta berorien inguruaren kontserbazioa. Itxiturak jarritz gero, erakunde kudeatzailearen ardura izango da babes-hesiak egoera onean egotea, eta aziendarentzat aska izan daitezen bermatzea. Istingetan eta erretako txilardi higroturbosoetan, babestutako eremu naturalaren organo kudeatzailearen baimena beharko da abeltzaintza-erabilera egiteko.

73. erregulazioa aldatu eta honela idatzita geratzen da 33. zenbakiarekin:

33. Organo kudeatzailearen aurretiazko baimena beharko du istinga eta txilardi hezeen inguruko edozein jarduerak, kalte egin badiezaieke gune horiei. Alde horretatik, habitat horren bideragarritasuna arriskuan jartzen duten neurrian, eta aipatu organo kudeatzaileak beharrezkotzat jo ezean, besteak beste honako hauek baztertuko dira:

- Ongarritzea, kaltziozko medeatzeak eta berrereintzak.*
- Sastraka-kentze mekanikoak, landareak erretzea eta landaretza naturala aldatu eta/edo deuseztatu dezaketen jarduerak egitea.*
- Katalogatutako florako espezieak edo beste edozein material biologiko edo geologiko biltzea edo hondatzea.*
- Zura ateratzeko bide berriak, pistak, bidexkak eta bestelako bideak egitea.*
- Lur gaineko drainatzeak, ur-jarioen desbideratzeak eta istingetarako ur-ekarpenak arriskuan jartzen dituen beste edozein jarduketa.*

UAGaren ustez, nekazaritza- eta abeltzaintza-produkzio jasangarriaren aldeko irizpideetan oinarrituta antolatu behar dira larre-aprobetxamenduak, argi gera dadin ezen, produkzio jasangarriaren aldeko irizpide horien gainetik beste mugaketa batzuk ezartzen badira ingurumen-arrazoiengatik, mugaketa horiek dagokien kalte-ordaina izan behar dutela.

Alegazioa larreetarako baldintzei buruzko atalean aipatuaren gainekoa da. Eta atalak zerikusia dauka litezkeen ingurumen- eta nekazaritza-sinergiekin, bai eta ustategien barruan baina kontsebazio bereziko eremutik kanpo dauden sega-belardiak kontsebazio bereziko eremuko produkzio-sisteman sartzeko proposamenarekin ere. Horrenbestez, eztabaida zabaltzen da abeltzaintza-erabilerek kontsebazio bereziko eremuetan baino handiagoak diren esparruetan izan beharreko erregulazioaren orientazioari buruz. Eta agerian uzten du kontraesankorra dela aurrerago proposatzea larreak ingurumen-irizpideak soilik kontuan hartuta antolatu behar direla. Ikuspegi hori onargarria da, eta dokumentuen egitura berriaren ondorio, kudeaketa-neurriei eta jarraibideei buruzko dokumentuko jardueretarako uzten baititu kontsebazio bereziko eremua kudeatzeko funtsezko baldintza hori konpontzeko proposatzen diren neurriak eta proposatutako laguntza-sistema. Dokumentuko jarduera horiek ez dira jarri jendaurrean. Horrenbestez, zenbaitetan adierazi dugun bezala, ez dago erantzunik dokumentuan azaldutako baldintza askotarako.

Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartek eskatu du ezen, Landa Ingurunearen Garapenerako Legea betez (apirilaren 8ko 10/1998), bertan landa-garapenerako programaren helburuak jasotzen baitira, Aizkorri-Arazko baliabideak euskarri izateko nekazaritza-jarduerarako, eta ez eragozpen, eta, aldi berean, baserriaren iraunkortasuna bermatzeko prozesuan tresna izateko.

Aurreko alegazio bati emandako erantzunean adierazi bezala, kontserbazio bereziko eremuen osotasun ekologikoari eustea da Habitategi buruzko Zuzendarauaren helburu nagusietako bat. Osotasuna ekosistemako elementu biotiko eta abiotiko guztien artean gertatzen diren interakzioek erabakitzen dute, eta horrela zehazten dute ekosistemaren funtzionaltasuna, bai eta ingurumen-ondasun eta -zerbitzuak emateko duen ahalmena ere. Testuinguru horretan zehazten da zer eragin izan dezaketen Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuan egiten diren erabilerek eta jarduerak kontserbazioaren xede diren habitaten eta espezieen kontserbazio-egoeran. Alde horretatik, informazio ekologikoari, araudiari eta kontserbazio-helburuei buruzko dokumentuan bertan esaten den bezala, eskura zegoen informazioa kontuan hartu da dokumentua egiteko, eta Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuaren ingurumen-kudeaketan eragina izan dezaketen edo kudeaketa hori erabaki dezaketen baldintza naturalak, kulturalak, sozialak eta ekonomikoak aztertu dira.

Aizkorri-Aratzen kasuan, gainerako kontserbazio bereziko eremuen izendapenerako egin bezala, ezin bestela izan, arrazoi ekologikoen mende jartzen da Habitategi buruzko Zuzendarauak jasotako helburuak lortzeko neurri egokiak ezartzea, eta ez arrazoi ekonomikoen mende, Habitategi buruzko Zuzendarauaren 2. artikuluan adierazi moduan, eta, horretarako, informazio ekologikoari, araudiari eta kontserbazio-helburuei buruzko dokumentuak egiten duen bezala, alderdi ekonomikoak, sozialak eta kulturalak kontuan hartuko ditu, bai eta eskualde- eta toki-berezitasunak ere, zuzendarauak adierazitako helburuak lortzeko neurri egokiak ezartzeko. Hala ere, dokumentu hauek garapen sozioekonomikorako planak ez izan arren, beraien xedea izanda kontserbazio-egoera onean izatea habitat naturalak eta basoko espezieak, eta jarduera ekonomiko batzuek habitat naturalen eta basoko espezieen kontserbazio-egoera baldintza dezaketen neurrian, alderdi ekonomikoak kontuan hartu dira, eta proposamenak jaso, dokumentuan aurreikusitako helburuen aldeko neurriak hartzen dituzten partikularrentzako pizgarriak handitzeko.

Oñatiko Udalak, lehenago, 2014ko abenduaren 18an, partaidetza-prozesuaren ondoren egin zuen bezala, mendietara doan azientaren erregistroari buruzko erregulazioa, 73.a, argitzeko eskatu du, onura publikoko mendietan soilik izan dadin aplikagarria.

Partaidetza-prozesuaren ondoren 2015eko urtarrilaren 8an Seguran egindako itzultze-saioan, azaldu zen nola gehitu ziren dokumentuan prozesuan zehar egindako ekarpenak. Ekarpenak jaso ez ziren salbuespenezko kasuei dagokienez, ez jasotzeko arrazoiak azaldu ziren, aurretik hartutako konpromisoa kontuan izanda, eta idatzizko alegazioak Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren Legean (abenduaren 22ko 8/2003) araututako jendaurreko informazio-fasean aurkeztea gomendatu zen, hori nola egin azaltzeaz gain.

Aurkeztutako alegazioaren kasuan, esan behar da bere garaian ez zela egokitzat jo Oñatiko Udalak egindako proposamena.

Nolanahi ere, ulertuta alegazioaren egilea 45. erregulazioari buruz ari dela, eta ez 73.ari buruz, esan behar da ezen, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, dokumentutik 45. erregulazioa kentzea erabaki dela.

Oñatiko Udalak, lehenago, 2014ko abenduaren 18an, partaidetza-prozesuaren ondoren egin zuen bezala, eskatu du kardu-populazioak murrizteko aukerari buruzko irizpide bat sartzeko belar-sastrakak garbitzeari buruzko erregulazioan, 86.enean, populazio horiek inbaditzaileak direlako, eta ez dutelako bazka-baliarik.

Bestalde, Leintz-Gatzagako Udalak erregulazioa aldatzea proposatu du, belar-sastrakak sei hilean behin garbitu ahal izateko, hamar urtean behin garbiketa hori egitea derrigorrezkoa izateko, eta, gainera, zalantzan jarri du erregulazioaren bideragarritasuna.

Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrak dio jarraipen esperimentalari azienda mota ororentzat sustatu behar dela, eta ez bakarrik azienda larriarentzat.

Partaidetza-prozesuaren ondoren 2015eko urtarrilaren 8an Seguran egindako itzultze-saioan, azaldu zen nola gehitu ziren dokumentuan prozesuan zehar egindako ekarpenak. Ekarpeneak jaso ez ziren salbuespenezko kasuei dagokienez, ez jasotzeko arrazoiak azaldu ziren, aurretik hartutako konpromisoa kontuan izanda, eta idatzizko alegazioak Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren Legean (abenduaren 22ko 8/2003) araututako jendaurreko informazio-fasean aurkeztea gomendatu zen, hori nola egin azaltzeaz gain.

Aurkeztutako alegazioaren kasuan, esan behar da bere garaian egokitzen jo zela Oñatiko Udalak egindako proposamena, eta hala jaso zela Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko informazio ekologikoari, kontserbazio-helburuei, kontserbaziorako arauak eta jarraipen-programari buruzko dokumentuan.

Hartara, alegazioaren xede izandako erregulazioa, 61.ena, alegazioaren egileak adierazitakoaren ildotik idatzi zen, baina geroago berriz adierazi da, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, eta 21. erregulazioaren barruan geratu:

21. Onura publikoko mendietan, Habitaten Zuzendaritza jasotako larre- eta sasi-habitatetarako okupatzen dituzten eremu guztietan, larreak antolatzearen plan teknikoaren arabera egingo dira jardun agronomikoak (ongarritzea, medeatzea, berrereintza, fitosanitarioak, herbizidak eta sasiak kentzea), edo, bestela, foru-organo eskudunak baimenduta eta larre-habitatetaren mantentze eta kontserbazioari lotuta.

Leintz-Gatzagako Udalaren proposamenari dagokionez, esan behar da erregulazioak nahi duela belar-sastrakak garbiketa ekonomikoki eraginkorra izatea, garbitze hori funts publikoekin finantzatzen delako nagusiki, ez baitirudi zentzuzkoa denik belar-sastrakak garbitzea ondoriozko larreak mantentzeko behar adina azienda-karga ez dagoen eremuetan, garbiketa horien helburua, hain zuzen ere, bazka-baliabideak areagotzea izaki, kontserbatzen diren habitatetara eragin kaltegarria izan gabe. Larre bateko belar-sastrakak sei hilean behin garbitu beharko balira, ondorioztatu beharko litzateke larre horrek ez duela bazkatze-kargarik, eta ez luke zentzurik izango beste gastu publiko bat egiteak belar-sastrakak garbitzeko, ganadurik ez dagoelako arazoa konpontzen ez bada. Larreak ondo kudeatuta badaude, eta karga egokia badute, ez da belar-sastrakarik garbitu behar. Hala ere, erregulazioak belar-sastrakak garbitzea onartzen du, “baldin eta jardueraren xedea bada habitata lehengoratzeko eta ekologikoki hobetzea sastrakak birsortu edo kontrolatzeko, edo larreak lehengoratzeko”.

Era berean, azizaren jarraipenari buruzko alegazioari dagokionez, adierazten da 58. erregulazioa dokumentutik kendu dela jada, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta.

Oñatiko Udalak, lehenago partaidetza-prozesuaren ondoren 2014ko abenduaren 18an egin bezala, 170. erregulazioa aldatzeko eskatu du, hau da, eraikinak birmoldatzeko eta teilaberritzeko ezarritako aldi baterako salbuespenari buruzkoa, afekziorik izan ez dadin kiropteroak hazi bitartean, eta abuztuaren 1ean amai dadin.

Partaidetza-prozesuaren ondoren 2015eko urtarrilaren 8an Seguran egindako itzultze-saioan, azaldu zen nola gehitu ziren dokumentuan prozesuan zehar egindako ekarpenak. Ekarpeneak jaso ez ziren salbuespenezko kasuei dagokienez, ez jasotzeko arrazoiak azaldu ziren, aurretik hartutako konpromisoa kontuan izanda, eta idatzizko alegazioak Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren Legean (abenduaren 22ko 8/2003) araututako jendaurreko informazio-fasean aurkeztea gomendatu zen, hori nola egin azaltzeaz gain.

Aurkeztutako alegazioaren kasuan, esan behar da aipatu aldia aztertu zela bere garaian, eta egokitzen jo zela hilabete murritzera hasieran esandako aldia, zeina ekainaren 1etik abuztuaren 31ra arte izatea erabaki zen. Hala ere, eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailarekin eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundiekin egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, bestela idatzi da 106. erregulazioa, zeina orain 54.a baita, eta, besteak beste, mugatutako aldiaren zehaztapena kendu da; hortaz, honela idatzita geratu da:

54. Foru-organo eskudunak baimendu beharko du organokloratuak, organofosforatuak edo permetrinak erabiltzea zuraren tratamendu intsektu-hiltzaileetan, Habitategi buruzko Zuzendarauko kiropteroen aterpe nagusiak dituzten eraikinen eta instalazioen eraberritze edo birmoldaketetan.

EHNEk dio abeltzaintza estentsiboa Presioak/Arriskuak jasotzen dituen taulan sartzen dela.

Dokumentuak argi eta garbi erakusten du abeltzaintza estentsiboaren ondorio direla, oro har, Aizkorri-Arazko ondasun eta zerbitzu ekosistemikoetako asko, bai eta, bereziki, funtsezko elementutzat hartu diren habitat natural eta espezie askoren presentzia ere. Eta, argi eta garbi, dokumentuak horregatik planteatzen ditu jarduera horren aldeko erregulazio asko.

Baso-jardueraren kasuan lehen adierazi bezala, esan behar da erreferentziazko zerrenda batetik aukeratzen direla presioak, arriskuak eta jarduerak. Zerrenda hori kodifikatuta dago, eta Europar Batasun osoan erabiltzen da, eraginak eta jarduerak jakinarazteko, Habitategi buruzko Zuzendarauaren 17. artikuluan aurreikusitako kontrol- eta jarraipen-txostenetan. Zerrenda hierarkizatua da, eta oinarri du Europako Batzordeak Natura 2000ri buruzko formulario eta txostenetarako egokitutako sailkapen bat: Salafsky et al. (IUCN, 2007). Lekuaren kontserbazio-egoeran eragin onuragarria edo kaltegarria izan dezaketen giza jarduera eta prozesu natural guztiak sartzen dira. Kudeaketa-planetan sartzeari esker, errazagoa da geroago 17. artikuluko sei urtean behingo txostenak egitea. Gainera, pentsatzen da kudeaketa-neurrien bidez aurre egin dakiekeela arriskuen, presioen eta jardueren ondorio kaltegarriei. Hau da, leku batean eragina izaten ari diren edo eragina izan lezaketen jarduera guztiak sartzen dira, kudeatzeko prebentzio-neurriak edo neurri aktiboak zehaztu ahal izateko. Izan ere, abeltzaintza estentsiboa eragin onuragarrien taulan agertzen da, erakunde eskudunak lantzen eta onartzen dituen neurrien dokumentuak bildu ahal izan dituzten, organo eskudunak egokitzen joz gero, jarduera estentsibo horrek gaur egun arte jasotako laguntza bultzatzeko eta areagotzeko neurri zehatzak.

EHNEk dio ez direla kontuan hartu faktore sozioekonomikoetan, eta mespretxuz aipatzen direla “abeltzaintza-kargak”.

UAGAk esan du ez duela ematen abeltzaintza-kargarako irizpiderik egokiena denik urteko UGM-tan adierazitakoa, baina ez du esan zein aukeratu beharko litzatekeen.

Dokumentuan abeltzaintza-kargak mespretxuz aipatzen direlako EHNEren iritzia dagokionez, ez da ulertzen baieztape hori. Abeltzaintza-karga kontzeptu tekniko bat da, artzaintzaren intentsitatea zehazten duena, eta hektareako azienda-buruen kopuruaren arabera neurtzen da. Horrenbestez, ezin du mespretxuzko trataerarik izan. Nolanahi ere, dokumentuak aitortzen du artzaintza estentsiboa funtsezko tresna dela larreak kontserbazio-egoera onean izateko, eta, horregatik, artzainen eta abeltzainen lankidetzak izan behar da, funtsezkoa delako abeltzaintza-kargaren banaketa orekatua izatea. Abeltzaintza-karga desegokiko arazoak eremu txikiko oso egoera berezietan identifikatu dira, hala nola *Cladium mariscus*en istingan (EB kod. 7210*) eta trantsizioko zohikaztegietan (EB kod. 7140). Eta, kasu horretan, adierazten da Gipuzkoako Foru Aldundiak duela zenbait urte hesitu zuela ingurua, azienda gehiegi egotea galarazteko, eta *Cladium mariscus* espeziearen lehengoratzeko eta sorrera bultzatzeko.

Nolanahi ere, eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailarekin eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundiekin egindako ituntze-prozesuan erabakitakoaren arabera, larre menditarrei buruzko puntuan, 5.2.enean, laugarren paragrafoa aldatu egin da, abeltzaintza-kargaz esaten zena kenduta, bai eta larre menditarren kontserbazio-egoerari buruzko baldintzen hirugarren paragrafoa ere, abeltzaintza-kargaren ordean abeltzaintza-presioa jarri baita; azkenean, honela idatzita geratu dira:

4. paragrafoa (5.2. atala):

"Ez da ikusi higadura-prozesu nabarmenik agerian jartzen duen ezaugarriarik. Hala ere, arazo berezi batzuk nabaritu dira, lurra zapaltzeari eta trinkotzeari lotuta, abereek bereziki gogokoak dituzten lekuetan, hala nola ur-begietan, batez ere Aloña-Urbi inguruan, Portu Zaharrean eta Burgamendin.

3. paragrafoa (Baldintzak):

*"Abeltzaintza-**presioaren** banaketa desorekatua da, eta zuhaixka-erako formazioen aitzinamendua lekuan-lekuan baldintzatzen du."*

Azienda urasken inguruan metatzeak eragindako higadura-arazo logiko eta bereziak ere aipatzen dira, baina esaten da arazo horiek ez direla larriak, eta ez dutela baldintzatzen larreen kontserbazio-egoera ontzat jotzea. Izan ere, eta alegazioaren egileak oso bestelako interpretazioa eginda ere, dokumentuak esplizituki adierazten du ezen, datu kuantitatiborik izan gabe, eta aipatu inguru horiek salbuetsita, landan ikusitakoagatik ondorioztatzen dela eskaria karga-kapazitateari egokitzen zaiola, eta horrek agrosistema orekan izatea ahalbidetzen duela. Eta aitortzen du hori egungo abeltzaintza-ereduaren ondorio dela.

Dokumentuak faktore sozioekonomikoen artean abeltzaintzaren kasua kontuan hartu ez izanari dagokionez, ez da inondik ere egia. Aurreko alegazioari erantzuten esandakoari gehitu behar zaio dokumentuak oso kezka handia adierazten duela Aizkorri-Arazko ustiapen estentsiboen bideragarritasunari buruz, bai eta abeltzainen arazo sozioekonomikoekiko sentsibilitate handi handia ere. Honako hau dio: *"... hurrengo sei urtean ez da aurreikusten aldaketa garrantzitsurik, abeltzaintza-kargak mantentzeari dagokionez behintzat, baina aurreikusteko modukoa da abeltzainen kopurua behera egingo duela epe laburrean eta ertainean, sektorean oro har belaunaldi-ordezterik ez dagoelako"*. Eta honako

hau ere bai: “... *ustiapen estentsiboen bideragarritasuna oso baldintzatuta dago, ustiategitik kanpoko pentsuen eta belar-bazken mende baitago, eta horiek oso garestiak izan dira azken urteotan; horregatik, belardietako larre-baliabideen eta larre menditarren optimizazioa ez da bakarrik ingurumen-behar bat, bai eta inperatibo ekonomiko bat ere*”. Amaitzeko, esaten du Aizkorri-Arazko larreak egoera onean mantentzea ez dagoela bermatuta epe ertainean eta luzean, eta berariaz dio programa integratu bat izan behar dela, abeltzaintza estentsiborako laguntzak handitzeko, egiten dituen ingurumen-zerbitzuen ordain moduan.

Abeltzaintza estentsiboaren garrantzi ekologikoa ez ezik, eraginkortasun ekonomikoa ere justifikatzeko, besteak beste Nekazaritza eta Kontabilitate Sare Nazionaletik eta Nekazaritza Ustiategien Kostu eta Errentei buruzko Azterketetako Emaiza Tekniko eta Ekonomikoetatik lortutako datuak ematen ditu, eta datu horiek erakusten dute Idiazabal jatorri-izeneko gazta egiteko esnetarako ardien ustiategien marjina garbia, hala nola Aizkorri-Arazko ustiategiena, handiagoa dela esnetarako eta haragitarako behien ustiategiena baino, neurri batean kalitateko izenarekin merkaturatzearen ondorioz. Hala ere, ustiategi estentsibo horiek ingurumenaren ikuspegitik onuragarriagoak izan arren, baina biodibertsitatean dituzten kanpo-efektu onuragarriak, besteak beste larre horiek mantentzea, ez balioestearen ondorioz, askoz laguntza txikiagoak jasotzen dituzte ustiategi intentsiboek baino, bai eta haragitarako behi-aziendak berak baino.

Eta, horregatik, berriz nabarmentzen du baliatze aktibo onuragarriko abeltzaintza estentsiboa sustatzeko gaitasuna izango dela larre menditarrek kontserbatzeko alderdi garrantzitsuenetako bat; hau da, Administrazioak biodibertsitatearen aldeko erabilera egiten duten ustiategi horiei behar bezala laguntzeko daukan gaitasuna. Azkenik, dokumentuak onartzen du abeltzaintza estentsiboari laguntzeko sistema hori “*ezin dela inposatu egungo egoeran*”, eta erregulazio batzuk jasotzen ditu, abeltzaineekin borondatezko kontratuak egitera premiatzen dutenak, ordain-sistema justu bat antolatu ahal izateko, ingurumen-konpromisoengatik eta ingurumen-zerbitzuak emateagatik.

Gainera, esaten du abeltzaintza-azpiegitura batzuk hobetu egin behar direla, eta, adibidez, esaten da inguru batzuetan oraindik leku gutxitan dagoela ura. Esaten da azpiegitura horiek kokatzen diren guneen aukeraketa funtsezkoa dela azienda banatzeko, eta larreen gaineko inpaktuak eragozteko, eta hori abeltzaineekin batera egin behar dela. Alegazioaren egileak aipatutako neurrietako batzuk, hala nola mendirako sarbideak, txabolak eta tratamendu-eskortak, jarduketak dira, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiek onartu beharrekoak Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremurako eta parke naturalerako jarraibideei eta kudeaketa-jarduketei buruzko dokumentuan, betiere aplikagarria den eskumen-araubidean oinarrituta, zeina 1/2014 Legegintzako Dekretuak xedatu baitzuen, kontserbazio bereziko eremuen eta hegaztientzako babes bereziko eremuen izendapenerako dekretuen edukiaz den bezainbatean.

Nekazaritza- eta ingurumen-neurriek agrosistemarako duten ahala ez baliatzeari dagokionez, dokumentuak honako hau egiaztatzen du: “... *2007-2013 aldian, landa-garapenerako programak bereziki abeltzaintza estentsiboari eragiten dioten laguntza orokorrak bildu ditu, hala nola egoera txarrean dauden inguruetarako laguntzak, eta Aizkorri-Aratzen nolabaiteko eragina izan duten mendiko larreen aprobetxamendurako nekazaritza- eta ingurumen-laguntza espezifikoak*”.

Dokumentuaren arabera, halaber, mendiko larreak mantentzeko laguntzez gain, “*Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Jasangarriko Planak (2007-2012) landazabalean biodibertsitatea kontserbatzeko interes bereziko neurriak jasotzen zituen: ingurumen-aholkularitza nekazari eta basoginentzat; sega-belardiak mantentzea; zerrenda belardunak sortzea; zuhaiztiak landatu eta mantentzea; ur-bazterreko landaredia kontserbatzea eta lehengoratztea; erlezaintza bultzatzea belardi eta larreetako flora entomofiloa kontserbatzeko; eta heskaiak landatzea eta mantentzea*”. Honako hau egiaztatu du: “... *neurri horiek ez dute funtzionamendu egokirik izan, harrera eskasa izan dute, sega-belardietarako laguntzak salbuetsita, eta izandako emaitzak ez dira aztertu ingurumenaren nahiz finantzen ikuspuntutik*”. Gainera, honako hau dio: “... *onuradun izan zitezkeen pertsonen neurri horiez ia-ia ezer ez zekitela*

egiaztatu da”. Baina dokumentuak inon ere ez du esaten ez jakite hori abeltzainen erantzukizuna denik. Honako hau, berriz, egiaztatuta dago dokumentuan: “... izandako emaitzak (nekazaritza- eta ingurumen-neurrienak) ez dira behar bezain ongi ebaluatu nekazaritza-biodibertsitatean zer-nolako eragina duten jakiteko aukera ematen duten adierazle egokien bidez”. Eta, era berean, adierazi du ez dagoela datu fidagarriak laguntza horien eragin ekonomiko zehatzari buruz, eta, antzeko inguruetan egindako azterketen arabera, aztertu behar dela 2014-2020rako landa-garapeneko programarako laguntza-sistema, etekinak handiagoak izan daitezen abeltzaintza-ustategiei dagokienez.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak proposatzen du 43. erregulazioaren ordezkari Urkiolako dokumentuan erabilitako idazkera jartzea.

Bestalde, Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrek proposatzen du honako hau sartzea 43. erregulazioaren lehen paragrafoan eta 50. erregulazioan: “...koordinatuta titular diren toki-erakundeek idatzita egon daitezkeen baso- eta larre-antolaketa-plangintza teknikoekin...”. Erakunde horrek 53., 61. eta 65. erregulazioez egindako alegazioak ildo berekoak dira.

43. erregulazioak ez du esaten nola egin behar den plangintza, ez eta dokumentu bakar batean egin behar den ere, edo batzuetan zenbait unitaterentzat; eta, dudarik gabe, ez da bateraezina plan hori titular diren toki-erakundeek idatzita egon daitezkeen baso- eta larre-antolaketa-plangintza teknikoekin koordinatzearekin. Baina gai horiek guztiak Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundien eskumena dira. Dokumentuak ez luke beteko eskumen-araubide aplikagarria, zeina 1/2014 Legegintza Dekretuan ezarrita baitago (apirilaren 15ekoa), kontserbazio bereziko eremuen eta hegaztientzako babes bereziko eremuen deklarazioa egiteko dekretuen edukiaz den bezainbatean, baldin eta eduki horiek alegazioen egileek proposatu bezala arautuko balitu; izan ere, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiei dagokie *kudeaketa-jarraibideak eta -jarduketak* onartzea, aipatu araudi horretan Natura 2000 Sareko eremuetarako xedatutako betekizunak betez.

Hala ere, eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailarekin eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundiekin egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, 50. erregulazioa kentzea erabaki da, bai eta 43. erregulazioa bestela idaztea ere, eta orain 18.a da, eta honela idatzita dago:

18 Babestutako eremu natural osoan, behar bezala antolatuta egongo da abeltzaintza-jarduera, *organo eskudunek idatzi eta onartutako antolaketa-plan tekniko egokien bidez. Larreak eta abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko inbertsio egokiak jasoko ditu, beharrezkoak direlako egungoazienda mantentzeko, eta zer baldintzatan gauzatu behar diren zehaztuko du.*

Era berean, Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorren alegazioari dagokionez, adierazi behar da 53. erregulazioa dokumentutik kendu dela jada, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, eta berriz adierazi dela 61. erregulazioa. Prozesu berean, bestela idatzi da 65. erregulazioa, eta honela idatzita geratu da 26. erregulazio moduan:

26. Narcissus minor-en populazioen bideragarritasuna arriskuan jar dezaketen nahitako jarduerak baztertuko dira.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak uste du kendu behar dela 45. erregulazioa, loturarik ez dagoelako erregistro bat abian jartzearen eta Batasunaren intereseko habitat eta larreetako eskakizun

ekologikoen artean. Gainera, 48., 49., 50., 54., 61., 62., 65., 70., 74. eta 75. erregulazioak kentzeko eskatu du, betiere larreak antolatzen planeari arautu beharko direlako.

Leintz-Gatzagako Udalak esan du 45. erregulazioaren erregistro hori jada Gipuzkoan egiten dela, “zerikusia duten administrazioek inguruko funtzionarioari horretarako aukera ematen dioten neurrian”. Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrek bezala, eskatu du kanpo-ongarritzeak aplikatzeari buruzko erregulazioa, 49.a, kentzeko, uste baitu ongarritze horiek mesede egiten diotela larreen kalitateari; 54. erregulazioa kentzeko ere eskatu du. 68. erregulazioaren babes-ingurua aztertzei eskatu du.

Arabako Foru Aldundiak eskatu du honako hau sartzeko 49. erregulazioan: “... kudeaketa-organoak aldeztu aurretik baimendu ezean”. 62. erregulazioa kentzeko ere bai, ez baitu larreen aldaketa- edo higadura-arazorik hauteman azaleko lurretan, eta horretan bat dator Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrekin.

Adierazten da 45., 54., 61., 62., 74. eta 75. erregulazioak kendu direla jada dokumentutik, eta 48., 49. eta 50. erregulazioak aldatu egin direla edo bat egin 21. erregulazioarekin; gainera, 69. eta 70. erregulazioak bat eginda geratu dira 30.enean, eta, azkenik, 65. eta 68. erregulazioak aldatu egin dira, eta orain, hurrenez hurren, 26.a eta 29.a dira, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, aurreko ataletan jaso den bezala.

Aipatu aldaketak honela idatzita geratu dira azkenean:

21. Onura publikoko mendietan, Habitaten Zuzendaritza jasotako larre- eta sasi-habitatetarako okupatzen dituzten eremu guztietan, larreak antolatzen plan teknikoaren arabera egingo dira jardun agronomikoko (ongarritzea, mediatzea, berrereintza, fitosanitarioak, herbizidak eta sasiak kentzea), edo, bestela, foru-organo eskudunak baimenduta eta larre-habitatentzat mantentze eta kontserbazioari lotuta.

26. Narcissus minor-en populazioen bideragarritasuna arriskuan jar dezaketen nahitako jarduerak baztertu dira.

29.-Eusko Jaurlaritzaren habitaten kartografian jasotako habitatei (EB kod. 7140 eta EB kod. 4020) eragin diezaiaketen turismo-, kirol- eta aisialdi-jarduerak antolatzei, baimena eman beharko du organo kudeatzaileak, zeinak, bere azterketan, honako hauek kontuan hartuko baititu: azaleko jariatze-uren norabidea eta drainatze naturalak, bai eta, hala egokituz gero, behar diren babes-perimetroak ere.

30. Onura publikoko mendietan, baldintzak eta abeltzaintza-zama aztertu ondoren arautuko da istingen eta berorien inguruaren kontserbazioa. Itxurak jarrituz gero, erakunde kudeatzailearen ardura izango da babes-hesiak egoera onean egotea, eta azterketan aska izan daitezkeen bermatzea. Istingetan eta erretako txilardi higroturbosoetan, babestutako eremu naturalaren organo kudeatzailearen baimena beharko da abeltzaintza-erabilera egiteko.

UAGAk proposatu du 46., 48., 49. eta 61. erregulazioek 47.enean erabilitako adierazpide bera izatea, azken horretan irekita geratzen delako jardun arautua kudeaketa-organoren iritziz, baldintzarik gabeko debekua plantatu beharrean.

Adierazten da 46., 48., 49. eta 61. erregulazioak bestela idatzi direla jada, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako

foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta. Era berean, eta aipatu ituntze-prozesu horretan oinarrituta, 46. erregulazioaren idazkera aldatzea erabaki da, eta orain honela idatzita dago 19. erregulazio moduan:

19. Onura publikoko mendietan, debekatuta dago belar-sastrakak garbitzea goi-mendiko ipurudi herrestariz eta Juniperus phoenicea espezieko miter iraunkorrez estalitako lekuetan, gunearen organo kudeatzaileak salbuespenezko kasuetan berariazko baimena eman ezean.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak 53. erregulazioa kentzea proposatu du, azienda % 50 gutxitzea eragingo duelako, eta larreak kudeatzeko kontratuak bertan behera uzteko ere eskatu du, landa-garapeneko programatik kendu direlako.

Leintz-Gatzagako Udalak eta Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrak, ordea, onuragarritzat jotzen dituzte 56. erregulazioko kontratuak, baina uste dute kendu behar dela nagusiki abeltzaintza aktiboan dihardutenen lehentasuna. Larreen erabileran arraza autoktonoek eta abeltzaintza ekologikoak duten lehentasuna kentzeko ere eskatu dute, eta galdetu ea konpentsaziorik aurreikusi den heskaiak jartzeko eta txabolak birgaitzeko.

UAGA bat dator 56. erregulazioan borondatezko akordioak sustatzeaz jasotako irizpidearekin; izan ere, haren arabera, biderik egokiena da jardun produktiboak ingurumen-mugaketetara egokitzeko.

Alegazioen egile batzuek diote erregulazioek kalte ekonomikoak eragingo dituztela, baina ez dituzte dokumentatzen, oinarritzen edo zehazten.

Azalpen gehiagorik gabe adierazten da 53. erregulazioak berekin ekar dezakeela azienda % 50 gutxitzea. Alegazioaren egileak ez du adierazten nola atera duen ondorio hori, ez eta zer datutan oinarritzen den ere. Esan behar da Aizkorri-Arazko abeltzainek nekazaritza- eta ingurumen-laguntza jasotzen dutela mendiko larreak mantentzeagatik, eta laguntza hori larreek hartzen duten eremuaren arabera konputatzen dela, eta proportzionalki banatzen abeltzain bakoitzaren azienda-buruen kopuruaren arabera, betiere hektareako 1 UGM gainditu gabe, hori eskatzen baita nekazaritza- eta ingurumen-laguntzen programan sartzeko. Dokumentuak dio larreak kontserbazio-egoera onean daudela. Hortaz, aipatu karga hori gaur egungoa da, eta, horregatik, ez du ematen justifikatzen denik alegazioaren egileak, erregulazio hau aplikatzearen ondorioz, aipatzen duen aziendak behera egiteko arriskua, erregulazioak prebentzio moduan finkatu baino ez baitu egiten oraingo egoera, zeinean funtzionamendua ona dela ematen baitu, larreak kontserbazio-egoera onean izatearen ikuspuntutik. Eta, nolanahi ere, erregulazioak esaten du egungo egoera prebentzio moduan mantendu behar dela, harik eta larreen plana egin arte, plan horrek zehaztu beharko baitu karga egokia.

Nolanahi ere, esan behar da 53. erregulazioa dokumentutik kendu dela, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta.

56. erregulazioak honako hau dio: “Ingurumen-kontratuak edo borondatezko bestelako akordioak sinatzea sustatuko da, larre- eta txilardi-mosaikoa kontserbazio-egoera onean mantentzeko eta, era berean, abeltzaintza estentsiboak eragiten dituen ingurumen-arloko kanpo-efektu onuragarriak saritzeko. Kontratuak lehentasunezkoak izango dira abeltzainek jarduera nagusi moduan kudeatzen dituzten ustategien kasurako.” Ez dagokio dokumentu honi zehaztea zer jarduketa garatu beharko dituzten kontratu horiek. Jarduera nagusia abeltzaintza dutenentzako lehentasunari dagokionez, badirudi logikoa dela, abeltzain guztiekin kontratuak izenpetzeko baliabiderik egon ezean, lehentasuna

ematea abeltzaintza bizibide dutenei, eta, horrenbestez, ziurtatzea, alde batetik, sortzen dituzten ingurumen-onurak emango dituztela, eta, bestetik, nekazaritza-jarduera eta enplegua mantenduko direla, horrek, dudarik gabe, onura sozialak eta ekonomikoak izango baititu udalerri osoan, zeharkakoak bezala eragindakoak ere. Nolanahi ere, esan behar da 56. erregulazioa aldatu egin dela alegazioaren egileak esandakoaren ildotik, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta.

Arraza autoktonoak sustatzearen aldeko erregulazioa, 57.a, eta heskai biziak sortzea bultzatzeari buruzkoa, 99.a, kendu dira jada dokumentutik, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta.

Nolanahi ere, esan behar da 99. erregulazioak ez zuela behartzen heskaiak sortzera, ardura duen administrazioa haien sorrera sustatzera baizik. Horretarako, borondatezko kontratu-neurriak erabili ohi dira, neurriaren ondorio izan litezkeen lortu gabeko irabazia eta gainkostuak konpentsatzeko.

Azkenik, zenbait erregulazio aplikatzearen ondorioz izango liratekeen kalte ekonomikoei dagokienez, horixe gertatuko dela baitiote alegazioen egile batzuek, beroriek diotena gehiago zehaztu ezean, gogorarazi behar da konpentsazio ekonomikoak ezin direla orokorrean erabaki; aitzitik, dokumentuan jasotako neurri zehatzei lotuta egon behar dute. Hala ere, aplikagarria den eskumen-araubidean oinarrituta, zeina 1/2014 Legegintza Dekretuan ezarrita baitago (apirilaren 15ekoa), kontserbazio bereziko eremuen deklarazioa egiteko dekretuen edukiaz den bezainbatean, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiei dagokie *kudeaketa-jarraibideak eta -jarduketak* onartzea, araudi horretan Natura 2000 Sareko eremuetarako xedatutako betekizunak betez. Hortaz, Aizkorri-Arazko natura-parkerako eta kontserbazio bereziko eremurako kudeaketa-jarraibideen eta -jarduketen dokumentuan kontuan hartu beharko litzateke alegatutako alderdia, bai eta zehaztu ere egokia den konpentsazio-araubidea izatea.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak proposatzen du 47. erregulazioaren ordez honako hau idaztea: "Mendiei buruzko Foru Arauen arabera erabiliko da sua". Eta Arabako Foru Aldundiak, berriz, honako hau idaztea: "Debekatuta dago sua erabiltzea sastrakak kontrolatzeko, kudeaketa-organoak aurretiaz baimena eman ezean".

Leintz-Gatzagako Udalak dio ez dela debekatu behar baso-hondarrak kentzeko.

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailarekin eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundiekin egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, 47. erregulazioaren idazkera aldatu egin da, eta honela gelditu:

20. Foru-organoak baimena eman ezean, debekatuta dago sua erabiltzea sasiak kontrolatzeko metodo moduan. Organo horrek baimena eman ahal izango du lotura izanez gero larre-habitatak mantendu eta kontserbatzearekin.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak eskatu du dokumentutik 104. erregulazioa kentzeko, eta adierazi du txabolak erabiltzeko baldintzak txabolen jabe diren erakundeei dagozkiela, eta ez daudela behartuta jabeak zigortzeko araubide bat ezartzera.

Txabolak ondo mantentzea ezinbestekoa da kontserbazio bereziko eremuan dauden kiroptero jakin batzuk kontserbazio-egoera onean izateko.

104. erregulazioak ez du urratu edo aldatu nahi erabakitako eskumen-banaketa, baina dokumentuaren xedea eta betebeharra da zehaztea zer jarraibide eta arau kontuan hartu behar diren politika sektorialetan lekua Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea eragin duten elementuen kontserbazio egokia mantentzeko, beste erakunde batzuek esleituta dauzkaten eskumenak errespetatuta betiere.

Nolanahi ere, adierazten da 104. erregulazioa dokumentutik kendu dela, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta..

2.2.8 Ehiza- eta arrantza-jarduera

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan, adostasunez erabaki da ehiza sartzea Aizkorri-Arazko jarduera ekonomiko bereizgarrienen artean.

Ildo horretatik aldatu da 1. ataleko 7. paragrafoa, eta honela geratu idatzita:

"Abeltzaintza estentsiboa, egurra ateratzea, ehiza eta naturako turismoa dira eremuko jarduera ekonomiko bereizgarrienak,"

EAEko Ehiza Federazioa ohartu da komunitate harkaitzarrei buruzko kapituluan, 5.4.enean, "tranpak, pozoiak erabiliz harrapatzea eta isileko ehiza" presio eta mehatxu gisa identifikatzen direla.

Era berean, esan du adierazten dela ehiza-jarduera eta ehiztarien metaketa handia presio nabarmenak direla kontserbazio bereziko eremuko espezieentzat. Baina esan du ehiza-postuetan sarrera ordenatua dela, ez dela masiboa, eta ez dela daturik, erreferentzia bibliografikorik edo azterketarik aurkeztu aipatu presioak izan direla frogatzeko; horregatik, aipamen hori kentzeko eskatu du. Eta, era berean, eskatu dute aitortzeko ehiza-jarduera dela kontserbazio bereziko eremuetan espezie horien kontserbazio-egoeran eragina izan dezaketen faktoreetako bat, bereziki ehiztarien eta ibilgailuen emanaren ondorioz.

Presioei eta arriskuei dagokienez, esan behar da erreferentziazko zerrenda batetik aukeratzen direla. Zerrenda hori kodifikatuta dago, eta Europar Batasun osoan erabiltzen da, eraginak eta jarduerak jakinarazteko, Habitategi buruzko Zuzentarauaren 17. artikuluan aurreikusitako kontrol- eta jarraipen-txostenetan. Zerrenda hierarkizatua da, eta oinarri du Europako Batzordeak Natura 2000ri buruzko formulario eta txostenetarako egokitutako sailkapen bat: Salafsky et al. (IUCN, 2007). Lekuaren kontserbazio-egoeran eragin onuragarria edo kaltegarria izan dezaketen giza jarduera eta prozesu natural guztiak sartzen dira.

Eragina kaltegarria izan daiteke leku bateko habitat edo espeziearentzat, eta onuragarria beste batekoarentzat. Horregatik, berariaz identifikatzen dira kudeaketaren xede direnen multzo bakoitzerako. Ulertzen da baldintzen atalean azaldutakoa laburtzeko modu estandarizatu eta konparagarria dela, eta bertan ezin dela zerrenda ofizialarekiko aldatetarik egin. Tranpekin ehizatzea eta pozoia erabiltzea ez dira lotzen ehiza-jarduerarekin EAEan,

eta dokumentuan ezerk ez dio hala denik. Kodifikatutako F03.02.03 jarduerak horrela adierazten du aldatzeko aukerarik gabe. Horregatik mantentzen da presioen eta arriskuen zerrendan.

Egiaztatuta dago azken urteetan eta Aizkorri inguruan inkubatzeko plaka zuen sai zuri eme bat hil dela pozoituta. Eskualdean espezie horren populazioa txikia denez, eta kontuan hartzen badugu Gipuzkoan sai zuriak ugaltzeko zenbat bikote dauden, aurreko gertaera horrek ugaltzeko populazioaren ia % 10i eragin zion, eta hori beherakada larria da Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunaren irizpideen arabera. Era berean, egiaztatuta dago tirokatuta hil dutela arrano arrantzale bat Aizkorritik hurbil.

Euskadiko Ehiza Federazioak eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak eskatu dute 51. erregulazioan debekatuta ez egoteko ehiza-garaian ehiztarien ibilgailuak igarotzea ehiza larriko uxaldietan, bai eta salbuespenetzko izaera kentzeko ere, eta betiere hori araututa egotea Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiek uxaldiak egiteko ematen dituzten baimenen bidez.

Oñatiko Udalak, 2014ko abenduaren 18an partaidetza-prozesuaren ondoren egin zuen bezala, ibilgailuen kontrolari buruzko erregulazioetatik, 51.enetik eta 52. enetik, azken esaldia kentzeko eskatu du, bertan zehazten baita abeltzaintzat larreen aprobetxamendu-aldian soilik izan behar duela.

Arabako Foru Aldundiaren ustez, erregulazio hori gehiegikeria bat da, ibilgailu motordunak kontserbazio bereziko eremuko pista eta bideetatik ibiltzeak ez duelako lotura zuzenik Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuko kontserbazio-helburuekin, eta, zehazki, mendi-larreenen kudeaketarekin; izan ere, azken horiei, bai, eragin diezaieke landan zehar zirkulatzeak. Horregatik, 51. eta 52. erregulazioak kentzeko eskatu du.

Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrak gogorarazi du badagoela horri buruzko araudi bat, eta hori jasotzeko idazketa proposatu du.

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, dokumentutik 51. eta 52. erregulazioak kentzea erabaki da.

EAEko Ehiza Federazioak eskatu du ehiza-jarduerak kalte egiten dien baso-espezieen habiak egiten direla egiaztatu den inguruetan baino ez aplikatzeko 27. erregulazioa.

Adierazten da 27. erregulazioa dokumentutik kendu dela jada, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egindako ituntze-prozesuan oinarrituta.

2.2.9 Beste kudeaketa-gai batzuk

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan, adostasunez erabaki da 2., 4., 7., 10. eta 13. paragrafoak aldatzea eta 5., 8., 9. eta 11. paragrafoak kentzea komunitate harkaitzarren kontserbazio-egoeraren baldintzei buruzko atalean.

Eusko Jaurilaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, 2., 4., 7., 10. eta 13. paragrafoak aldatzea erabaki da, bai eta 5., 8., 9. eta 11. paragrafoak kentzea ere komunitate harkaiztarren kontserbazio-egoeraren baldintzei buruzko atalean, eta honela idatzita geratu dira:

2. paragrafoa:

"Betetzen duten habitataren egiturak berak berekin dakar flora-espezie gehienak motel haztea, oso hauskorrak izatea, eta bakartze-maila handia izatea, ale gutxiko populazio gutxirekin, eta, horrenbestez, zailagoa izatea lehengoratztea. Bestalde, hegaztiei asko eragiten diete molestiek, eta beren inguruak utzi ere egiten dituzte molestatuz gero. Espezie horiek egoten diren habitatak normalean leku helezinak edo jarduerak aire zabalean egiteko desegokiak izan arren, ez dago informaziorik jolas-jarduera horiek egiten diren maiztasunari, aldiei eta gune zehatzei buruz, eta, horregatik, ezin da zehaztu zer-nolako eragina izan dezaketen jarduera horiek harkaitzen eta kontserbaziorako interesekoak diren harkaitzotako espezieen kontserbazio-egoeran."

4. paragrafoa:

"Estrategiak proposatzen du espezieak dituen arriskuak eta berezkoak ez diren hiltze-faktoreak prebenitzea eta zuzentzea, bai eta ugatzak koloniza daitezkeen inguruetara berez edo artifizialki hedatzen laguntzea ere, habitataren bideragarritasuna aztertu eta espeziean eragin kaltegarria izan dezaketen kausak aldatu ondoren."

7. paragrafoa (orain 6.a):

"Esan behar da ezen, espezie nekrofago horiek erabiltzeko, nahitaezkoa dela espezie horiek babestearekin bateragarria den abeltzaintza estentsiboa izatea, eta, horregatik, onuragarritzat jotzen da Administrazioak gaur egun sustatzen duen politika; hau da, abeltzaintza estentsiboaren alde egitea, hondakindegia gehiago jarri beharrean, beste zenbait ingurumen-onurarekin batera, bateragarria izan dadin espezie horien babesarekin."

10. paragrafoa (orain 7.a):

"Flora harkaiztarreko espezieentzako arrisku handienetako batzuk aldaketa globalaren ondoriozkoak dira, baina faktore hori kontserbazio bereziko eremu honen kudeaketatik kanpo dago, espezie horien populazio-gune gehienak dauden lekuak iristeko zailak direlako, eta zuzeneko edozein giza eraginetik babestuta. Gaur egun, ez da arrisku zuzenik ikusten flora harkaiztarrerako, baina, ahula denez, jarraipena egin behar da."

13. paragrafoa (orain 9.a):

"Aizkorri Mendiaren izaera karstikoa dela eta, zirkulazio hidrikoa, funtsean, lurpekoa da, eta zenbait iturbururen bitartez azaleratzen da. Iturburu horiek, Urkuluko urtegiaz gain, bestelako hartuneak ere hornitzen dituzte giza kontsumorako. Eremu karstikoan egiten den isuri oro zuzenean barneratzen da eta lurpeko urei eragiten die, bai eta koben nahiz leizeen kalitateari ere, espezie troglobioen habitat gisara. Horrelako akuifero karstikoetan auto-arazketa prozesuak kutsagarrien diluzioa baizik ez dira izaten ia. . Akuiferoak deskutsatzea oso geldoa izan daiteke, are itzulezina ere, kutsagarria zein den."

Eusko Jaurilaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak dio 103. erregulazioak berekin ekar dezakeela Arrikrutzeko kobak ixtea, kiropteroen aterpea dagoelako.

Oñatiko Udalak, lehenago, 2014ko abenduaren 18an, partaidetza-prozesuaren ondoren egin zuen bezala, eskatu du honako hau sartzeko 104. erregulazioan, hau da, kiropteroak dituzten txabolen erabilera kiropteroak mantentzearen baldintzapean jartzeari buruzko erregulazioan: *"Kiropteroarik dagoen erabakitzeko, kudeaketa-organoak kiropteroen inbentarioa egingo du. Inbentario hori kasuan kasuko obra-lizentzia emateko eskumena duten udalen eskura jarriko da."*

Leintz-Gatzagako Udalaren ustez, ez da lehentasunezkoa kiroptero-populazioak babestea artzaintza tradizionalaren beharren aurretik.

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, lehenik erabaki da beste erregulazio bat txertatzea, 50. zenbakiarekin, koherentzia eman diezaion, 5.3 helburu operatiboa betetzea kontuan hartuta, epigrafe horretan zehaztutako erregulazioen multzoari.

50. Organo kudeatzaileak kiropteroen aterpe nagusiak identifikatuko ditu, EAEko kiroptero harpetarrak kudeatzeko plan bateratuaz den bezainbatean.

Kudeaketa-organoak kiropteroarik ote dagoen erabakitzeko inbentarioa egiteko eskakizunari dagokionez, esan behar da ezen, 50. erregulazio berria gorabehera, eta errespetatuz babestutako eremu naturalei dagokienez aplikagarria den eskumen-araubidea, zeina jasota baitago Autonomia Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko Harremanei buruzko Legean (azaroaren 25eko 2/1983) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Dekretuan (apirilaren 15eko 1/2014), Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiei legokiekeela dokumentu honetan jasotako helburuak lortzeari dagokionez egokitzen dituzten neurriak zehaztea eta onartzea, zeinen artean alegazioaren egileak eskatutako inbentarioak egitea egongo bailitzateke.

Ondoren, bestela adierazten da 103. erregulazioa, eta honela idatzita geratzen da:

52. Debekatuta dago kiroptero-populazioak nahasten dituzten turismo-, kirol- eta aisialdi-jarduerak antolatzea aurkitutako aterpe nagusien 100 metroko perimetroan, organo kudeatzaileak baimena eman ezean.

Oñatiko Udalak egindako alegazioari dagokionez, esan behar da partaidetza-prozesuaren ondoren 2015eko urtarrilaren 8an Seguran egindako itzultze-saioan azaldu zela nola gehitu ziren dokumentuan prozesuan zehar egindako ekarpenak. Ekarpenak jaso ez ziren salbuespenezko kasuei dagokienez, ez jasotzeko arrazoiak azaldu ziren, aurretik hartutako konpromisoa kontuan izanda, eta idatzizko alegazioak Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren Legean (abenduaren 22ko 8/2003) araututako jendaurreko informazio-fasean aurkeztea gomendatu zen, hori nola egin azaltzeaz gain.

Aurkeztutako alegazioaren kasuan, esan behar da bere garaian adierazi zela Oñatiko Udalak egindako proposamena dokumentuan bildutako beste jarduketa batzuetan sartuta zegoela. Nolanahi ere, esan behar da 104. erregulazioa dokumentutik kendu dela, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako

Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta:

Hala ere, eta Oñatiko Udalak alegatutako alderdiari dagokionez, esan behar da honako hau adierazten dela Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko informazio ekologikoari, kontserbazio-helburuei, kontserbaziorako arauetara eta jarraipen-programari buruzko dokumentuaren 96. erregulazioan (orain 47.a).

47. Kontserbatu beharreko objektuen jarraipen- eta inbentariatzeko-lanetan biltzen den informazioa beste eremu batzuetako ikerlari eta kudeatzaileen eskura jarriko da; zehazki, udan Aizkorri-Aratzen dauden espezieen negualdiko aterpeak egon litezkeen eremuetako ikerlari eta kudeatzaileen eskura.

Leintz-Gatzagago Udalaren iritzia dagokionez, gogorarazi behar diogu ez dela hautazkoa kontserbazio bereziko eremuetan dauden 17 kiroptero-espezieen kontserbazioa, Batasuneko, Estatuko eta EAEko legeen ondoriozko betebeharrak sailhestezina baizik. Eta, gainera, kontserbazio hori guztiz bateragarria dela artzaintza tradizionala mantentzearekin.

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan, adostasunez erabaki da florari buruzko atalean, 3.2.ean, azkenaren paragrafoa aldatzea.

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, florari buruzko atalean, 3.2.ean, azken paragrafoa aldatzea erabaki da, eta honela idatzita geratu da:

Mendiko larreetako floraren aberastasunak eta dibertsitateak ezinbesteko lotura du hazten den ingurune naturalak eta erdinaturalak osatzen, mantentzen eta babesten dituzten artzaintza-erabilera eta -ohiturekin.
Hartara, mendiko larreei lotuta..."

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan, adostasunez erabaki da faunari buruzko atalean, 3.3.ean, seigarren paragrafoa aldatzea.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, faunari buruzko atalean, 3.3.ean, seigarren paragrafoa aldatzea erabaki da, eta honela idatzita geratu da:

"Ondoren, Aizkorri-Aratzko faunaren azterketa aurkeztu da, fauna-taldea banatuta: "

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan, adostasunez erabaki da faunari buruzko atalean, 3.3.ean, 14. paragrafoa aldatzea.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, faunari buruzko atalean, 3.3.ean, 14. paragrafoa aldatzea erabaki da, eta honela idatzita geratu da:

*"Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuan askotariko inguruneak daude, hala nola harkaitz zabalak eta paretak, zeinek larreen, sastraken eta basoen mosaikoa aberasten baitute, bai eta Urkuluko urtegia eta aldameneko landazabala ere, eta, horregatik, bertako hegaztien komunitatea zabala eta aberatsa da; **adibidez, harrapari harkaitzarrena.***

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan, adostasunez erabaki da dokumentutik 44., 108. eta 111. erregulazioak kentzea, eta 3., 71., 77., 85., 100., 109. eta 110. erregulazioak bestela adieraztea.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, 44., 108., 109. eta 111. erregulazioak kentzea erabaki da, eta 3., 71., 77., 85., 100., 109. eta 110. erregulazioak bestela adierazi eta honela idatzita uztea:

3. erregulazioa aldatu egiten da, orain 2.a bihurtuta:

2. Interes ekologikoko zuhaitzen iraunkortasuna sustatuko da, eta zuhaitz horien aukeraketa ezaugarri hauek kontuan hartuta egingo da:

- Zirkunferentzia handia izate espezie bereko beste batzuekin alderatuta.
- Aleek egitura- eta osaera-ezaugarri bereziak izatea.
- Barrunbe garrantzitsuak enborrean edo enborra zulatze-egoera aurreratua egotea.
- Goialdean hildako egur kantitate handia izatea.
- Ura pilatzen den zulo naturalak edukitzea.
- Zulo zaharrak egotea.
- Enborrean kalte fisikoak izatea.
- Azala galtzea.
- Izerdia botatzeko kanalak edukitzea.
- Pitzadurak azalean, adarren azpian edo enborraren oinarrian.
- Onddoen gorputz fruitutsuak izatea.
- Lotutako fauna espezie asko edukitzea.
- Landare epifiten presentzia (iratzeak, goroldioak, likenak).
- Zuhaitz zahar itxura.
- Lepatuta egotea edo iraganean erabili izanaren seinaleak izatea.
- Balio kulturala edo historikoa izatea.
- Paisaia leku nagusi bat izatea, interes estetiko handikoa.

71. erregulazioa aldatu egiten da, orain 31.a bihurtuta:

31 Oro har, beste edozein jarduketa galaraziko da, baldin eta eremua txikiagotzen badu, edo habitat higroturbosoen kontserbazio-egoera edo berorien kontserbazioa baldintzatzen duten baldintza fisiko-kimikoak nahiz ingurumen-arlokoak ezabatu, aldatu edo andeatzen baditu. Eragin hori izan dezakeen edozein jarduera aurrez aztertuko da, eta, hala egokituz gero, berariazko baimena eman beharko du organo kudeatzaileak.

77. erregulazioa aldatu egiten da, orain 35.a bihurtuta:

35. Landa-lanerako teknikariak prestatuko dira, habitat higroturbosoen presentzia posiblea hauteman dezaten, eta landa-lanak egungo inbentarioak hobetzeko baliatuko dira. Hautemandako lekuneak adituek berretsi beharko dituzte.

85. erregulazioa aldatu egiten da, orain 41.a bihurtuta:

41. Ingurumen horietan gai biologikoak eta geologikoak biltzea, helburu zientifikoak edo apaintzekoak dituztenak barne, babestutako eremu naturalaren kudeaketa-administrazioaren aurretiazko baimena ~~izan~~ ezean-premiazkoa izanda.

100. erregulazioa aldatu egiten da, orain 49.a bihurtuta:

49. Landazabal atlantikoan tipikoak diren egiturazko elementuak mantentzea sustatuko da, hala nola heskaiak, landa-itxiturak, hormatxoak, zuhaiztiak eta abar, bai eta iturburu-larreak edo putzuz bete daitezkeen guneak ere.

110. erregulazioa aldatu egiten da, orain 55.a bihurtuta:

55. Koloniak edo aterpeak aurkitzen badira sarbide errazeko lekuetan, prebentzio-neurri egokiak hartuko dira, leku horietan bandalismorik ez izateko.

Arabako Foru Aldundiak dio 5.1 atalean etorkizunari buruz dagoen paragrafoaren idazkerak ez dituela kontuan hartzen tokiko biztanleentzako ondorio sozioekonomikoak, ez eta historian zehar eskua sartu izan den ingurune honetan berezkoak diren dinamikak ere.

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, pagadieiei eta hariztiei buruzko atalean, 5.1.ean, azken paragrafoa ordeztzea erabaki da, eta honela idatzita geratu da:

"Kontserbazio bereziko eremuko baso-masetan, biodibertsitatearen kontserbazioa kontserbazio aktiboaren ikuspegitik egin behar da, baso-kudeaketa jasangarriaren barruan, mendien funtzioak bete eta susta ditzan (ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak). Alde horretatik, dokumentu honetan kudeaketaren xede den zer bakoitzerako jasotako arauak eredu jasangarri eta funtzio anitzeko batetik planteatu behar dira."

Arabako Foru Aldundiak adierazi du ezen, 72. erregulazioaren arabera egin behar den txostenari dagokionez, Uren Legea eta Jabari Publiko Hidraulikoari buruzko Erregelamendua kontuan hartu beharko direla, bai eta emakida

berrietarako baldintzak ezartzen dituzten plan hidrologikoak ere. Gainera, txostena nork edo zeinek egin behar duen zehazteko eskatu du: eskatzaileak ala kudeaketa-organoak.

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, 72. erregulazioa hasieran idatzita zegoen bezala uztea erabaki da, txostenak habitat higroturbosoei buruzkoa izan behar duela gehituta.

Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrek eskatu du onartzeko babestutako eremu naturaleko baso naturalen eta erdinaturalen eraldaketa, berekin badakar eremua txikitzea eta kontserbazio-egoera txartzea, bai eta larreek eta sastrakek betetako lurretan herbizidak eta fitosanitarioak erabiltzeko ere, hori erakunde titularrak onartutako planetan jasota egonez gero.

Eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, baso naturalei eta erdinaturalari buruzko erregulazioak, 5.a eta 7.a, kentzea erabaki da, eta 8.a Partzuergoak proposatu bezala aldatzea, bai eta 48. erregulazioa ere, zeina orain 21. zenbakiarekin idatzita geratu baita.

Oñatiko Udalak esan du ezen, energia, fluidoak, telekomunikazio-seinaleak eta antzekoak garraiatzeko airetiko azpiegitura berriak jartzeko debekuari buruzko erregulazioan, 83.enean, salbuespen bat sartu behar dela, azpiegitura horiek jarri ahal izateko onura publikoa ekarri gero, edo interes soziala izanez gero.

Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrek proposatu du 83. erregulazioa bestela idaztea, airetiko azpiegiturak jartzea baldintzatzeko, edo azpiegituren eragina bateragarria izateko arriskuan dauden espezie harkaiztarrekin.

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailarekin eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundiekin egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, 83. erregulazioa kendu da.

70. eta 74. erregulazioen arabera, istingetan itxiturak ezartzeko derrigorrezkotasuna argitzeko eskatu du Arabako Foru Aldundiak. Partzuergoak proposatu du ixte- eta mantentze-lanak kudeaketa-organoaren ardura izatea.

Artzaintzaren debekuak jabetza pribatuari ere eragiten dion argitzeko eskatu du Arabako Foru Aldundiak.

Adierazten da 70. eta 74. erregulazioak berriz adierazi direla jada, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, eta orain 30. erregulazio moduan geratu direla.

30. Onura publikoko mendietan, baldintzak eta abeltzaintza-zama aztertu ondoren arautuko da istingen eta berorien inguruaren kontserbazioa. Itxiturak jarri gero, erakunde kudeatzailearen ardura izango da babes-

hesiak egoera onean egotea, eta aziendarentzat aska izan daitezen bermatzea. Istingetan eta erretako txilardi higroturbosoetan, babestutako eremu naturalaren organo kudeatzailearen baimena beharko da abeltzaintza-erabilera egiteko.

Arabako Foru Aldundiak proposatu du 78. erregulazioa kentzea edo adiera bakarrez zehaztea, irizpide zehatza izan ahal izateko, orokorregizat eta zehaztugabetzat jotzen duelako.

Nolanahi ere, adierazten da 78. erregulazioa bestela idatzi dela jada Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta.

Arabako Foru Aldundiaren ustez, 79. erregulazioak Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Plana erreferentziazat hartzen du, baina intereseko hegazti harkaiztiar guztiak ez dira nekrofagoak. Gainera, uste du "mota guztietako jarduerak" aipatzea orokorregia eta zehaztugabea dela, kontuan hartu ahal izanik, behintzat, kudeaketa-organismoak baimendutakoak.

Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorra bat dator Arabako Foru Aldundiaren alegazioaren bigarren zati horrekin, eta, gainera, proposatzen du Euskal Autonomia Erkidegoan Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planari buruzko aipamenaren ordez beste orokorrago bat izatea, hegazti harkaiztiarren bizi-zikloko aldi kritikoei buruz.

Adierazten da 79. erregulazioa berriz adierazi dela jada, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, eta aipatutako alegazioen ildotik.

Arabako Foru Aldundiak esan du ezen, 80. erregulazioan egiten den bezala, hegazti harkaiztarren habien inguruan debeku erradialak ezartzeak ez duela zentzurik gehienetan, kontuan hartuta habiak horma batean daudela, eta, beraz, horma horren aurrean dauden lurretan egiten diren jarduketek soilik izango dituztela ondorio kaltegarriak, eta hormaren aurkako aldean egiten direnen eragina txikiagoa izango dela, are askotan hutsaren parekoa ere. Gainera, uste du "edozein jarduera" aipatzea orokorregia eta zehaztugabea dela, kontuan hartu ahal izanik, behintzat, kudeaketa-organismoak baimendutakoak.

Nolanahi ere, adierazten da 79. erregulazioa dokumentutik kendu dela jada Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta.

Arabako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrak uste dute gehiegizkoa dela 84. erregulazioa, pista eta bidexka berriak aldi kritikoetatik kanpo egin daitezkeelako, eragin kaltegarria izan gabe espezie harkaiztarretan; eta gauza bera esan daiteke pista eta bidexka horien erabileraz.

Adierazten da 83. eta 84. erregulazioak berriz adierazi direla jada Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, eta orain 40. erregulazioan bateratu direla.

40. Ez da irekiko pista edo bidexka berririk ingurune harkaiztarretan. Justifikatuta egonez gero, babestutako eremu naturalaren organo kudeatzaileak horrelako jarduerak baimen litzake.

Arabako Foru Aldundiak esaten du 87. erregulazioak lehendik badagoen araudi bat aipatzen duela, eta, horrenbestez, ez duela erregulazio berririk gehitzen.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, dokumentutik 87. erregulazioa kentzea erabaki da.

Onddoak, basoko fruituak eta abar ere material biologikoa direla zehaztu du Arabako Foru Aldundiak.

Izan ere, alegazioaren egileak dioten bezala, basoko fruituak eta onddoak ere gai biologikoa dira; horregatik, alegazioaren egileak gehiago zehaztu ezean, ulertzen da argi idatzita dagoela alegatutako erregulazioa, eta fruituak eta onddoak biltzea debekatzen dela hain eremu txiki eta edozerengatik kaltebera diren horietan.

Arabako Foru Aldundiak galdetu du turismo-, kirol- eta aisialdi-jardueretan soilik den aplikagarria 86. erregulazioa.

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, dokumentutik 87. erregulazioa kentzea erabaki da.

Arabako Foru Aldundiak 95. erregulazioan aldaketa bat egitea proposatu du, kiropteroak markatu ahal izateko kontserbazio-helburuekin.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, 95. erregulazioa bestela idaztea erabaki da, eta emaitza, orain 46. erregulazioa, honako hau izatea:

95. 54. Ziurtatuko da kiropteroen jarraipenak egiteko teknikek ez dutela berekin ekarriko animaliak harrapatzea eta erabiltzea, irizpide tekniko eta zientifikoekin justifikatutako eta kudeaketa-organoak aurrez baimendutako salbuespenetan izan ezean.

Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrak proposatu du bestela idaztea 103. erregulazioa, araua jarduera “berrietara” muga dezan, eta zehaztu dezan aplikagarria izango dela jarduerok kiroptero-populazioetan arazoak sortuz gero.

Adierazten da 103. erregulazioa bestela idatzi dela jada Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, eta orain 52. erregulazio moduan geratu dela.

52. Debeztatuta dago kiroptero-populazioak nahasten dituzten turismo-, kirol- eta aisialdi-jarduerak antolatzea aurkitutako aterpe nagusien 100 metroko perimetroan, organo kudeatzaileak baimena eman ezean.

Arabako Foru Aldundiak 104. erregulazioan aldaketa bat egitea proposatzen du, zehatzago adierazteko zer txabolatan dauzkan aplikazioak eta zer-nolako zigorrei buruz ari den.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, dokumentutik 104. erregulazioa kentzea erabaki da.

Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorrak 112. erregulazioa bestela idaztea proposatu du.

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, dokumentutik 112. erregulazioa kentzea erabaki da.

UAGAk esan du 7.6 ataleko taulak ia-ia zurian argitaratzen direla, eta, horregatik, berez ezinezkoa dela horri buruzko alegaziorik egitea.

7.6 ataleko taula dokumentuan kontserbazio-xede bakoitzerako azkenean banatuta geratzen diren erregulazioekin betetzen da, eta, horregatik, ez dute ezer gehiago eranstean erregulazioen atalak daukan gainerako edukiarekin alderatuta. Normalean, dokumentua behin betiko onartzeari begira betetzen da, erregulazioek behin betiko zenbakiak izan ondoren.

2.2.10 Garrantzi ekonomikoa

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Natura Ingurunearen Zuzendariordetza Nagusiak proposatzen du kapitulu espezifiko bat sartzea “informazio ekologikoari, kontserbazio-helburuei eta jarraipen-programari buruzko dokumentuan”, kontserbazio-neurrien ebaluazio ekonomikoa jasotzeko, Espainiako Natura 2000 Sareko Kontserbazio Jarraibideetan adierazitakoarekin bat etorrira.

Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrak eta UAGAk berriro nabarmendu dute Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legearen 38. artikulua dioena (abenduaren 13ko 42/2007), hau da, dokumentuarekin batera memoria ekonomikoa aurkeztu behar dela, eta konpentsazioak zehaztu behar direla. UAGAk, zehazki, 59., 60. eta 63. erregulazioen mugaketengatik eta gainkostuengatik izan beharko liratekeen konpentsazioak aipatu ditu, baina ez ditu dokumentatzen edo oinarritzen.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak, gainera, esan du neurri batzuk betetzeak kostu gehigarria izan dezakeela, edo diru-sarrerak galtzea ekar dezakeela jarduera sektorialetan, eta, horregatik, balioztatu behar direla eta memoria ekonomikoan jaso kontserbazio-neurriak betetzeak jarduera sektorialetan eragin ditzakeen kostuak.

Leintz-Gatzagako, Eskoriatzako, Zegamako eta Aretxabaletako udalek eskatu dute plan bat prestatzeko, honako hauek lortzeko: kontserbazio bereziko eremua ezartzeak dituen ondorioak eta eragiten dituen balio-galerak balioztatzeko modua bermatzea; konpentsazioak kalkulatzeko modua bermatzea jabetza pribatuko lurren kasuetan, eta konpentsazio horiek gauzatzeko behar adina partida ekonomiko bermatzea.

Baskegur Elkartek eta Gipuzkoako Baso Elkartek esan dute mendien, aprobetxamenduen eta eraldaketa-katearen kudeaketa publiko eta pribatuan ezartzen diren erregulazio mugatzaileen eragin sozioekonomikoari buruzko txostena egin behar dela.

Juan Jose Murgiondok eskatu du berari jakinarazteko zer irizpide erabiliko diren dokumentuan jasotako neurrien aplikazioak eragindako kalteen zenbatespenean. Era berean, dagozkion konpentsazioak jasotzeko erabili behar dituen prozedurei buruzko informazioa eskatu du.

Gainera, eskatu du kontuan hartzeko neurriak aplikatzeko eskura duden baliabideak, eta, era berean, kontuan hartzeko Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuaren kudeaketa-organoak erabakitakoak, bai eta Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuaren izendapena atzeratzeko ere, ondorioen konpentsaziorako eta neurri zuzentzaileetarako baliabide ekonomikoak zehaztu bitartean.

Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartek eskatu du, natura-baliabideen kontserbazio eta erabilera publikorako erabakitako neurrien ondorioz, garatzen diren erabileretako galerak eta mugaketak konpentsatzeko sistema bat ezartzeko, kalte-ordainak, laguntzak eta beste neurri batzuk erabiliz, kudeaketa-neurriei eta -jarraibideei buruzko dokumentuan zehaztutako irizpideak eta helburuak kontuan hartuta, eta betiere Aizkorri-Arazko erabiltzaileekin hitzartuta.

Izan ere, Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremurako araudia ezartzen duen xedapen orokor berriak ebaluatu beharko litzatekeen alderdi ekonomiko bat dauka, eta, egiazki, egiteko dagoen zerbait da Euskadin, Espainian eta, neurri handi batean, Europar Batasunean bertan ere, finantzaketa Batasuneko zenbait funtsetatik lortu nahi izan baita, “Integrazio Aukera” izena izan duenaren barruan, zeina Batzordeak Natura 2000 sarearen finantzaketari buruz egindako komunikatuan jaso baitzen (COM 2004 431, Amaiera, 2004ko uztailaren 15a). Aukera hori oso gutxi erabili da hemen biodibertsitatea kontserbatzeko.

Gaur egun, Europako funts hauetan parte hartzeko aukera dago: Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsa, Europako Arrantza Funtsa, LIFE + eta Eskualde Garapen eta Kohesiorako Europako Funtsa.

Komeni da esatea 2014-2020 aldirako Espainiako 2000 Natura sarerako Lehentasunezko Ekinntza Esparruak hektareako 93'07 euroko egiazko kostu zenbatetsia darabilela.

Orain, azterketa ekonomiko egokia egin beharko da kudeaketa-neurrien eta -jarraibideen dokumentua egiteko.

Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Orokorrak egiten duen interpretazioaren arabera, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legeak (abenduaren 13ko 42/2007) 38. artikuluan xedatzen du nahitaezkoa dela dokumentuari memoria ekonomiko bat eranstea, eta horri buruz egin duen alegazioari dagokionez esan behar da artikuluko horrek honako hau jasotzen duela: “...*xedapen arauemaileetan eragin sozioekonomikoko eremuak ezarri ahal izango dira, araubide ekonomikoa eta mugaketen zer-nolakoari egokitutako konpentsazioak zehaztuta*”. Araubide ekonomiko hori, beraz, ez da derrigorrezkoa. Gainera, esandakoak babestutako eremu naturalei eragiten die (aipatu legearen II. kapituluaren deskribatuta daude), baina ez Natura 2000 Sareko eremu babestuei (III. kapituluaren deskribatuta daude).

Kalte-ordain kontzeptuari dagokionez, lehendabizi, garrantzitsua da nabarmentzea dokumentuan planteatutako erregulazio guztiek ez dakartela berekin sortutako kalterik edo lortu gabeko irabazirik konpentsatzeko kalte-ordainen hartzekodunei dagokienez. Hori gertatzen denerako, jabe partikularrez den bezainbatean planteatutako erregulazioek ez dute eragozten ingurumen-konpromisoak hartzeko akordioak izenpetzea, eta konpromisoak finantzatzeko behar den aurrekontu eta zenbatekoa izatea. Hartara, jabe partikularrez den bezainbatean planteatutako erregulazio gehienek haiekin akordioak lortzeko beharra/aukera aurreikusten dute ingurumen-konpromisoak hartzeko, eta akordio horiek finantzatzeko kalkulaturako zenbatekoa jasotzen da aurrekontuetan, planak zehazten duen erreferentziazko baliora edo arrakasta-irizpidera iritsi arte, landa-garapenerako programan egin ohi den bezala, antzeko adibide bat jartzearren.

Adierazi behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Dekretuan (apirilaren 15eko 1/2014) aurreikusita dagoela lege honen aplikazioan gertatutako errenta-galerak konpentsatzeko araubide orokorra. Nolanahi ere, gogorarazi behar da konpentsazio ekonomikoak ezin direla oro har ezarri, eta Informazio Ekologikoari, Araudiari eta Kontserbazio Helburuei buruzko Dokumentuko erregulazio zehatzei lotuta egon behar dutela.

Habitategi buruzko Zuzentarauaren 6.1 artikulua dioen bezala, kontserbazio bereziko eremuen izendapen-dokumentuetan jasotako helburuek nahiz erregelamendu-, administrazio- edo kontratu-neurri egokiek lekuetan dauden I. eranskineko habitat naturalen moten eta II. eranskineko espezieen premia ekologikoei erantzun behar diete. Hortaz, ez da Informazio Ekologikoari, Araudiari eta Kontserbazio Helburuei buruzko Dokumentuaren xedea neurriak hartzea konpentsazioak ezartzeko Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuan jardura ekonomikoei dagokienez gerta daitezkeen mugaketengatik, eta horri kasu egin behar zaio, babestutako eremu naturalei dagokienez ezarritako eskumen-araubidea aplikatuz, zeina jasota baitago bai Autonomia Elkarte Osorako Erakundearen eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Jardute Erakundearen arteko Harremanei buruzko Legean (azaroaren 25eko 2/1983), bai Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Dekretuan (apirilaren 15eko 1/2014), Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundien beste tresna batzuk erabilia, zeinak bere barruan hartuko bailituzke Aizkorri-Arazko natura-parkerako eta kontserbazio bereziko eremurako kudeaketa-jarraitzearen eta -jarduketaren dokumentuak, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiek prestatua eta onartua bera, eta bertan osatu beharko litzateke alegatutako alderdia, hala iritziz gero. Dokumentu horrek identifikatu behar ditu kostu gehigarria izatea edo diru-sarrerak galtzea eragin dezaketen neurriak, bai eta konpentsazio-araubidea izatea egokia den ala ez zehaztu ere.

Nolanahi ere, gogorarazi behar da konpentsazio ekonomikoak ezin direla oro har ezarri, eta Informazio Ekologikoari, Araudiari eta Kontserbazio Helburuei buruzko Dokumentuko erregulazio zehatzei lotuta egon behar dutela.

2.2.11 Komunikazioa eta Hezkuntza

Gasteizko eta Legazpiko Ingurugela elkarteek diote ez dagoela hezkuntzari buruzko aipamenik, abeltzain eta bisitarientzako sentsibilizazio-zeregin batzuk eta kiropteroei buruzko sentsibilizazio-kanpainak alde batera utzita, eta ez direla aipatzen ikastetxeak. Honako jarduketa hau sartzeari proposatzen dute: Baliabide didaktikoak egitea, gutxienez Aizkorri-Arazko parke naturalaren aldameneko udalerrietan derrigorrezko etapetan dauden ikasleentzako jardueretarako, ikas dezaten parkearen biodibertsitatean zer balio dauden, zeinen garrantzitsuak diren, parkea kontserbatzearen aldeko sentimenduak eta motibazioa sustatzeko eta kontserbazio horretan parte hartzeko konpetentziak garatzeko. Era berean, jarduera eta baliabide horien ebaluazioa sustatuko da.

Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartek eskatu du ingurumen-hezkuntza egiteko basoen jabeek eta baserritarrei begira, ondo uler dezaten zer-nolako eragina duen egiten dutenak ingurunean.

Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartek eskatu du ingurumen-hezkuntza lantzeko herritar orori begira, batez ere Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremura doazenei begira, hango ondarea zain dezaten, baserritarren eginkizuna gorets dadin, jabe partikularrak kontserbazio bereziko eremuari egiten dion ekarpena aipatuta.

Ingurumen-hezkuntzarekin zerikusia duten zenbait jarduketa egitea dokumentuan jasotzeko eskaerari dagokionez, alegazioaren egilearen proposamenaren balioa onartuta ere, eta proposamenaren beharra ere bai, esan behar da Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuaren izendapenerako dokumentuen xedea eta edukiak nazioartean, estatuan eta autonomian Natura 2000 sarean sartutako eremuetarako erabakitako betebeharren barruan daudela. Hartara, aplikagarria den eskumen-araubidean oinarrituta, zeina jasota baitago Autonomia Elkartek Osorako Erakundearen eta bertako Kondaira Lurraldeetako Foruzko Jardute Erakundearen arteko Harremanei buruzko Legearen (azaroaren 25eko 2/1983), 6.1 artikuluan, 7.c.3. artikuluari dagokionez, foru-aldundiei egozten baitzaie babestutako eremu naturalen *administrazioa*, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategina onartzen duen Legegintzako Dekretuan ere (apirilaren 15eko 1/2014), lurralde historikoetako foru-organismoek dagokie kontserbazio-helburuetan oinarrituta neurri egokiak biltzen dituzten kudeaketa-jarraibideak onartzea. Hortaz, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiei dagokie ingurumen-hezkuntzako programak garatzeari dagokionez egokitzen dituzten neurriak zehaztea eta onartzea.

Landarlan Ingurumen Elkartek honako helburu hau gehitzea proposatu du: “Biodibertsitatea errespetatzeko kultura sustatzea biztanle-sektore guztietan, fauna eta floraren dibertsitatea ezagutzeko eta gure bizi-kalitatearako funtsezko garrantzia dutela ikasiz, gizakia ez den errealitate biziarekiko enpatia- eta elkartasun-sentimenduak piztuz, eta flora eta faunaren kontserbazioaren parte-hartze aktiboa izateko konpetentziak sustatuz”.

Era berean, aurreko alegazioan proposatutako helburu espezifikoan honako neurri hauek sartzeko eskatu du:

- 1.- Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleek ematea jarritako helburu espezifikoak lortzeko behar diren konpetentzia, tresna eta baliabide didaktikoak.
- 2.- Parke Naturalaren esparruan dauden ingurumen-hezkuntzako ekipamenduak sustatzea, eta programa eta jarduera didaktikoak garatzea zenbait mailatako eskola-umeentzat, bai eta, oro har, herritar guztientzat ere, lehentasuna emanez parke naturalaren esparruko udalerrietan bizi direnen sentsibilizazio eta kontzientziazioari.
- 3.- Kontserbazioaren kultura sustatu nahi duten udalei, elkartei eta bestelako eragileei laguntzea.
- 4.- Parke naturaleko biodibertsitateari buruzko informazioa komunikabideetan zabal dezaten sustatzea, egiten diren azterlanak eta ikerketak, aplikatutako neurrien emaitzak, ebaluazioak eta abar barne hartuta.

- 5.- Aldizkako ebaluazio kritikoak egitea, honako adierazle hauek jasota: aurrekontuen esleipenak, jarduera mota eta kupoa, parte-hartzaileen kopurua, parte-hartzaileen tipologia, parte-hartzaileen ebaluazioak eta jardueretan aritzen diren profesionalen iritziak.
- 6.- Biodibertsitatearen kultura zabaltzen lan egiten duten eragileen arteko koordinazioa eta lan bateratua bermatzea, sinergiak sustatuta eta bikoiztasunak saihestuta.
- 7.- Beste eremu natural batzuetako eragileekin batera parte hartzea lan-sareetan ingurumen-hezkuntzaren esparruan (formala, ez-formala eta/edo informazioa edo dibulgazioa xede izanik).

Proposatutako helburua funtsezkoa da, eta Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren lehentasunezko jardun-ardatzetako bat izan behar du. Baina alegazioaren egileak Aizkorri-Arazko esparru espezifikoan planteatutako helburu orokorra lortzen lagunduko duten helburu operatiboak zehaztu behar ditu dokumentu honek. Alde horretatik, 7. helburuak hori lortu nahi du, eta, horregatik, ez da beharrezkotzat edo egokitatzat jotzen Aizkorri-Arazko esparru geografikoa gainditzen duen helburua bat sartzea.

Aplikagarria den eskumen-araubidean oinarrituta, zeina 1/2014 Legegintza Dekretuan ezarrita baitago (apirilaren 15ekoa), kontserbazio bereziko eremuen eta hegaztientzako babes bereziko eremuen deklarazioa egiteko dekretuen edukiaz den bezainbatean, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiei dagokie *kudeaketa-jarraibideak eta -jarduketak* onartzea, aipatu araudi horretan Natura 2000 Sareko eremuetarako xedatutako betekizunak betez. Beraz, Aizkorri-Arazko natura-parkerako eta kontserbazio bereziko eremurako kudeaketa-jarraibideen eta -jarduketaren dokumentuan (Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiek egin eta onartu beharrekoa bera) aztertu beharko litzateke Landarlan Ingurumen Elkartek proposatutako neurriak sartzea.

2.2.12 Biodibertsitateari buruzko ezagutzak eta informazioa

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan, adostasunez erabaki da dokumentutik 101. erregulazioa kentzea.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, 101. erregulazioa kentzea erabaki da.

Oñatiko Udalak, lehenago, 2014ko abenduaren 18an, partaidetza-prozesuaren ondoren egin zuen bezala, eskatu du 202. erregulazioa zehazteko (Aizkorri-Aratzi buruzko lan zientifiko eta teknikoetan herritarrek erraz ulertzeko moduko dibulgaziozko laburpen-dokumentu bat egiteari buruzko erregulazioa), erregulazioa soil-soilik aplikatzeko kudeaketa-organoak edo Eusko Jaurlaritzak kontratatu eta finantzatutako edo batera finantzatutako lanei, eta ez baliabide publikoekin finantzatutako guztiei.

Partaidetza-prozesuaren ondoren 2015eko urtarrilaren 8an Seguran egindako itzultze-saioan, azaldu zen nola gehitu ziren dokumentuan prozesuan zehar egindako ekarpenak. Ekarpeneak jaso ez ziren salbuespenezko kasuei dagokienez, ez jasotzeko arrazioak azaldu ziren, aurretik hartutako konpromisoa kontuan izanda, eta idatzizko alegazioak Xedapen Orokorrak egiteko Prozeduraren Legean (abenduaren 22ko 8/2003) araututako jendaurreko informazio-fasean aurkeztea gomendatu zen, hori nola egin azaltzeaz gain.

Aurkeztutako alegazioaren kasuan, esan behar da bere garaian ez zela egokitzen jo Oñatiko Udalak egindako proposamena, eta pentsatzen dela funts publikoekin egiten diren lan guztiek jendearen eskura egon behar dutela, ahalik eta eskuratzeko modurik errazenean, ingurumen-arloko informazio eta partaidetzarako eskubideari buruzko arauen eta hitzarmenen ildotik; horregatik, neurria zentzuzkoa da, eta gaian indarrean dagoen legediaren arabera. Beraz, ez zen onartu eskaera.

Nolanahi ere, esan behar da alegazioa jendaurrean jarritako bertsioan dokumentutik desagertutako erregulazio bati buruzkoa dela.

Gipuzkoako EHNEk esan du arau eta helburu batzuek ez dutela oinarririk, dokumentuak berak onartzen duelako dagoen informazioa ez dela nahikoa kontserbazio-egoera kuantitatiboki zein den jakiteko, eta irizpide kualitatiboetan oinarritu direla. Alegazioaren egileak ez du horri buruzko proposamen zehatzik egin.

Asparreneko Udalak eta Ilarduiako Administrazio Batzordeak egiaztatu dute ezen, dokumentuak aitortuta ere informazio gutxi dagoela kontserbazioaren xede diren elementu askoren kontserbazio-egoerari buruz, gabezia horiek konpondu behar dituzten erregulazioak zehaztugabeak direla, eta, batzuetan, 4.1 helburuan bezala, ez dagoela inolako erregulaziorik. Esan du informazioa zehazteko behar diren baliabideak eta erantzukizunak zehaztu behar direla.

Adituen iritzietan oinarritutako zenbatespen kualitatiboa metodo onartua da basoko espezie-populazioen eta habitaten kontserbazio-egoera ebaluatzeko, informazio kuantitatiborik egon ezean. Dokumentua eskura zegoen informaziorik onenarekin idatzi da; izan ere, Europako Justizia Auzitegiak epai askotan argi utzi duen bezala, informazio zehatzik ez izateak ez ditu salbuesten estatu kideak Batasuneko araudia betetzetik; aitzitik, informazio hori lehenbailehen lortzera behartzen ditu.

Are gehiago, Batasunaren intereseko habitaten eta espezieen kontserbazio-egoeraz (EAEkoena barne) Europako Batzordera bidalitako informazio txarra dela eta, Batasuneko agintariak kexa aurkeztu dute Espainiaren aurka.

Horrenbestez, Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko informazio ekologikoari, kontserbazio-helburuei, kontserbaziorako arauak eta jarraipen-programari buruzko dokumentuan jasotako erregulazio batzuek erantzuna ematen diote eskura dagoen informazioa hobetzeko beharrari, kudeaketa-erabakiak arduraz errazago hartzeko.

Hala ere, ezagutza ez da erregulazioen bidez hobetzen, baina jarduketa zehatzen bidez: erroldak, inbentarioak eta azterlanak. Aplikagarria den eskumen-araubidean oinarrituta, zeina 1/2014 Legegintza Dekretuan ezarrita baitago (apirilaren 15ekoa), Kontserbazio Bereziko Eremuen eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuen deklarazioa egiteko dekretuen edukiaz den bezainbatean, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiei dagokie *kudeaketa-jarraibideak eta -jarduketak* onartzea, aipatu araudi horretan Natura 2000 Sareko eremuetarako xedatutako betekizunak betez. Beraz, Aizkorri-Arazko natura-parkerako eta kontserbazio bereziko eremurako kudeaketa-jarraibideen eta -jarduketen dokumentuan (Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiek egin eta onartua bera) osatu beharko litzateke alegatutako kontua, hala iritzi gero. Ondoriozko ezagutza-hobekuntza dela eta, neurriak aurrerapen zientifikoetara egokituko dira, aurrerapenak gertatzen direnean.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak esan du baso-inbentarioa MAGRAMAren mendeko eragiketa estatistikoa dela, baina MAGRAMA hori estatu osorako prestatzen da. Bere erregulazioak ditu, eta

dokumentu honek ez dauka aldatzeko ahalmenik. Gauza bera gertatzen da baso-antolaketako planen edukiekin, derrigorrezko edukiak finkatuta baitaude. Eta adierazi du ezen, nolanahi ere, aurkibidea gehitzeak ziur aski eragin txikia edo hutsa daukala Batasunaren intereseko habitat eta espezieetan. Eta, azkenik, ordezeko idazkera baliokidea proposatu du: Baso-baliabideak antolatzeke planek eta mendiak antolatzeke proiektuek edo plan dasokratikoek tokiko basoak errespetatzeko eta, hala egokituz gero, lehengoratzeko irizpideari jarraituko diote.

Arabako Foru Aldundiak esan du jarraipen-planak, eta ez plan tekniko edo baso-antolaketako proiektu bakoitzak, eman behar duela informazioa aurkibideaz eta baso-ekosistemetak osagai estrukturalaz, biologikoez eta funtzionalaz.

Adierazten da baso-inbentarioari buruzko erregulazioa, 1.a, bestela idatzi dela Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzaren alegazioak proposatutakoaren ildotik, eragile ekonomiko eta sozialekin egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta.

2.2.13 Erabilera publikoa eta gobernantza

Gipuzkoako Mendizale Federazioak 88. erregulazioa aldatzeko eskatu du, Aizkorrin eskaladaren guztizko debekua kentzeko, eta baimentzeko urte osoan eskalatzea inguru batzuetan, eta garai batzuetan soilik bestetuetan.

Eragile ekonomiko eta sozialei egindako kontsulta-prozesuan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailaren eta Gipuzkoako eta Arabako foru-aldundien artean egindako ituntze-prozesuan oinarrituta, dokumentutik 88. erregulazioa kentzea erabaki da. Hortaz, ez da aplikatzeko alegazioaren egileak helarazitako erregulazio-proposamena.

Gipuzkoako Mendizale Federazioak uste du erraztasunak eman beharko liratekeela barrunbeetan sartzeko helburu zientifikoekin.

102. erregulazioak (51.a zenbakikuntza berriaren ondoren) babestutako eremu naturalaren kudeaketa-organoaren aurretiazko baimen-baldintza ezartzen du arriskuan dauden espezieak dituzten barrunbeetan sartzeko.

Gainera, oro har, Habitaten Zuzentarauak berak honako hau dio: *“Estatu kideek neurri egokiak hartuko dituzte, batetik, kontserbazio bereziko eremuetan habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea ekiditeko eta, bestetik, eremuen izendapena bultzatu duten espezieetan eragingo duten aldaketak ekiditeko, aldaketa horiek zuzentarau honen helburuei dagokien eragin nabarmena izan dezaketen neurrian”*. Baina ondorioen ebaluazio egokia planetara edo proiektuetara mugatzen du, baldin eta *“ez badute lotura zuzenik lekuaren kudeaketarekin, edo ez badira beharrezkoak kudeaketa hori egiteko”*. Eta hori ez da gertatzen helburu zientifikoak dituzten edo jarraipen-planaren beraren ondorio diren jarduerekin, guztiz beharrezkoak baitira kudeaketarako; horregatik, kudeaketa-organoak, bideratzeaz gain, ziur aski sustatu ere egin beharko lituzke.

Gipuzkoako Mendizale Federazioak uste du nahikoa dela gutxienez 15 egun lehenago bidaltzea Patronatuarekin egin beharreko eztabaidetarako dokumentazioa, eta urtean bi bilerak egiteko egutegia zehaztea proposatu du.

Pentsatu da epea hilabetekoa izatea lagungarria litzatekeela Patronatua osatzen duten erakundeek parte-hartze aktiboa izateko, batzuetan, esan dutenaren arabera, kontsulta egin behar baitiete elkarteetako kideei, edo aholkua eskatu adituei. Horregatik, ez da komenigarritzat jo dokumentazioa igortzeko epea laburtzea, alegazioaren egileak proposatu bezala.

Bestalde, aplikagarria den eskumen-araubidean oinarrituta, zeina 1/2014 Legegintza Dekretuan ezarrita baitago (apirilaren 15ekoa), kontserbazio bereziko eremuen eta hegaztientzako babes bereziko eremuen deklarazioa egiteko dekretuen edukiaz den bezainbatean, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiei dagokie Patronatuaren bileren periodikotasuna, osaera eta funtzionamendu-arauak erabakitzea. Hortaz, alegazioaren egileak azaldutakoaren ildotik zehaztu ahal izango dira kudeaketa-jardueren eta -jarraibideen dokumentuan, hala iritziz gero Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiek.

UAGAk proposatzen du kontserbazio bereziko eremuarekin zerikusia duten ingurumen- eta sektore-administrazioak, toki-erakundeak eta eragindako gizarte-sektoreak aldiari behin elkartzeko foro bat sortzea, kontserbazio bereziko eremua eta hegaztientzako babes bereziko eremua kudeatzeko organoek ezarritako neurrietan parte hartu ahal izan dezaten.

Leintz-Gatzagako, Zegamako eta Aretxabaletako udalek eskatu dute eraginpekoen ordezkariak udalerriak sartzeko Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuko edo babestutako eremu naturaleko gobernu-batzordean edo kudeaketa-organoan, parke osoaren eta eraginpeko jabe pribatuaren artean okupatutako hektarea kopuruaren proportzioan.

Alde horretatik, komeni da adieraztea Baliabide Naturalak Antolatzen Planean araututa eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren bidez (azkenean kudeaketa-neurriak eta -jarraibideak buruzko dokumentua gehitu beharko zaio) araututa dauden parke naturaleko partaidetza-organoek aukera ematen dutela lantaldeak eta batzordeak sortzeko Aizkorri-Arazko babestutako eremu naturalaren Patronatuaren inguruan.

Gainera, esan behar da ezen, eskumen-araubide aplikagarrian, foru-organoei egozten zaiela legearen aurreikuspenen barruan babestutako eremu naturalen kudeaketa. Natura 2000 Sarean sartutako lekuen plangintzari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako Dekretuan (apirilaren 15eko 1/2014) xedatzen da Eusko Jaurlaritzari dagokiola lekuen izendapena, bai eta kontserbaziorako helburuak eta erregulazioak ezartzea ere. Lurralde historikoetako foru-organoei, berriz, kudeaketa-jarraibideak onartzea dagokie, kontserbazio-helburuetan oinarrituta neurri egokiak bilduz. Hortaz, argi dago ez dela Informazio Ekologikoari, Araudiari eta Kontserbazio Helburuei buruzko Dokumentuaren xedea (zeina apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak babestutako eremu naturalen izendapenari dagokionez Eusko Jaurlaritzari ematen dizkion eskumenak betez garatzen baita) erabakitzea nola garatuko diren kontserbazio bereziko eremuko kudeaketa-organoaren eta toki-administrazioen eta/edo beste erakunde interesdun batzuen arteko harremanak, eta ulertzen da Arabako eta Gipuzkoako lurralde historikoetako foru-organoei erabaki behar dutela nola ezarri harreman horiek.

Hortaz, eraginpekoen ordezkariak okupatutako hektareekiko kopuru proportzionalan Aizkorri-Aratz Kontserbazio Bereziko Eremuko eta babestutako eremu naturaleko gobernu-batzordean edo kudeaketa-organoan sartzeari dagokionez, ulertzen da babestutako eremu naturaleko kudeaketa-organoak erabaki beharko lukeela nola osatuta egongo den.

2.2.14 Dokumentuaren beste alderdi batzuk

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Natura Ingurunearen Zuzendariorde Nagusiak esan du aztertu behar direla Batasunaren intereseko espezieak eta hegaztien espezieak 6., 7. eta 11. tauletan eta 7.6 atalekoetan identifikatzeko erabilitako kodeak; era berean, esan du eremu bakoitzeko datuen formulario normalizatuan dagozkien atalak eguneratu behar direla, egindako eta kudeaketa-tresnan jasotako inbentarioen ondorioz habitatetan eta espezieetan izandako aldaketak jasoz; eta, azkenik, esan du behar bezala justifikatu behar direla hasierako Batasunaren intereseko lekuaren mugen aldean kontserbazio bereziko eremuan egindako muga-aldaketak.

Behin betiko onartu baino lehen, MAGRAMaren txostenean aipatutako alderdi guztiak aztertu eta zuzendu egingo dira, eta behar diren izapideak egingo dira Europako Batzordean, dekretu-proiektuaren testuan jasota dagoen bezala.

Landarlan Ingurumen Elkarrekin eskatu du neurri bat jasotzeko onddo eta perretxikoen bilketari buruzko datuak lortzeko, bai eta jakiteko ere zer eragin duen jarduera horrek ekosistemetan, eta, beharrezkotzat jotz gero, bilketa kontrolatzeko neurriak zehaztu eta aplikatzeko.

Ilarduiako Kontzejuko Administrazio Batzordeak esan du espezie zinegetiko batzuen populazioa, hala nola basurdeena eta orkatzena, oso handia dela, baina kontrolik gabe dagoela, kalteak eragiten dituztela landaketetan, eta inguruan zeuden bi eper-populazioak desagertzeaz daudela.

Habitatari buruzko Zuzentzarauaren 6. artikuluko 2. zenbakiak ezarritako betebeharraren ondoriozkoa da dokumentu hau. Batzordearen “*Habitatari buruzko Zuzentzarauaren 6. artikuluko xedapenak*” dokumentuaren arabera, horrek esan nahi du etengabe hartu behar direla kontserbazio bereziko eremuetan prebentzio-neurriak habitat naturalak hondatzea edo inguruaren izendapenerako arrazoi izandako espezieak aldatzea eragin dezaketen jardueretan, eta aplikatu behar direla gaur egun dauden jardueretan 6. artikuluko 1. zenbakian aurreikusita dauden beharrezko kontserbazio-neurriak, jardueraren eragin kaltegarria geroagotzeko. Ez da egiaztatu perretxikoak biltzeak eragin kaltegarri aipagarria duenik Aizkorri-Aratzen kontserbatu nahi diren espezieen eta habitataren egoeran. Hortaz, jarduera hori beste araudi baten bidez erregula daiteke, baina ez da egokia dokumentu honen bidez arautzea. Hala ere, interesgarria izan daiteke Landarlan Ingurumen Elkarrekin proposatzen duen neurria jasotzea, jarduera horrek ekosistemetan duen eragina egiaztatzeko eta bilketaren kontrol-neurriak aplikatzeko. Hala ere, aplikagarria den eskumen-araubidean oinarrituta, zeina 1/2014 Legegintza Dekretuan ezarrita baitago (apirilaren 15ekoa), kontserbazio bereziko eremuen eta hegaztientzako babes bereziko eremuen deklarazioa egiteko dekretuen edukiaz den bezainbatean, Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundiei dagokie *kudeaketa-jarraibideak eta -jarduketak* onartzea, aipatu araudi horretan Natura 2000 Sareko eremuetarako xedatutako betekizunak betez. Beraz, Aizkorri-Arazko natura-parkerako eta kontserbazio bereziko eremurako egin eta onartu behar duten kudeaketa-jarraibideen eta -jarduketan dokumentuan osatu beharko litzateke alegatutako kontua, hala iritziz gero.

Ilarduiako Kontzejuko Administrazio Batzordearen alegazioari dagokionez, esan behar da basurdea, orkatza eta eperra ez daudela sartuta habitatari edo hegaztiari buruzko zuzentzarauetako eranskinetan, eta, beraz, haien populazioak eta eragin ditzaketen kalteak ez dira jendaurrean jarritako dokumentuaren xede.